

Kultura 08-09

KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2010

Aurkibidea

Aurkezpena		2
Hitzaurrea		3
I. Atala	MONOGRAFIKOA: EUSKAL BIZILAGUNEN KULTURA-OHITURAK ETA -PRAKTIKAK	5
	1. Hiriko kulturari buruzko hausnarketa bat: ohitura eta praktika kulturalak euskal hiriburuetan. Imanol Zubero.	5
	2. Gazteen kultura: beste kode batzuk, beste ohitura batzuk. Iñaki Martínez de Luna.	25
	3. Euskara eta kultura-kontsumoa. Harkaitz Zubiri.	47
	4. Azken 24 urte hauetako kultura-ohituren bilakaera. Ramón Zallo.	63
II. Atala	LABURPEN ESTATISTIKOA: EUSKADIKO KULTURA ERREALITATEA ZIFRETAN	93
	1. Ondarea	93
	1.1. Liburutegi publikoak	95
	1.2. Museoak eta bilduma museografikoak	97
	1.3. Artxiboak	103
	2. Adierazpen artistikoa	104
	2.1. Arte eszenikoen produktoreak	104
	2.2. Arte eszenikoen programatzaileak	110
	2.3. Ikusizko arteak produzitzeko eta erakusteko zentroak	117
	3. Kultura-Industriak	121
	3.1. Argitalpen industria	121
	3.2. Industria diskografikoa	130
	3.3. Ikus-entzunezkoen industria	133
	3.4. Komunikabideak	141
	4. Zeharkako begiradak	145
	4.1. Kulturako gastu publikoa	145
	4.2. Euskararen presentzia kulturean	146
	4.3. Kultura digitala	150
	4.4. Kultura-ohiturak, -praktikak eta -kontsumoa: kultura-jardueretako interesa	154
Irudien aurkibidea		156



AURKEZPENA

Kulturaren Euskal Behatokiak hainbat urte daramatza euskal kulturaren sektoreari buruzko informazio estatistikoa eskaintzen. Haren lana funtsezkoa da erakundeek eta kultura-programatzaileek euskal kulturaren gainean eguneroko jardueraz haraindiko egiturazko ikuspegia izan dezaten.

Esan ohi denez, jakintzaren kudeaketan lau maila daude, halako goranzko eskailera bat osatzen dutenak: datuak, informazioa, ezagutza eta jakinduria. Behatokiaren eginkizuna da, hain zuzen, ezagutzaren zutabeak ipintzea, zurubiko lehenengo bi mailak sendotuz: datuak eta informazioa.

Hortik abiatu beharra dugu kulturagintzaren ikuspegi orokorra izan nahi badugu, informazio objektiboetan sustraituta, eta ez ikuspegi lerratuetan eta aurreiritzietan. Errealitatean finkatuta bakarrik egin ahalko ditugu arrazoizko diagnostikoak, kultura-politika eraginkorrak ahalbidetuko dituztenak.

Eta datu eta objektibotasunaren errespetuak behartzen gaitu, hain zuzen, errealista izatera. Aurreko urteetako esperientziak erakutsi digu batzuetan ez dugula aski masa kritikorik datu fidagarriak eskuratu ahal izateko. Hori dela eta, aurki hasi beharko dugu informazioari buruzko planteamendu orokorreagoak bilatzen edota kultura-testuinguru hurbilagoekiko loturak eta harremanak estuagotzen.

Datuak hor daude, eskuratzeko, aztertzeke eta egiaztatzeke. Bai eta, gainera, kultura-eragileok ondorio baliagarriak atera ditzagun, euskal herritarren mesedetan kultura-jardun egokiak bideratzeko zereginaren lagungarri.

Espero dut guztiontzat erabilgarriak izatea.

Blanca Urgell
Kultura sailburua



Kultura 08-09 bi helbururekin egiten den argitalpena dugu: batetik, kultura-politikekin lotutako gai bati buruzko hausnarketa sortzea eta bestetik, erabakiak hartzea erraztuko duen informazio sendoa ematea. Bi zatitan egituratuta dago, eta datuei buruzko ikuspuntuak eta interpretazioak hainbat ikuspegitatik erakusten dituen monografiko bat eta EAEko kultura-egoeraren informazio-errealitatearen erakusgarri den estatistika-hautaketa bat hartuko ditu barnean.

Edizio honi dagokionez, kultura-ohiturak eta -praktikak ikuspegi pluraletatik aztertuko dira monografikoan. Behatokiak Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko 2007ko eta 2008ko Estatistikaren lehen emaitzak ditu, eta datuez haratago joan nahi izan du, lau adituri datu horiek balioesteko eta interpretatzeko gonbita eginez. Zehazki, eztabaida hiru norabide desberdin eta osagarritan ireki da, herritarren arteko hainbat kontsumo-portaera eta -jarraibide azaltzen dituzten aldagaien arteko hiru kontuan hartuz. Lehenik eta behin, Imanol Zubero jauna gonbidatu dugu, hirietako biztanleriaren kultura-ohituren berezitasunen gaineko hausnarketa egin dezan. «Hiri-kulturari begirada bat: Euskadiko hiriburuetako kultura-ohiturak eta -praktikak» izeneko artikuluan Zuberok bere buruari galdetzen dio hiri-kulturaz hitz egin ote daitekeen, eta hiriburuetako kultura-praktiken arteko desberdintasunak aztertzen ditu. Kultura-ohiturak aztertzeko beste aldagai interesgarri bat adina dugu, eta zehazki, biztanleriaren segmentu gazteenak, hainbat kultura-praktika eta -kode berriren laborategia osatzen baitute. Kasu honetan, Iñaki Martinez de Lunak, «Gazteen kultura: kode berriak, praktika berriak» izeneko artikuluan, bi segmentutako (zehazki, lehen gaztaroari eta iragaitzazko gazteei dagozkienak) gazteen kultura-portaeren motibazioak, kausak eta azalpenak interpretatu ditu. «Euskara eta kultura-kontsumoa» artikuluan Harkaitz Zubirik zifrak abiapuntutzat hartzen ditu, hausnarketa bi noranzkotan egiteko: elebidunen praktika ohikoenak, eta euskarazko kultura-produktuen kontsumoa, hain zuzen. Azkenik, Ramon Zallok sinatzen duen «Azken 24 urte hauetako kultura-ohituren bilakaera» izeneko artikulua osotzen du monografikoa. Bertan, epe horretan euskal gizarteak izan dituen aldaketak eta hauen isla kultura-ohituretan aztertzen ditu.

Bestalde, bigarren zatiak estatistiken eranskin bat du; eranskin horretan 2008-2009 denboraldiko kultura-informazio erabilgarria bildu da. Behatokiak sustatutako eragiketa estatistikoetatik ateratako informazio-hautaketa bat ere jaso da, zehazki, Arteen buruzko Estatistikatik, Kultura Industriei buruzko Estatistikatik eta Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko 2007-2008ko Estatistikatik ateratakoak, hain zuzen. Horretaz gain, bigarren mailako iturrietatik ateratako sektore-datuak ere aurkeztu dira; Behatokiak sortutako informazioa osatzen dute datu horiek.



1. HIRIKO KULTURARI BURUZKO HAUSNARKETA BAT: OHITURA ETA PRAKTIKA KULTURALAK EUSKAL HIRIBURUETAN

Imanol Zubero. *Soziologian doktore. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle.*

Zer kulturari buruz ari gara?

Hiriko kultura edo kultura hirian? Segur aski, hausnarketa bati ekiteko modurik okerrenera da hausnarketa horren kontzeptu nagusiak zalantzan jartzea, izenen inguruko eztabaida batean galtzeko arriskua baitakar berekin. Hala ere, kasu honetan, hasieratik auzi hori planteatzea egokia da, bai eta ezinbestekoa ere.

Ez dira gauza bera hiria kultura-ekoizpenaren ikuspuntutik aztertzea eta hiria kultura-kontsumoaren ikuspuntutik aztertzea. Lehenengoari dagokionez, ez dago inolako zalantzarik: hiriak, batez ere munduko metropoli handiak, kultura sortzeko toki pribilegiatuak dira, kultura-produktu ugari, askotarikoak eta batez ere berritzaileak sortzeko toki pribilegiatuak, alegia. Hiriak, Richard Morsek dioten bezala, «harea kulturalak» dira¹. Azken garai hauetan, hiriari buruzko ikuspuntu hori hiriaren erakarmena² deritzon kontzeptuan jaso da, lehiakortasun kontzeptu klasiko eta erredukzionistagoa ordezkaturik. Richard Floridaren hiriko «klase sortzaileari» buruzko lanak eta «hiri sortzaileari» buruzko haren korrelatua horren guztiaren adierazgarri onak dira³.

1 MORSE, Richard (2005): *Ciudades periféricas como arenas culturales: Rusia, Austria, América Latina*, in Bifurcaciones: revista de estudios culturales urbanos, 3 <http://www.bifurcaciones.cl/003/reserva.htm>

2 ASCHER, François (2008): *Les nouveaux compromis urbains. Lexique de la ville plurielle*, Editions de l'Aube.

3 FLORIDA, Richard (2004): *The Rise of the Creative Class*, Basic Books, New York; FLORIDA, Richard (2009): *Las ciudades creativas*, Paidós, Bartzelona.

Beste gauza bat da hiriak kultura-kontsumorako berariazko guneak izatea. Gai horri dagokionez, galdera bestelakoa da: kontua ez da ea hiria kultura ekoizteko esparru pribilegiatua den, baizik eta hirietan bizi direnen ohitura eta praktika kulturalak nabarmen bestelakoak diren beste *habitat* batzuetan bizi direnen ohituren eta praktiken aldean. Zer bereizkuntza dakar (Pierre Bourdieuren¹ ikuspuntu aski ezaguna baliatuz) hiri batean bizitzeak edo ez bizitzeak, ohitura eta praktika kulturalen ikuspuntuari dagokionez? Hiriak habitus berezi bat, ordena jakin bat sortzen al du? *Habitus* horrek beste produktu kultural batzuekiko irizpideak eta jarrerak osatzen al ditu, hiriko eremuan bizi ez direnen produktuen oso bestelakoak? Hala pentsatzen du, adibidez, Marta Rizo ikertzaile mexikarrak. Rizoren arabera, hiria ideia-sortzailea da, edo, gauza bera dena, hiria nortasunen sortzailea da —ekoizlea eta erreproduzitzailea—, eta horrenbestez, *habitus* bereziak ere sortzen ditu². Ikerketa-ildo horri esker emaitza interesgarriak lortu dira Latinoamerikan, esate baterako³.

Baina hiriko kulturari buruzko ikuspuntu horrek berdin balio ote du eta neurri bereko azalpen-gaitasuna ote du gure kasuan, euskal kasuan aplikatuta? Garrantzi teoriko eta praktikoa nabarmeneko gaia da hori, artikulu honetan erantzun ezina. Hala ere, ildo honen bidez eztabaida sakon horren irtenbidea bilatzeko inolako asmorik gabe, nahikoa izango litzateke aztergai dugun eremuko, Euskal Herriko⁴, biztanleriaren banaketa zehatza kontuan izatea, hiriko ohitura eta praktika kulturek lurralde osoko ohituren eta praktiken aldean duten berezitasuna erlatibizatzeke.

2007ko abenduaren 31n, Eustat Euskal Estatistika Erakundearen datuen arabera, Euskadik 2.147.754 biztanle zituen, eta honela banatuta zeuden Lurralde Historikoetan: Araban, 309.786; Bizkaian, 1.144.420; eta Gipuzkoan, 693.548. Euskadiko bi konurbazio

1 BOURDIEU, Pierre (2006): *La distinción. Criterio y bases sociales del gusto*, Taurus, Madrid.

2 RIZO, Marta (2006): *Conceptos para pensar lo urbano: el abordaje de la ciudad desde la identidad, el habitus y las representaciones sociales*, in Bifurcaciones: revista de estudios culturales urbanos, 6 <http://redalyc.uaemex.mx/redalyc/pdf/558/55800601.pdf>.

3 Ikusi, adibidez: CORNEJO, Inés eta BELLON Elizabeth (2001): *Prácticas Culturales de Apropiación Simbólica en el Centro Comercial Santa Fe*, in Convergencia, urtarril-apirila, 24 <http://redalyc.uaemex.mx/redalyc/src/inicio/ArtPdfRed.jsp?iCve=10502403>; MEYER, José Antonio (2006): *Hábitos, prácticas y consumos culturales en la ciudad de Puebla*, in Razón y Palabra, 49 <http://www.cem.itesm.mx/dacs/publicaciones/logos/antecedentes/n49/bienal/Mesa%2010/joseantoniomeyer.pdf>.

4 Hau da, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Erkidegoa eta Iparralde edo Pays Basque esaten diotena osatzen duten Lapurdi(Labourd), Behenafarroa (Basse-Navarre) eta Zuberoa (Soule) lurraldeak.

handiak, Bilbo Handia (871.395 biztanle) eta Donostiako eskualdea (318.792) aintzat hartzen baditugu, bai eta Gasteiz hiria ere (232.200 biztanle), ohartuko gara Euskadiko biztanleriaren % 66, biztanleriaren bi heren ia-ia, eremu erabat hiritarretan bizi dela. Datu horien arabera, Euskadin oso urrun gaude gizarte-zientzien dikotomia tradizionalenetik; hau da, landa/hiria dikotomiatik. Gaur egun, hiria, aldamenean dagoen eremu bat izateaz gain, jarraian dagoen eremu bat da ingurunearentzat, argi eta garbi. Euskadi, egiatan, Euskal Hiria da. Ez da horren zuzena demografiari dagokionez Euskal Herri osoa hiria dela esatea. Aztertuko ditugun beste bi eremu politiko-administratiboek ez dute horren izaera hiritartua. INE Instituto Nacional de Estadística-ren datuen arabera, Nafarroako Foru Erkidegoak 620.377 biztanle zituen 2008ko urtarrilaren 1ean, eta biztanle horietako 197.275 (guztizkoaren % 31,8) Iruñean erroldatuta zeuden. Iparraldeari dagokionez, INED *Institut National d'Etudes Demographiques*-en datuen arabera, 2005ean guztira 246.471 biztanle zeuden hiru lurraldeetan, eta biztanle horietako 44.300 (guztizkoaren % 18) Baionan bizi ziren.

Ikusi dugunez, lurralde-esparru bat edo bestea aztertzeak bere ondorioak ditu. Euskal Herria esaten diogun lurralde kultural osoko biztanleriaren demografia-errealitateari eta -banaketari behatuz gero, urbanizazio-tasa % 55eraino jaisten da (Bilboren eta Donostiaren metropoli-arean eta beste hiru hiriburuetan bizi den biztanleria «hirikotzat» hartuta, hori benetan gauza eztabaidagarria izanik ere). Hala ere, ziur nago portzentajezko 11 puntuko murrizketa hori estatistikoki nabarmena den arren, ez dela horren adierazgarria ikuspuntu kualitatibo batetik begiratuta.

Hirigintza bizitzeko modu gisa hartuta —Louis Wirthen lan klasikoa gogoratuz¹—, jada ez da hirien ezaugarria soilik, gizarte modernoaren bizimodu bereizgarri bihurtu da². Guri dagokigunez, gehiengo handiena jada Euskal Hiriko eremu kulturean bizi gara?, norberaren herriaren tamaina gorabehera.

1 WIRTH, Louis (1938): *Urbanism As A Way of Life*, in *American Journal of Sociology*, 44. Gaztelaniazko argitalpena web-orri honetan: <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2917973>.

2 POSE, Héctor H. (2006): *La cultura en las ciudades*, Grao, Bartzelona.

Interes, ohitura eta praktika kulturalak

Gaiari helduz, ohituraz hirikoa den kultura hori lurralde osoan gainjartzeak (*overlap*) edo hedatzeak esplikatu dezake kultura-jarduerekiko interesa ia batere ez aldatzea, hiriei dagokien guztizkoa EAERI buruzko datuekin edo Euskal Herria esaten zaion eremu kulturalari buruzko datuekin alderatzen badugu¹. Hurrengo taulan egiazta daitekeen bezala, habitataren ikuspuntutik (hiriburuak vs. lurralde osoa) ez dago desberdintasun nabarmenik, jendeak kultura-jarduerekiko adierazi duen interesari dagokionez. Salbuespen bakarra aldizkariak dira; Baiona nabarmentzen da alde horretatik, beste hiriburuak baino interes handiagoa baitu produktu kultural horiekiko.

1. irudia. Kultura-jarduerekiko interesa (batez bestekoa). 2007-2008

	EH guztira	EAE guztira	Hiriburuak guztira	Gasteiz	Bilbo	Donostia	Iruñea	Baiona
Musika, oro har	7,3	7,4	7,3	7,3	7,4	7,7	7,6	6,4
Irakurketa, oro har	7,0	7,0	7,3	7,3	7,2	7,5	7,3	7,2
Liburuak	6,7	6,8	7,1	7,2	7,1	7,3	7,0	6,8
Egunkariak	6,6	6,7	6,7	6,6	6,9	7,0	6,9	6,1
Zinema	6,0	6,1	6,4	6,4	6,1	6,5	6,0	6,9
Egungo musikako kontzertuak	6,0	6,0	6,0	6,1	5,9	6,3	5,9	5,6
Antzerkia	5,2	5,3	5,6	5,8	5,6	5,8	5,6	5,2
Bertsolaritza	5,1	5,2	4,9	3,3	3,2	3,5	5,4	3,8
Musika klasikoko kontzertuak	5,0	5,1	5,2	5,3	5,3	5,8	5,4	4,4
Aldizkariak	4,9	4,8	5,1	4,9	4,8	4,9	4,7	6,2
Museoak	4,8	4,9	5,3	5,4	5,2	5,4	5,3	5,1
Erakusketa-aretoak	4,6	4,7	4,9	5,3	4,7	5,2	5,1	4,4
Arte-galeriak	4,0	4,1	4,4	4,7	4,3	4,6	4,4	4,1
Liburutegiak	3,8	3,9	4,1	4,6	3,9	4,4	4,1	3,7
Dantza	3,8	3,9	4,0	3,8	4,1	4,5	4,0	3,4
Lirika	3,4	3,6	3,6	3,7	3,9	4,3	3,7	2,5

Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia. *Kultura-ohituei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008*.

¹ Interes esatean pertsonen jarduerak kultura jakinekiko zer joera duten adierazi nahi dugu. Interes-maila 0-tik (interesik batere ez) 10-era (interesik handiena) arteko eskala baten bidez neurtzen da.



Egia izanik ere jendearen kultura-jarduerekiko interesa apenas aldatzen dela, egia da halaber hiriburu eta lurralde osoaren artean desberdintasunak daudela praktika edo ohitura kulturaleri dagokienez¹. Desberdintasun horiek nabarmenagoak dira aisialdiari lotutako liburuak irakurtzea, eta museoetara eta galeria eta erakusketetara joatea jardueretan. Hiriburuetan, jarduera horiek Euskal Herri osoan baino gehiago egiten dira, ehuneko 5,5 edo 6 puntu gehiago. Hiriak jarduera bati dagokionez soilik daude atzetik Euskadi osoarekin alderatuta (% 18,1) edo Euskal Herri osoarekin alderatuta (% 17,3): bertsolarien emanaldietara joatea (% 14,3)².

2. irudia. Pertsonak, azken urte honetan kultura-jarduerak egiteko izan duten ohituraren arabera. 2007-2008

	EH guztira	EAE guztira	Hiriburuak guztira	Gasteiz	Bilbo	Donostia	Iruñea	Baiona
Musika entzutea	% 79,4	% 77,9	% 82,1	% 80,4	% 73,0	% 78,7	% 84,2	% 94,5
Aisialdiari lotutako liburuak irakurtzea	% 69,5	% 68,5	% 75,0	% 77,8	% 72,4	% 76,1	% 79,2	% 69,3
Zinemara joatea	% 54,8	% 54,1	% 57,9	% 59,1	% 56,7	% 57,3	% 60,8	% 55,8
Kontzertuetara joatea	% 38,2	% 37,7	% 40,0	% 34,3	% 39,4	% 46,9	% 54,4	% 24,9
Museoetara joatea	% 37,5	% 39,1	% 42,9	% 47,3	% 50,0	% 42,4	% 44,7	% 30,1
Liburutegietara/Mediateketara joatea	% 31,4	% 30,2	% 35,1	% 33,3	% 30,8	% 42,5	% 37,6	% 31,2
Arte-galerietara/Erakusketetara joatea	% 22,4	% 21,7	% 28,4	% 33,1	% 21,9	% 30,2	% 39,6	% 17,0
Antzerki-ikuskizunetara joatea	% 21,9	% 21,8	% 24,1	% 24,9	% 25,9	% 28,3	% 30,3	% 11,2
Bertsolaritza saioetara joatea*	% 17,3	% 18,1	% 14,3	% 17,9	% 18,4	% 13,5	% 9,0	% 12,6
Dantza-ikuskizunetara joatea	% 9,5	% 9,3	% 10,4	% 7,8	% 9,7	% 16,1	% 12,5	% 5,9
Opera-ikuskizunetara joatea	% 6,9	% 7,6	% 8,1	% 5,5	% 11,9	% 13,5	% 7,5	% 1,9

* Biztanle elebidunak.

Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia. *Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008*.

Aurreko taulan bertan jarraituz, hiriburuak eta lurralde osoa alderatzeari utzi, eta lau hiriburu eta lurralde osoaren artean hasten bagara, egiaztatuko dugu hiriburuaren beren artean desberdintasun gehiago daudela hiriburu eta lurralde osoaren artean baino.

1 «Ohitura kulturaltzat» hartzen dugu jendeak jarduera kulturalerikiko duen portaera orokorra, jarduera horiek egitea (edo ez egitea).

2 Bertsolarien ikuskizunetara joateari dagokionez, biztanleria elebiduna baino ez da hartu kontuan. Gainerako jardueretan, biztanleria osoa da erreferentzia.

Gehienetan, desberdintasun txikiak dira, batez besteko balioen gainean gutxi gorabehera ehuneko bi puntuko aldea dutenak. Hala ere, desberdintasun horiek, oro har aztertuta, eta batez ere beste desberdintasun handiago batzuk kontuan hartuta, kultura-jarduerak egiteko garaian hiriburu bakoitzaren idiosinkrasia berezia erakusten dute, edo, agian errazago esanda, hiriburu bakoitzak eskaintzen duen kultura-kontsumoaren aukeren egitura. Desberdintasun handiago horiek aztertzen luzatzen bagara, esan behar da Iruñea batez bestekoaren oso gainetik dagoela, besteak beste, jarduera hauei dagokienez: kontzertuetara joatea (14 puntu), galerietara eta erakusketetara joatea (11 puntu) eta antzokira joatea (6 puntu gehiago batez bestekoari dagokionez).

Donostian, jarduera hauek nabarmentzen dira: kontzertuetara eta liburutegietara joatea (7 puntu gehiago) edo operako ikuskizunetara joatea (5,5 puntu). Puntu honetara iritsita, ez litzateke bidezkoa Donostiako Musika Hamabostaldia urtero egiten duen lan ezin hobea ahaztea. Musika Hamabostaldia 1939 urtean sortu zuten, eta Donostiako gizarte zibilaren ekimen bat izan zen¹. Ekimen hori arrazoi bat dela eta nabarmendu dut: ohitura eta interes kulturalak zerikusi handia dute kultura-jarduerak egiteko aukera izatearekin edo ez izatearekin. Aukera horiek tokiko ekimenen bultzaden mende daude, toki horietako biztanleak azkenerako ohitu egiten baitituzte kultura-produktu batzuk edo beste batzuk kontsumitzera, edo, hobeto esanda, dastatzera.

Ondorioetan, berriz helduko diogu ohituren eta aukera kulturalen arteko loturaren auziari. Gure datuak aztertzen jarraituko dugu. Harrigarria badirudi ere, kontuan hartu ditugun hamaika jardueretatik zazpitan, Bilbo batez bestekoaren azpitik dago. Bilbo jarduera hauei dagokienez soilik nabarmentzen da: museoetara joatea (7 puntu), eta hein txikiagoan, bertso-saioetara eta operara joatea (4 puntu). Oraingoan ere, herritarren artean sustrai sakonak dituen beste ekimen bat aipatu behar dugu, ekimen hori gabe segur aski ez bailitzateke ulertuko operak Bilbon duen jarraipen handia: Operaren Lagunen Bilboko Elkarte (OLBE), 1953an sortua. Gasteiz, Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburua, batez besteko balioen ordezkari onena da, kontzertuetara joateko jardueraren kasuan izan ezik (jarduera horretan batez bestekotik 6 puntu beherago dago).

Azkenik, esan behar da Baionak baduela joera bat kontuan hartu beharrekoa. Baiona askoz ere txikiagoa denez euskal udalerrri handiak eta are ertainak baino, segur aski horregatik egongo dira jarduera hauen datuak askoz ere beherago hiriburuari dagokien

1 MARINA, Cosme (2004): *San Sebastián: Una ventana a la lírica*, in *Ópera Actual*, 72, uztaila-abuztua.

batez bestekoa baino: kontzertuetara, museoetara, liburutegietara, galerietara eta erakusketetara, antzokira edo dantzako eta operako ikuskizunetara joatea. Aitzitik, musika entzuteko ohituraren ehunekoa oso handia da, arraroa badirudi ere (% 94,5 da, eta hiriburuetakoa oro har % 82,1ekoa).

Kultura-kontsumoaren maiztasuna eta intentsitatea

Bruno Marescaren arabera, hiriko praktika kulturalen ezaugarria da kultura-kontsumoen intentsitatea¹. Aztertzen ari garen gaiari dagokionez, baieztapen hori egia izan daiteke, eremu bakoitzean kultura-jarduerak biztanleriaren zer ehunekok egiten dituen aintzat hartzen badugu. Ez da hala izango, ordea, jarduera horiek zer maiztasunekin eta intentsitatekin egiten diren aztertzen badugu. Gorago esan dugun bezala, hiriburuak Euskal Herri osoa 5,5 edo 6 puntuz gainditzen dute zenbait jardueratan, hala nola aisialdiari lotutako liburuak irakurtzea, eta museoetara, galerietara eta erakusketetara joatea. Hala ere, praktika kulturalen maiztasuna eta intentsitatea aztertzen baditugu, hiriaren berezitasuna lausotu egiten da². Edo beste modu batera esanda: praktika kultural eta kultura-kontsumo bakoitzari dagokionez, eremu bakoitzean (Euskal Herria, Euskal Autonomia Erkidegoa, hiriburuak), bizitokiaren eragina nabarmen murrizten da hauei soilik jartzen badiegu arreta: zinera edo antzokira joateko ohitura dutela adierazten dutenak, azken hiruhilekoan liburuak edo musika erosi dituztenak, eta liburuak irakurri eta musika entzun dutenak.

1 MARESCA, Bruno (2003): *L'intensité de la consommation culturelle, signe d'urbanité*, in Olivier Donnant (zuz.): *Regards croisés sur les pratiques culturelles*, La Documentation française, Paris.

2 «Kontsumoaren maiztasuna eta intentsitatea» esatean, jarduera bakoitza zenbat aldiz egin den edo jarduera egiteko zenbat denbora hartu den esan nahi da, edo produktu jakin bat erosi al den (eta zenbat erosi den).

3. irudia. Praktika eta kontsumo-ohitura kulturei buruzko oinarriko adierazleak hiriburuen arabera. 2007-2008

	EH guztira	EAE guztira	Hiriburuak guztira	Gasteiz	Bilbo	Donostia	Iruñea	Baiona
Azken hilabeteen liburutegira joandako aldien batez bestekoa	5,6	6,0	5,7	6,9	5,8	4,5	5,9	5,4
Azken hilabeteen irakurritako liburuen batez bestekoa	1,8	1,8	2,1	1,9	1,9	1,8	1,8	2,9
Astean telebista ikusten emandako orduen batez bestekoa	17,9	16,8	19,4	15,9	18,2	16,6	17,6	28,5
Astean irratia entzuten emandako orduen batez bestekoa	17,0	16,0	17,8	15,5	16,2	15,0	16,7	25,8
Astean musika entzuten emandako orduen batez bestekoa	9,2	8,7	10,1	8,8	8,2	8,2	10,6	14,8
Azken hiruhilekoan zinemara joandako aldien batez bestekoa	3,2	3,2	3,4	3,6	3,0	3,8	3,5	3,2
Azken hiruhilekoan antzerkia ikustera joandako aldien batez bestekoa	1,7	1,7	1,9	1,8	1,8	1,7	1,8	2,2
Azken hiruhilekoan erositako liburuen batez bestekoa	4,0	3,8	4,3	3,2	4,3	4,1	5,1	2,6

Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia. *Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008.*

Hiritan, liburutegietara edo mediateketara joan ohi diren pertsonak batez bestean lurralde osoan bizi direnen moduan edo antzera joaten dira (6 aldiz, gutxi gorabehera)¹; batez bestean antzeko liburu kopurua irakurtzen da (2 liburu inguru)², Euskal Herri edo Euskadi osoan erosten diren antzeko liburu kopurua erosten da (4 inguru hiruhilekoan)³; neurri berean joaten da zinera (3 aldiz baino pixka bat gehiago hiruhilekoan)⁴, antzokira bezala (2 aldiz baino gutxiago hiruhilekoan)⁵.

1 Oinarria: azken hilean liburutegira joan diren pertsonak (biztanleriaren % 19,3).

2 Oinarria: azken hilean aisialdiari lotutako liburuak irakurri dituzten pertsonak (biztanleriaren % 47,1).

3 Oinarria: azken hiruhilekoan libururen bat irakurri duten eta aldi berean liburuak erosi dituzten pertsonak (biztanleriaren % 44,8).

4 Oinarria: azken hiruhilekoan zinemara joan diren pertsonak (biztanleriaren % 41).

5 Oinarria: azken hiruhilekoan antzokietara joan diren pertsonak (biztanleriaren % 9,5).

Hiru jardueratan bakarrik (biztanlerian errotuen daudenak dira, bestalde) daude desberdintasun txiki batzuk bizitokiaren arabera, eta hirietan pixka bat maiztasun eta intentsitate handiagoz egiten dira. Batetik, astean telebista ikusteko eta irratia entzuteko hartzen dugun ordu-kopurua¹, eta bestetik, musika entzuteko hartzen dugun ordu kopurua².

Ikuskizunetara gehiago ez joatea eragiten duten faktoreak

Ikerketa honetan gogoan hartu ditugun jarduera kulturalen artean, hauek bereizi behar ditugu: batetik, etxean egiten direnak edo egin daitezkeenak, eta, bestetik, eremu publikoetan egiten direnak. Azken horien artean, galdetegiak hiru hautatu ditu —zinema, kontzertuak eta ikuskizun eszenikoak—, eta haien inguruan galdetu da zer faktorek eragin dezaketen jarduera horietara jende gehiago ez joatea.

Gogora ditzagun hasierako datuak, gorago jasota daudenak: hiriburuetako biztanleriaren % 57,9 zinera joan ohi da; % 40 kontzertuetara; eta % 24 eta % 8,1 bitarte baino ez dira ikuskizun eszenikoen ohiko ikusle (ikuskizun motaren arabera: antzerkia, dantza, opera). (2. irudia. Pertsonak, azken urte honetan kultura-jarduerak egiteko izan duten ohituraren arabera).

Jarduera-mota horietara gehiago joan nahiko luketela adierazten duten pertsonak kasu guztietan nabarmentzen dute «denbora falta» dela ikuskizun horietara ez joateko faktore nabarmenena, eta horren atzetik, kasu guztietan, ikuskizun horien «diru-kostua». Horrenbestez, dirudienez, arazoa ez da «eskaintza urria» dagoela, nahiz eta arrazoi hori eman duten galdetu zaienetatik % 26,7k eta % 23,4k, hurrenez hurren, kontzertuetara eta ikuskizun eszenikoetara gehiago ez joateko. Iruñean, % 35,5ek ematen du arrazoi hori.

1 Oinarria: telebista ikusteko ohitura duten pertsonak (biztanleriaren % 92,8); irratia entzuteko ohitura duten pertsonak (biztanleriaren % 77,4).

2 Oinarria: musika egunero edo ia egunero, edo astero entzuten duten pertsonak (biztanleriaren % 75).

Kontzertuetara joatea jarduerari arretaz behatzen badiogu, biztanleriaren % 48,1ek adierazten du denbora falta dela ikuskizun horietara ez joatea eragiten duen faktore nagusia; oro har, biztanleriak adierazitako erantzuna baino ia 5 puntu gorago dago¹. Diru-kostua da hiriburuetakoko biztanleriaren % 41,4rentzat ikuskizunetara ez joateko motiboa. Ehuneko hori biztanleria osoak emandako erantzunen ehunekoaren berdin-berdina da.

4. irudia. Ohiko ikusleen artean kontzertu gehiagotara ez joatea eragiten duten faktoreak (erantzun ugari). 2007-2008

	EH guztira	EAE guztira	Hiriburuak guztira	Gasteiz	Bilbo	Donostia	Iruñea	Baiona
Denborarik eza	% 43,6	% 43,5	% 48,1	% 41,4	% 39,0	% 53,5	% 50,5	% 56,1
Gastu ekonomikoa	% 41,4	% 41,9	% 41,4	% 35,1	% 47,6	% 40,4	% 49,0	% 34,8
Eskaintza nahikoa ez izatea	% 26,7	% 24,6	% 26,1	% 24,6	% 23,0	% 29,3	% 36,5	% 17,2
Eskaintza gutukoa ez izatea	% 15,2	% 15,2	% 16,2	% 31,7	% 14,9	% 16,5	% 12,1	% 6,0
Ordutegia egokia ez izatea	% 5,1	% 5,4	% 6,5	% 12,1	% 4,2	% 8,3	% 5,7	% 2,2
Informaziorik eza	% 3,5	% 3,1	% 4,2	% 0,0	% 3,8	% 2,7	% 2,9	% 11,5
Interesik eza	% 0,9	% 1,1	% 0,1	% 0,0	% 0,7	% 0,0	% 0,0	% 0,0
Bestelako kanala nahiago (telebista,...)	% 0,5	% 0,7	% 0,3	% 0,3	% 1,1	% 0,0	% 0,0	% 0,0
Bestelakoak	% 9,7	% 8,5	% 7,9	% 9,1	% 9,5	% 2,7	% 5,6	% 12,6

Oinarria: kontzertuetara gehiago joan nahiko luketen pertsonak, joan ohi direnen %78,5.

Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia. *Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008*.

Baionan (% 56,1) eta Donostian (% 53,5) denborarik ez izatea da, dirudienez, kontzertuetara ez joateko faktore nagusienetako bat; ez horrenbeste Gasteizen (% 41,4) eta Bilbon (% 39). Azken hiriburu horretan da soilik diru-kostua kontzertu gehiagotara ez joatea eragiten duen faktore nagusia, denborarik ezaren gainetik.

Zinemara joateari dagokionez, denborarik ez izatea eta diru-kostua dira berriz ere, lehen esan dugun bezala, ohiko ikusleek aretoetara nahi adina ez joatea eragiten duten bi faktore nagusiak². Kasu honetan, eta kontzertuetara joatearekin ez bezala,

1 Oinarria: kontzertuetara gehiago joan nahiko luketen pertsonak (joan ohi direnen % 78,5).

2 Oinarria: zinemara gehiago joan nahiko luketen pertsonak (biztanleriaren % 58).

hiriburuetan gutxiago adierazten dute denbora falta ez joateko faktore gisa lurralde osoan baino. Salbuespena Iruñea da, non galdetutakoan % 55,3k esaten baitu ez duela zinemara gehiago joateko denborarik. Berriz ere, Bilbon diru-kostua da zinemara gehiago ez joatea eragiten duen faktore nagusia (% 50,9), baina kasu horretan Gasteizen ere faktore hori da garrantzitsuena (% 55,5), Bizkaiko hiriburuaren gainetik.

5. irudia. Zinemara gehiago ez joatea eragiten duten faktoreak (erantzun ugari). 2007-2008

	EH guztira	EAE guztira	Hiriburuak guztira	Gasteiz	Bilbo	Donostia	Iruñea	Baiona
Denborarik eza	% 49,4	% 49,4	% 46,7	% 47,7	% 44,4	% 49,0	% 55,3	% 37,3
Gastu ekonomikoa	% 41,8	% 42,5	% 44,5	% 55,5	% 50,9	% 40,6	% 41,4	% 33,9
Eskaintza gutukoa ez izatea	% 8,3	% 8,7	% 8,7	% 7,5	% 10,1	% 9,7	% 11,9	% 4,1
Eskaintza nahikoa ez izatea	% 5,4	% 5,0	% 5,1	% 5,1	% 3,6	% 4,5	% 3,2	% 9,1
Bestelako kanala nahiago (telebista,...)	% 4,7	% 4,8	% 3,2	% 1,0	% 4,9	% 4,5	% 2,4	% 3,0
Ordutegia egokia ez izatea	% 4,2	% 3,4	% 4,8	% 3,9	% 3,6	% 5,3	% 9,3	% 1,7
Interesik eza	% 3,3	% 3,1	% 3,7	% 6,2	% 4,1	% 1,8	% 5,4	% 1,1
Informaziorik eza	% 0,4	% 0,4	% 0,4	% 0,1	% 0,4	% 0,2	% 0,7	% 0,4
Bestelakoak	% 9,2	% 9,0	% 9,9	% 6,6	% 4,5	% 8,8	% 5,1	% 24,4

Oinarria: zinemara gehiago joan nahiko luketen pertsonak, biztanleriaren % 58.

Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia. *Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008*.

Bukatzeko, ikuskizun eszenikoei dagokienez, ez dago alde handirik hiriburuetakotatik datuen eta aztertutako lurralde osoaren artean, baina bai hiriburuaren artean. Denborarik eza adierazten dute batez ere Gasteizen (% 54,3) ikuskizunetara ez joateko faktore gisa, eta neurri txikiagoan Iruñean (% 51,5). Eta berriz ere Bilbon, faktore horren ordean diru-kostua da ikuskizunetara ez joatea eragiten duen faktore nagusia. Iruñean, berriz, dirua hirugarren faktorea da, behar adina eskaintza ez izatea ageri baita hiriburu horretan bigarren faktore gisa.

6. irudia. Ikuskizun eszeniko gehiagotara ez joatea eragiten duten faktoreak (erantzun ugari). 2007-2008

	EH guztira	EAE guztira	Hiriburuak guztira	Gasteiz	Bilbo	Donostia	Iruñea	Baiona
Denborarik eza	% 47,1	% 48,3	% 47,6	% 54,3	% 42,7	% 48,8	% 51,5	% 40,5
Gastu ekonomikoa	% 31,7	% 35,0	% 34,4	% 31,7	% 46,5	% 36,9	% 24,6	% 32,2
Eskaintza nahikoa ez izatea	% 23,4	% 21,1	% 21,7	% 24,3	% 17,2	% 27,1	% 25,2	% 14,9
Ekitaldia ospatzen den tokiraino dagoen distantzia	% 10,1	% 8,4	% 5,2	% 5,9	% 3,5	% 5,9	% 6,9	% 3,7
Eskaintza gustukoa ez izatea	% 8,4	% 7,7	% 9,0	% 10,7	% 9,1	% 7,6	% 16,0	% 1,6
Informaziorik eza	% 7,5	% 7,5	% 8,4	% 12,2	% 7,6	% 5,1	% 9,7	% 7,2
Ordutegia egokia ez izatea	% 4,9	% 4,6	% 5,3	% 6,0	% 5,2	% 5,0	% 6,0	% 4,1
Interesik eza	% 2,6	% 2,8	% 2,1	% 4,6	% 1,0	% 1,6	% 3,2	% 0,0
Nahiago dut telebista ikusi edo irratia entzutea	% 1,4	% 1,0	% 2,4	% 1,9	% 1,1	% 0,3	% 1,8	% 6,9

Oinarria: arte eszenikoen ikuskizunetara gehiago joatea gustatuko litzaieken pertsonak, biztanleen %52,9.
Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia. *Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko esta tistika 2007-2008.*

Euskarazko praktika kulturalak

Atal honetan, biztanleria elebidunaren praktika kulturalak aztertuko ditugu; zehazki, hiriburuetako biztanleria elebidunak zer maiztasunez eta zer neurritan kontsumitzen dituen «euskal produktu kulturalak». Egiatan, ez gara neurtzen ari euskal produktu kulturalen kontsumoa, baizik eta euskarazko produktu kulturalen kontsumoa. Hala zehazten da datu-taulen goiburuetan —euskarazko liburuak irakurtzea, euskarazko antzerkietara joatea—, baina salbuespen bat du: musika erosteari eta kontzertuetara joateari buruzkoa. Bi kasu horietan, «euskal musika erostea» eta «euskal musikako kontzertuetara joatea» esaten da.

Lehenbizi hau nabarmendu behar da: biztanleriaren sektore horren ezaugarri nagusia da desberdina dela, kontsumoari dagokionez, biztanleria osoaren aldean, baina sektore hori aztertzeak ustekabeak ekarriko dizkigu.

Lehen ustekabekoa da biztanleria elebiduna oso gutxi joaten dela bertso-saioetara: biztanleriaren % 17,3 baino ez da joan azken urtean, eta talde handi bat (biztanleriaren % 67,8ra iristen dena) ez da inoiz joan edo ez da ia inoiz joaten.

7. irudia. Pertsona elebidunak, bertso-saioetara joatearen arabera. 2007-2008

	EH guztira	EAE guztira	Hiriburuak guztira	Gasteiz	Bilbo	Donostia	Iruñea	Baiona
Azken hilabeteetan	% 4,0	% 4,5	% 4,0	% 1,4	% 3,4	% 4,8	% 0,8	% 9,4
Azken hiruhilekoan	% 4,1	% 4,2	% 3,9	% 6,1	% 4,2	% 3,9	% 3,1	% 2,3
Azken urtebetean	% 9,2	% 9,4	% 6,4	% 10,4	% 10,8	% 4,8	% 5,1	% 0,9
Duela urtebete bat baino gehiago	% 14,9	% 14,5	% 15,6	% 21,0	% 19,1	% 15,5	% 10,8	% 11,4
Inoiz ez edo ia inoiz ez	% 67,8	% 67,3	% 70,2	% 61,2	% 62,6	% 70,9	% 80,3	% 76,0

Oinarria: biztanle elebidunak.

Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia. *Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008*.

Bestalde, hiriburuetan bizi den biztanleria elebiduna bertso-saioetara joaten den ala ez behatzen badugu, ohartuko gara gutxiago joaten dela (% 14,3 baino ez da joan azken urtean). Bi kasuetan, itxura guztien arabera, «zale amorratuen multzoa» dugu hori, Xabier Aierdik zuzendutako ikerketan hautemandakoa (biztanleria euskaldunaren % 14 han zehaztutakoaren arabera)¹. Gasteizek eta Bilbok dituzte bertso-saioetara joateari dagokionez ehuneko altuenak (% 17,9 eta % 18,4, hurrenez hurren), eta Euskal Herriko biztanleria osoaren batez bestekoaren gaineratik daude; baina bi hiriburu horiek dituzte bertso-saioetara ez joateari dagokionez tasa baxuenak ere: % 61,2k eta % 62,6k, hurrenez hurren, diote ez direla inoiz joan edo ia inoiz ez direla joaten bertso-saioetara. Beste muturrean Iruñea dugu, non biztanleria elebidunaren % 9k soilik esaten baitu azken urtean halako saioetara joan dela; % 80,3k dio ez dela inoiz joan edo ez dela ia inoiz joaten.

¹ Oso ezaugarri bereziko jarduera kulturala da, eta horrenbestez, jarduera horri buruzko edozein datu irakurtzeko, kontuan hartu behar dira «euskararen ekologia» berezia eta euskal hiztunen komunitateak bertsoaritzari emandako definizio kulturalak. Gai horiek lantzeko, ikus: AIERDI, Xabier, ALDAZ, Juan, ALKORTA, Eider, RETORTILLO, Alfredo, ZUBIRI, Harkaitz (2007): *Bertsolaritza, tradizio modernoa*, Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del Euskal Herria, Bilbo. Ingelesean idatzitako laburpen bat dago hemen: RETORTILLO, Alfredo, AIERDI, Xabier (2007): *A Sociological Study of Sung, Extempore Verse-Making in Basque*, in *Oral Tradition* 22/2., 13-31 http://journal.oraltradition.org/files/articles/22ii/3_retortillo_aierdi.pdf.

Hiriburuetak biztanleria elebidunaren gainerako kultura-kontsumoko praktikei dagokienez, oro har, gutxi desberdintzen dira biztanleria elebidun osotik: euskal musikako kontzertuetara ehuneko bera joaten da (% 69 hiriburuetan, % 67,6 lurralde osoan)¹; euskarazko liburuak irakurtzearen ehunekoa ere oso antzekoa da (% 58 hiriburuetan, % 57,4 lurralde osoan)², bai eta euskarazko antzerkietara joatearen ehunekoa ere (% 50,2 hiriburuetan, % 50,8 lurralde osoan)³. Bi praktika kulturali dagokienez, hiriburuak batez bestekoaren azpitik daude, gutxi bada ere: euskal musika erostea (hiriburuetak biztanleria elebidunaren % 59, biztanleria elebidun osoaren % 62,1)⁴ eta Interneteko euskarazko edukietara sartzea hiriburuetak biztanleria elebidunaren % 50,2 ez da inoiz sartzen, eta biztanleria elebidun osoaren % 48,4)⁵.

8. irudia. Biztanle elebidunen praktika eta kontsumo-ohitura kulturalari buruzko oinarriko adierazleak hiriburuen arabera.

2007-2008

	EH guztira	EAE guztira	Hiriburuak guztira	Gasteiz	Bilbo	Donostia	Iruñea	Baiona
Pertsona elebidunak, euskal musika erostearen arabera	% 62,1	% 62,5	% 59,0	% 63,4	% 46,4	% 51,2	% 57,7	% 76,5
Euskal musikako kontzertuetara joaten diren pertsona elebidunak	% 67,6	% 64,6	% 69,0	% 74,7	% 63,4	% 56,6	% 68,2	% 81,9
Pertsona elebidunak, euskarazko liburuen irakurketaren arabera	% 57,4	% 57,4	% 58,0	% 71,1	% 54,8	% 55,0	% 54,5	% 61,0
Pertsona elebidunak euskarazko antzerki-ikuskizunetara joatearen arabera	% 50,8	% 46,8	% 50,2	% 37,9	% 35,1	% 36,2	% 41,7	% 100,0

Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia. *Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008*.

- Oinarria: azken hiru hilekoan kontzertuetara joan diren pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %23,6.
- Oinarria: azken hilean aisialdiari lotutako liburuen bat irakurri duten pertsona elebidunak (biztanle elebidunen % 46,5).
- Oinarria: azken urtean antzerki-ikuskizunetara joan diren pertsona elebidunak (biztanle elebidunen % 24,7).
- Oinarria: noizbait musika CDan edo beste euskarriren batean erosi duten pertsona elebidunak (biztanle elebidunen % 55,7).
- Oinarria: praktika kulturalen bat egiteko, sarean sartzeko ohitura duten pertsona elebidunak (biztanle elebidunen % 45,6).

9. irudia. Pertsona elebidunak Interneteko euskarazko edukietara sartzearen arabera. 2007-2008

	EH guztira	EAE guztira	Hiriburuak guztira	Gasteiz	Bilbo	Donostia	Iruñea	Baiona
Web/Documentazioa	% 37,4	% 36,7	% 34,6	% 33,6	% 44,2	% 25,0	% 34,8	% 35,2
Musika	% 22,2	% 22,4	% 18,9	% 20,7	% 16,2	% 17,5	% 9,7	% 30,4
Liburuak irakurketa eta deskarga	% 7,2	% 7,6	% 7,2	% 9,0	% 11,0	% 7,7	% 7,9	% 0,4
Blogak	% 7,2	% 7,0	% 7,6	% 9,7	% 7,0	% 2,7	% 6,9	% 11,5
Foroak	% 6,1	% 6,0	% 7,5	% 6,5	% 5,5	% 0,0	% 7,9	% 17,7
Bestelakoak	% 4,1	% 3,0	% 8,8	% 4,1	% 2,2	% 10,2	% 10,3	% 17,1
Bat ere ez	% 48,7	% 50,0	% 50,2	% 52,4	% 44,4	% 57,6	% 49,9	% 46,8

Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia. *Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008*.

Bost hiriburuaren artean, berriz, desberdintasun nabarmenak daude. Gasteiz nabarmentzen da jendea neurri handiagoan joaten delako bertso-saioetara, euskal musika erostegatik, kontzertuetara joateagatik eta euskarazko liburuak irakurtzeagatik. Bilbon ere jendea gehiago joaten da bertso-saioetara, Gasteizen bezala. Halaber, Bilbon sartzen dira gehien Interneteko euskarazko edukietara. Aitzitik, biztanleria elebidunak euskal musika gutxien erosten duen eta euskarazko liburu gutxien irakurtzen dituen hiriburu da.

Iruñeko biztanleria elebidunak euskarazko liburu gehiago irakurtzen du. Gainerako jardueri dagokienez, beste hiriburuak baino atzerago dago. Hala ere, egoera hori jarduera hauetan baino ez da nabarmentzen: bertso-saioetara eta euskarazko antzerkietara joatea. Donostiaren kasua bereziki deigarria da: aztertutako jarduera eta produktu kultural guzti-guztietan hiriburuaren batez bestekoaren azpitik dagoen hiri bakarra da.

Azkenik, Baiona Donostiaren kontrako kasua da. Kasu guztietan hiriburuaren batez bestekoaren gainetik dago, eta desberdintasunak bereziki adierazgarriak dira jarduera hauetan: Euskarazko antzerkiak kontsumitzea, euskarriak erostea eta euskal musikako kontzertuetara joatea, eta euskarazko liburuak irakurtzea¹.

¹ Metodologia-ohartarazpen bat: Baionako biztanleria elebidunari buruzko datuak argibide gisa hartu behar dira, estatistikoki adierazgarriak diren balioetat baino gehiago. Izan ere, laginerako hautatu diren ezaugarri horietako subjektuen kopurua oso txikia da, aztertu den biztanleriaren barruan oso gutxi baitira. Baionako biztanleria elebiduna euskarazko antzerkietara joatearen datu izugarriak eragina du estatistikan, hiriburu guztien batez bestekoa nabarmen igotzen baitu. Hala ere, beste lau hiriak batez besteko hori baino askoz ere beherago dauden arren, oso antzeko ehunekoak dituzte, pixka bat altuagoa Iruñearen kasuan.

Etxeetako ekipamenduak

Azken atal honetan, etxeetako ekipamendu kulturala aztertuko dugu¹. Lehenbizi ikus-entzunezko ekipamenduak eta soinu-ekipamenduak alderatzen baditugu, ohartuko gara ez dagoela desberdintasunik hiriburuen eta aztertutako lurralde osoaren artean. Taula honetan ikus daitekeenez, ehunekoak oso antzekoak dira bi kasuetan.

10. irudia. Pertsonak etxean duten ikus-entzunezko ekipamenduaren eta soinu-ekipamenduaren arabera. 2007-2008

	EH guztira	EAE guztira	Hiriburuak guztira	Gasteiz	Bilbo	Donostia	Iruñea	Baiona
Telebista	% 99,1	% 99,2	% 98,9	% 98,2	% 99,5	% 99,6	% 100,0	% 97,1
Irratia	% 95,8	% 97,4	% 94,4	% 98,5	% 97,1	% 96,8	% 96,4	% 83,2
Musika-katea	% 79,2	% 80,1	% 80,3	% 84,2	% 81,5	% 83,3	% 81,3	% 71,3
DVD / DVD grabagailua	% 79,1	% 79,2	% 80,6	% 85,4	% 77,1	% 84,2	% 80,4	% 76,1
Argazki kamera	% 78,7	% 80,0	% 76,9	% 81,9	% 81,9	% 83,6	% 83,7	% 53,4
MP3 / MP4	% 51,6	% 53,9	% 50,0	% 59,6	% 56,9	% 55,2	% 57,6	% 20,7
TDT	% 38,3	% 39,8	% 39,3	% 43,9	% 44,7	% 47,6	% 36,6	% 23,6
Antena parabolikoa	% 27,0	% 26,7	% 27,1	% 27,7	% 26,7	% 32,4	% 40,6	% 8,1

Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia. *Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008*.

Halaber, ez dago desberdintasun nabarmenik hiriburuen artean. Salbuespenak Iruñea (antena parabolikoen ekipamendua pixka bat handiagoa du) eta batez ere Baiona dira (hiri honetan, ekipamenduaren ehuneko pixka bat baxuagoa da, eta askoz ere baxuagoak argazki-kamerei, MP3/MP4 irakurgailuei, TDT deskodegailuei eta antena parabolikoei dagokienez). Halaber, desberdintasun nabarmenak daude hiriburuen eta oro har lurraldearen artean etxeetan liburuak eta CDak edukitzeari dagokionez. Horrez gainera, kasu horretan, hiriburu bakoitzaren datuak ere antzekoagoak dira.

¹ Ekipamendu kulturaltzat hartzen dira ikus-entzunezko oinarritzko ekipamendua, soinu-ekipamendua, IKT (ordenagailua eta beste batzuk), Internetarako konexioa, eta etxean egon daitezkeen liburuak, diskoak eta CDak.

11. irudia. Etxeetan liburuak eta CDak edukitzea. 2007-2008

	EH guztira	EAE guztira	Hiriburuak guztira	Gasteiz	Bilbo	Donostia	Iruñea	Baiona
Liburuak	% 98,6	% 98,9	% 97,8	% 99,6	% 98,4	% 99,3	% 99,4	% 92,5
CDak	% 84,1	% 83,4	% 86,5	% 90,4	% 83,1	% 87,0	% 86,8	% 85,0
DVDak	% 77,4	% 76,9	% 80,5	% 82,3	% 76,3	% 81,4	% 81,3	% 81,3

Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia. *Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008.*

Etxeetan dauden liburuen kopuruan desberdintasunak daude¹. Desberdintasun horiek txikiak dira hiriburuak eta lurralde osoa alderatzen ditugunean (hiriburuetako etxeetan liburu gehiago daude), eta pixka bat handiagoak hiriburuak elkarrekin alderatzen baditugu.

12. irudia. Pertsonak etxean duten liburu kopuruaren arabera. 2007-2008

	EH guztira	EAE guztira	Hiriburuak guztira	Gasteiz	Bilbo	Donostia	Iruñea	Baiona
50 baino gutxiago	% 25,1	% 24,9	% 22,9	% 21,1	% 19,2	% 19,1	% 16,8	% 38,3
51etik 150era	% 37,4	% 38,2	% 35,2	% 37,9	% 38,1	% 34,5	% 34,9	% 30,7
151etik 300era	% 22,6	% 22,1	% 24,0	% 29,2	% 22,4	% 26,9	% 23,2	% 18,4
301etik 500era	% 8,4	% 8,3	% 9,2	% 6,2	% 11,2	% 9,7	% 13,1	% 5,7
500 baino gehiago	% 6,4	% 6,4	% 8,7	% 5,6	% 9,0	% 9,9	% 11,9	% 6,9

Oinarria: liburuak dituzten pertsonak, biztanleen % 98,6.

Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia. *Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008.*

Baionan daude liburu gutxien etxeetan, eta hurrena Gasteiz da. Beste muturrean, Iruñea da etxeetan liburu gehien duen hiria. Etxeetako informatika-ekipamenduak alderatzean, ez dago desberdintasunik hiriburuak eta biztanleria osoaren artean etxean ordenagailua edukitzeari dagokionez. Hiriburuetan, ordea, ordenagailu eramangarri eta Internetarako konexio gehiago daude. Bost hiriburuetako datuak alderatzean, Gasteiz nabarmentzen da, Internetarako konexioen ehuneko handiena baitu (% 71,2;

¹ Oinarria: Liburuak dituzten pertsonak (biztanleriaren % 98,6).

hiriburuen batez bestekoa % 64,8 da). Beste muturrean Bilbo dago, % 57,9 konexio dituena. Baiona, berriz, nabarmentzen da mahai gaineko ordenagailu edo PC gutxien dituelako.

13. irudia. Pertsonak etxean duten IKT ekipamenduaren arabera. 2007-2008

	EH guztira	EAE guztira	Hiriburuak guztira	Gasteiz	Bilbo	Donostia	Iruñea	Baiona
Ordenagailua	% 60,5	% 60,5	% 60,3	% 68,0	% 60,7	% 62,7	% 61,3	% 49,0
Ordenagailu eramangarria	% 28,2	% 28,3	% 33,4	% 31,0	% 31,8	% 37,6	% 34,2	% 32,4
Interneteko konexioa	% 59,9	% 59,1	% 64,8	% 71,2	% 57,9	% 65,4	% 67,4	% 62,1

Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia. *Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008*.

Bukatzeko, etxeetako Interneterako konexio-mota aztertzen badugu, ohartuko gara hirietan handiagoa dela ADSL/RDSI konexioa duten pertsonen ehunekoa (% 81,9 da; lurralde osoan % 76,2koa da)¹. Alderdi horri dagokionez, Baiona nabarmentzen da, pertsonen % 92,5ek konexio mota hori baitu. Aitzitik, Bilbo eta Gasteiz azkenak dira, % 75,5 eta % 76,4 dutela, hurrenez hurren.

14. irudia. Pertsonak sare-konexio motaren arabera. 2007-2008

	EH guztira	EAE guztira	Hiriburuak guztira	Gasteiz	Bilbo	Donostia	Iruñea	Baiona
ADSL/RDSI	% 76,2	% 72,8	% 81,9	% 76,4	% 75,5	% 80,8	% 84,2	% 92,5
Kablea	% 11,8	% 14,1	% 8,8	% 14,2	% 13,2	% 8,9	% 2,3	% 5,3
Kobentzionala	% 10,2	% 11,3	% 7,0	% 8,4	% 9,4	% 8,7	% 8,6	% 0,0
Ed/Ee	% 1,9	% 1,7	% 2,3	% 1,0	% 1,9	% 1,6	% 4,9	% 2,2

Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia. *Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008*.

¹ Oinarria: Interneterako konexioa duten pertsonak, biztanleriaren % 59,9.

Ondorioak

Kapituluaeren hasieran adierazi dugun bezala, euskal eremu soziokulturean egiten diren ohitura eta praktika kulturalen ikuspuntutik, ezin dugu esan hiriko kultura bat dagoenik; hau da, ezin dugu esan hiriburuen berezko kultura bat dagoenik, lurralde osoko kulturatik argi eta garbi desberdintzen dena. Ezin dugu hori esan, behintzat, Bernardo Atxagak¹ planteatzen duen neurri utopiko horrekin, baina bai gizarte-egiturari dagokionez: Euskal Herria jada Euskal Hiria da. Hori da gure lehen oinarrizko ondorioa.

Ohitura eta praktika kulturalen arteko desberdintasunak euskal hiriburuen eta aztertutako lurralde osoaren artean oro har oso txikiak diren arren (daudenean), hiriburu bakoitzaren artean badaude desberdintasunak. Praktika kulturalen arteko desberdintasunak handiagoak dira hiriburuen artean, hiriburuen eta lurralde osoaren artean baino. Hori da gure bigarren ondorioa. Desberdintasun horiek gehiago aztertzea eta azaltzea oso lan interesgarria da, baina lan honen helburuak gainditzen ditu, bai eta lana sinatzen duenaren ahalmena ere.

Hala ere, ez dut kapitulu hau bukatu nahi gai horri buruzko hausnarketa labur bat egin gabe. Lehenago esan dugu biztanleria jakin baten interes eta ohitura kulturek zerikusi handia dutela kultura-jarduerak egiteko aukera izatearekin edo ez izatearekin. Horrela esanda, Pernandoren egia ematen du, baina ez da hala. Ezagutzen ez dena ez da estimatzen, estimatzen ez dena ez da egiten, egiten ez den hura nekez bihurtuko da ohitura.

Hiri baten kultura-aukeren egitura tokiko ekimenen mende dago. Ekimen horiek hirietako biztanleak ohitu egiten dituzte azkenerako produktu kultural batzuk edo beste batzuk kontsumitzera, edo, hobeto esanda, dastatzera. Hiri bakoitzak bere historia kulturala du, erakundeen proiektuen eta jarduketan bidez sortua, baina baita hiri bakoitzari bere profil edo fisionomia kulturala ematen dioten gizarte-dinamiken bidez sortua ere.

¹ «Beste igoera bat behar dugu, egun oraindik herrialde honetako pertsonen bizitza gehiegi baldintzatzen duten bi talde horietatik ateratzea. Nire ustez, hori guztia, hain zuzen, euskal errealitate berriari beste begiratu baten bidez behatzen diogunean gertatuko da. Begiratu hori utopia bat sortzeko, asmatzeko, gai izan behar da; ez utopia heroiko bat —jada nahikoak izan ditugu—, baizik eta helburu gisa, amets gisa, hemen bizi garen guztion arteko bizikidetzaren hobe nahi duena. Nik utopia horri Euskal Hiria esaten diot. Beste batzuek, agian, beste izen bat emango diote». ATXAGA, Bernardo: *Otra mirada. Discurso de apertura de los cursos de verano de la UPV*, 2007 (itzulp.). <http://www.atxaga.org/testuak-textos/otra-mirada>.

Kultura-kudeaketan adituak direnek horri buruz hitz egiten dute: hirietako kultura-tematizazioa¹ beharrezko konparaziozko abantaila lortzeko estrategia dela diote, abantaila horri esker lortuko baitute hiriek beren hiri-kutsua². «Guggenheim efektua» delakoa izan daiteke, Bilboren kasuan, kultura-tematizazio horren adibide bat, hiria markatzen duen irudi sendo bat ematen baitio³.

Hala ere, hiri baten profil kulturala ez da eraikitzen horrenbeste definizioz bakarrak diren halako jarduketa ikusgarrien bidez edo horien bidez bakarrik. Profil kultural hori kultura-politikak *grass roots* sustatuz lortzen dira, eta politika horiek herritarren artean sustraituta daude. Eta horretarako garrantzitsua da tokiko gobernuaren erakundeen ekimena. Hala ere, gizarte zibila inplikatzeko ere funtsezkoa da; ez kultura-kontsumitzaile huts gisa soilik, kultura-sortzaile gisa ere bai.

Almagro, Mantxako udalerrria, antzerkiarekin identifikatzen da; Valladolideko Urueña udalerrria, berriz, liburuarekin, liburu-dendekin eta irakurketarekin, Galesko *Hay-on-Wye* udalerrriaren adibideari jarraikiz. Huescako Sallent de Gállego eta Lanuza herriak sustrai etnikoko edo kulturantzeko musikarekin identifikatzen dira. Gure gertuko ingurunean ere baditugu oso adibide interesgarriak: besteak beste, Tolosa eta txotxongiloen munduarekin duen lotura, Donostiak zinemarekin zer lotura duen ahaztu gabe. Hori da estrategiarik egokiena, ez hainbeste gure hiriak objektu edo ikono kultural bihurtzeko, baizik eta biztanle guztien sormenezko subjektibitatea bultzatuko duten laborategi bihurtzeko.

1 TRESERRAS, Jordi Juan (2004): *La tematización cultural de las ciudades como estrategia de desarrollo a través del turismo*, in <http://www.gestioncultural.org/boletin/pdf/MacroEventos/JJuan.pdf>.

2 PUIG, Toni (2009): *Marca ciudad*, Paidós, Bartzelona.

3 ESTEBAN, Iñaki (2007): *El efecto Guggenheim. Del espacio basura al ornamento*, Anagrama, Bartzelona.

2. GAZTEEN KULTURA: BESTE KODE BATZUK, BESTE OHITURA BATZUK

Iñaki Martínez de Luna. *Gasteizen jaioa, 1950. urtean. EHUko soziologia irakasle eta Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteko arduradun, Soziolinguistika Klusterreko sortzaile eta kide, Eusko Ikaskuntzaren Auñamendi Euskal Entziklopediako zuzendari. Hainbat ikerlan eta idazlan soziologiko eta soziolinguistikoren egile.*

Ezin da gazteriari buruz hitz egin, izan Euskadikoa edo izan beste edozein lekutakoa, gazteriaren barruan dauden ikuspuntu askotako aldeak alboratuta. Bereizketa nabarmenena kontzeptu horrek normalean hartzen duen, eta lan honetan ere hartu duen, adin-tarte zabalean dago: 15 urtetik 34ra bitartekoa, alegia, edo, beste era batera esanez gero, ia bi belaunaldi. Are gehiago, kontzeptualki inork gutxik eztabaidatuko badu ere egokia den 15-30 urte bitartekoak gaztetzat jotzea, askok zalantzan jarriko lukete talde horren barruan adin hori gainditzen dituztenak sartzea.

Hausnarketa horren —gazte-kode eta -ohitura berriak— azpian dagoen azalpenak, hau da, goian aipatutako adin-tarte handi hori bitan bereizteak, analisi-abantailak ditu, lehenengo adin-tartea (15-24 urte bitartekoa) lehen gazteria gisara hartzen bada, eta bigarrena (25-34 urte bitartekoa) iragaitzazko gazteria gisara. Trikimailu horren bidez, bigarren adin-tarte horri buruzko datuen irakurketa, ulermena eta interpretazioa errazago egin dezakegu, askotan, aurretik dituztenen (15-24 urtekoak) eta atzetik datozenen (35 urte eta gehiagokoak) artean baitabilta. Aukera horri eutsi diogu, iragaitzazko gazteria horrek, objektiboki, gazteriaren eta helduen berezko ezaugarriak dituelako: ikasleak eta lan-merkatuko partaideak daude, beren familien erabat mendeko diren gazteak eta jada emantzipatu direnak, seme-alaben rola baino ez dutenak eta jada guraso bihurtu direnak... Horrenbestez, batetik, lehenengo gazteriaren eta, bestetik, iragaitzazko gazteriaren arteko bereizketa egitea, lan honen helburuetarako praktikoa izateaz gain, egokia ere izan daiteke soziologikoki.

Ezer berririk ere ez dugu esango oraintxe bertatik ohartarazten badugu esperientzia eta egoera sozial guztietan hain errotuta dauden generoaren arabeko gazte-kodeen eta kultura-ohituren arteko desberdintasun hipotetikoaz:

...«lorpena hautatzeko» eredu honek nabarmentzen du genero-sozializazioak nola eragiten duen gizakiok gerora egingo ditugun hautuen gainean, eta, orobat, emakumezko edo gizonezko izatearen baitan zer jotzen dugun garrantzitsutzat gure bizitzan. (...) arrakasta-itxaropenek eta zereginen balorazioek esplikatzten dute zergatik egiten dugun gizakiok aukera jakin batzuen alde. Baina arrakasta-itxaropenak eta balorazioa ez daude genero-rolen eraginetik eta gizarte orotan dauden gizarte- eta kultura-presioetatik libre. Alderdi horiek norbanakoaren nortasun pertsonala eta gizarte-nortasuna eratzen laguntzen dute. (Sáinz Ibáñez, 2009: 34).

Horrenbestez, formulazio teoriko askoren arabera, generoa kontuan hartuz gero gazteria bat baino gehiago izaten dira, eta egintza bereizgarri horri ere, seguruenera, ez dio hemen aztertu dugun Euskal Herriko kasuak ihes egingo.

Baina soziologikoki gazteriei buruz, pluralean, hitz egin behar badugu, soziodemografikoetatik harantzago dauden beste elementu batzuk ere hartu behar dira kontuan: identitateak. Pluralismoa modernitatearekin orokortu bazen ere, garai postmoderno honetan identitate-nahastea are gehiago handitu da, irizpide berri eta desberdinak oinarri hartuta. Hala, identitate indartsuekin batera (nazionalak, hizkuntzakoak, klasekoak, generokoak eta abar), azaleratzen ari diren beste erreferente batzuk ere hartzen dira kontuan, gaur egun, sena eraikitzeke badutelako halako zeregina eta identitate indartsuak ez bezalakoak direlako. Gattik izendatzen dituen bezala, identitate ahulei buruz ari gara:

*...identitate ahulekin ez da identitate <mota berriei> buruz hitz egin nahi, gizarte-mekanismo konplexu bati buruz baizik. (...)
...aldi berean kultura bat baino gehiago prozesatzeko gai diren gizarte-moduak azaleratzen dira (Olalkiaga, 1991:14); identitate tradizionalak erlatibizatu eta jatorrizko ereduak parodiatu soilik ez, «erdikoan <bi munduren arteko arrailean> biziz eskura dauden identitate guztiak bere egitea erabakitzen dutenak dira» (García Canclini, 1989:301-302): (...)*

Identitatea eraikitzeke moduak dira, gaur egungoa zalantzan jartzen ez duten dimentsiotan dabiltzanak, baina horren makineria nahikoa aise kolokan jartzen dutenak. (Gatti, 2007: 217, 220 eta 221, hurrenez hurren).

Gattiren proposamena ez da bakarra, ez eta behingoa ere, egile askorengan ohiko bihurtzen hasi baita, nahiz eta formulazioak berdinak ez izan. Edonola ere, sena eraikitzeke zereginean dute zeresana.

Alabaina, analisia egiteko ere identitate ahuletan oinarritutako ikuspuntura jotzea lan honen helmenetik kanpo geratu da. Horregatik, identitate-mailan, euskara erabiliko dugu, Euskal Herriko gazte-egoera aberasten duten erreferente eta identitate-atxikimenduen nahastearen barruan, funtsezko elementu bereizle gisara, gaur egun hala delako:

Euskaltasunaren elementuen artetik euskara da ezinbesteko osagai edo erreferentea. Izan ere, goraiatu, gaitzetsi —gutxi batzuen kasuan— nahiz indiferentzia adierazi arren, hizkuntza hori diskurtso-mota guztietan egon da presente. (Baxok et al., 2006: 156).

...euskara da bi komunitate, bi kontzientzia mugatzen dituen muga; euskaltasuna izenari funtsa ematen dion elementua (...). Euskarak, beraz, euskaltasunari funtsa ematen dio, eta, identitate-ondarea definitzen du (Gatti, 2007: 46-47, 49).

Beraz, badirudi egokia dela gogoia gazte elebidunengan jartzea eta ez gazte elebakarrengan¹, gazteen eta helduen ohitura soziokulturalen konparazio-analisia egiteko.

Garbi dago egokiagoa dela gazteria bat baino gehiago dagoela pentsatzea (soziodemografikoak, kulturalak edo hizkuntzakoak eta identitatezkoak), gazteriar buruz singularrean hitz egitea baino, batez ere, postmodernitateak dakarren erreferenteak zabaldu diren garai honetan. Horrenbestez, alde batera utziko dugu euskal gazteria bakar eta monolitiko bati buruzko hausnarketa egiteko tentazioa, eta gazteria sailkatzeke irizpide hauek hartuko ditugu: adina (lehenengo gazteria / iragaitzazko gazteria), generoa (neskak/mutilak) eta hizkuntza (elebakarrak/elebidunak).

¹ Elebiduntzat jo ditugu hemen gaztelaniaz (EAEn eta Nafarroan) edo frantsesez (Ipar Euskal Herrian) gain euskaraz ere hizkuntza-gaitasun nahikoa dutela aitortu dutenak, eta elebakartzat, euskarazko hizkuntza-gaitasun hori ez dutela esan dutenak.

Teknologia berriak vs. Ohiko ekipamenduak

Teknologia berrien eta gazteriaren, edo, hobeto esanda, gazterien, arteko erlazioa modu egokian zehazten lagunduko digun aipubaten bidez emango diogu hasiera atal honi.

Mendebaldearen historia modernoan, aurrerapen teknologikoen eta haurtzaroko eta gaztaroko nozio nagusien arteko erlazioa arnasten dugun airea bezain «naturala» izatera igaro da. Eta hori bezain naturalak dira gazte horien ehuneko handi bati (eta, horrenbestez, biztanle-sektore handi bati) gizarte- eta politika-eremuetan guztiz parte hartzea galarazten dieten egoerak. (Gordo eta Megías, 2006: 7).

Aurreko testuak funtsezko bi ideia gogorarazten dizkigute: batetik, teknologia-gazteria binomioak duen gaurkotasun nabarmena, eta, bestetik, teknologia berriak eskuratzeko gazte-sektore batzuek jasaten duten gizarte-haustura nabaria.

Hala, badugu gazteen murgilketa teknologikoa modu mekanikoan ez ulertzeko lehenengo arrazoia, hau da, elementu homogeneizatzaile orokorra ez dela pentsatzeko arrazoia; izan ere, betiko desberdintasunetan sakontzeko beste arrazoi bat gehiago da: gaur egungo berezko aukerak izateko baldintzak dituztenen eta horiek eskuratu ezin dituztenen artekoa.

Baina, gainera, gazteek geroz eta identitate gehiago dituztenez, bai indartsuak bai ahulak, litekeena da gazteen kode eta ohitura berriei —hemen aztertuko ditugunei— gazteen inguru soziokultural bakoitzeko IKTak deskodifikatzeko zentzuak eta erabilerak eragitea:

...horien ondorioak (teknologienak) urrun daude homogeen izatetik edo beren erabilera zehatzak hartzen dituen esparru soziokulturalekiko independente izatetik (Mackenzie eta Wajcman, 1985; Pinch eta Bijker, 1987). Jarrera horien arabera, kontua ez da teknologia nola erabiltzen den, baizik eta zer bihurtzen den eman ahal zaizkion erabilera desberdinen ondorio gisa, eta



«gizarte-talde garrantzitsuen» arteko negoziazio-prozesu eta borrokatik nola abiatzen den (Galcerán eta Domínguez, 1997). (Gordo eta Megías, 2006: 8).

Nahiz eta gazte-talde batzuen eta besteen artean desberdintasun ukaezinak izan, geure buruari galdetzen diogu ea posible den gazteria, bere horretan hartuta, helduengandik bereiztea, IKTetan duten ezagutza eta horiekiko erlazioa kontuan hartuta Adituak ez datoz bat, eta oso muturreko ikuspuntuaren artean dabilta: batzuek proposatzen dute komunikabideek, bereziki telebistak, eta informazioaren teknologia berriek haurtzaroaren eta helduaroaren arteko mugak higatu dituztela, eta beste batzuek, ordea, pentsatzen dute teknologia berriak nerabeen eta gazteen askapenerako baliabideak direla.

Beste testuinguru batzuetatik jasotako erreferentzietatik Euskal Herriko datuetara igaroz, ikusten da lehenengo gazteriaren (15-24 urte) eta gainerako adinetakoen artean, iragaitzazko gazteria (25-34 urte) deitutakoa barne, ekipamendu-desberdintasun handiak daudela. Baina, bestalde, desberdintasun hori kasu batzuetan gertatzen da, baina ez beste batzuetan. Ikus dezagun kultura-ekipamenduen kasua.

15. irudia. Pertsonak etxeko ikus-entzunezko ekipamenduaren eta soinu-ekipamenduaren arabera. 2007-2008

	EH guztira	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	64 urtetik gora
Telebista	% 99,1	% 99,3	% 98,7	% 99,2	% 98,5	% 99,6	% 99,6
Irratia	% 95,8	% 96,3	% 95,6	% 96,2	% 95,6	% 96,9	% 94,7
Musika-ekipoa	% 79,2	% 91,3	% 85,3	% 88,9	% 86,3	% 80,1	% 52,8
DVDa / DVD-grabagailua	% 79,1	% 92,5	% 93,0	% 92,0	% 90,1	% 73,0	% 44,0
Argazki-kamera	% 78,7	% 91,5	% 88,4	% 89,5	% 87,7	% 77,9	% 47,6
MP3 / MP4	% 51,6	% 87,0	% 69,0	% 63,5	% 62,0	% 36,7	% 7,7
LTDa	% 38,3	% 47,8	% 44,7	% 46,8	% 40,6	% 37,3	% 19,0
Antena parabolikoa	% 27,0	% 28,0	% 25,1	% 29,2	% 32,6	% 29,1	% 20,4

Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia. *Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008*.

16. irudia. Pertsonak etxean duten IKT-ekipamenduen arabera. 2007-2008

	EH guztira	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	64 urtetik gora
Ordenagailuak	% 60,5	% 82,6	% 68,0	% 71,5	% 77,0	% 55,3	% 22,6
Ordenagailu eramangarriak	% 28,2	% 43,5	% 35,2	% 34,4	% 31,6	% 23,8	% 8,2
Internet-konexioa	% 59,9	% 85,7	% 73,2	% 71,4	% 73,6	% 51,7	% 18,6
Kontsolak	% 27,1	% 54,8	% 33,2	% 33,8	% 34,8	% 14,2	% 2,6

Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia. *Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008.*

Lehenengo gazteriak (15-24 urte) iragaitzako gazteriak (25-34 urte) eta, bereziki, helduek baino ekipamendu gehiago dituzte, ikus-entzunezko, soinu-ekipamendu eta IKTetako elementu jakin batzuetan; zehazki, gainerakoek baino MP3/MP4, ordenagailu, ordenagailu eramangarri, Interneterako konexio eta kontsola gehiago dituzte.

Desberdintasun horiek argi erakusten dute adin-tarte batzuetan eta besteetan ez direla berdin baneratu ohiko gailuak (telebista, irratia, musika-ekipoa, argazki-kamera...), jada biztanle gehienentzat arrunt bilakatu direnak, eta, gutxi gorabehera, azken hamarkadan sartu direnak eta oraindik hedatu ez direnak. Datu horiek islatzen dute, orobat, iragaitzako gazteriak giltzarri zeregina duela, lehen gazteriatik baino gertuago baitago helduetatik.

Generoa¹ da gazteria bat baino gehiagori buruz —gazteriei buruz, pluralean— hitz egitera garamatzen beste alderdi bat, eta ekipamenduen eremuan jada nabari dira aldeak lehen gehien ekipatutako gisara nabarmendu ditugun elementu batzuetan, batez ere, lehenengo gazteriaren arloan. Desberdintasun deigarriak daude bi sexuen artean, baina ezaugarri desberdinak dituzte lehenengo gazteriaren eta iragaitzakoaren artean.

¹ Sexua aldagaiaren bidez irudikatu da hemen.

17. irudia. Gazteak sexuka etxean dituzten IKT-ekipamenduaren arabera. 2007-2008

	EH guztira	15 a 24 urte		35 a 44 urte	
		emakumezkoak	gizonezkoak	emakumezkoak	gizonezkoak
Ordenagailuak	% 82,6	% 75,8	% 89,0	% 64,8	% 71,1
Ordenagailu eramangarriak	% 43,5	% 50,2	% 37,3	% 32,7	% 37,7
Kontsolak	% 54,8	% 43,1	% 65,7	% 26,7	% 39,4

Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia. *Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008.*

Hasteko, esan dezagun lehenengo gazteriak ekipamendu dezente gehiago dituela iragaitzakoak baino, ikusi ditugun hiru horietan. Baina, gainera, hiru ekipamendu horien banaketa berezia gertatzen da, aldi berean generoa eta adina gurutzatzen baditugu: lehenengo gazterian ordenagailu eta kontsola gehiago dituzte mutilek, eta eramangarri gehiago, neskek; eta iragaitzako gazterian, berriz, mutilek ekipamendu gehiago dute neskek baino, oro har, hiru alor horietan.

Ez dakigu batzuek eta besteek zergatik hautatzen duten ordenagailu-mota bat edo bestea, generoaren arabera, baina alde nabaria dago eta estatistikoki sendoa da. Erabilera desberdinduren bat duten arrazoi praktikoak ote (eramangarritasuna)? Arrazoi estetikoak edo modaren eraginarenak ote?

Gazteen eta helduen zenbait ohitura

Geure buruari galdetzen diogu ea kultura-ekipamenduak modu desberdinean barneratze hori gazteek berritasunera irekiagoak egotearekin eta zaharragoak betikorako joera izatearekin soilik erlazionatzen den. Ezin al liteke izan, orobat, adin artean dauden ekipamendu-desberdintasunek adin-tarte batzuek eta besteek berezko dituzten kultura-balio, -joera eta -portaerei erantzutea? Baliteke, pixka bat denetik izatea? Euskal Herriko biztanleen kultura-jarduerekin erlazionatutako ohiturei buruzko datuek alderdi hori argitzen lagun diezagukete.

18. irudia. Kultura-jardueretan parte hartzeko ohitura azken urtean. 2007-2008

	EH guztira	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	64 urtetik gora
Musika entzun	% 79,4	% 96,8	% 91,3	% 83,3	% 80,7	% 72,4	% 59,2
Aisiarekin lotutako liburuak irakurri	% 69,5	% 68,2	% 75,9	% 80,9	% 78,7	% 64,6	% 50,7
Zinemara joan	% 54,8	% 88,3	% 73,7	% 64,9	% 55,0	% 39,1	% 20,6
Kontzertuetara joan	% 38,2	% 69,1	% 50,2	% 37,0	% 33,2	% 29,1	% 21,1
Museoetara joan	% 37,5	% 35,9	% 39,5	% 41,6	% 45,6	% 38,8	% 26,3
Liburutegietara/mediateketara joan	% 31,4	% 57,9	% 38,0	% 40,0	% 30,1	% 19,1	% 11,9
Galeriak eta erakusketak ikustera joan	% 22,4	% 22,2	% 23,9	% 26,3	% 24,7	% 24,7	% 14,9
Antzerkia ikustera joan	% 21,9	% 19,3	% 25,1	% 23,5	% 26,2	% 22,2	% 15,6
Bertsolariak entzutera joan	% 7,6	% 11,1	% 4,8	% 7,9	% 7,9	% 7,4	% 7,4
Dantza-ikuskizunetara joan	% 9,5	% 11,6	% 9,2	% 10,4	% 10,5	% 10,7	% 6,2
Opera-ikuskizunetara joan	% 6,9	% 3,1	% 5,0	% 6,3	% 7,8	% 9,0	% 8,8

Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia. *Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008.*

Lehenengo gazteria, eta, gutxiengo, iragaitzako gazteria, kultura-jarduera jakin batzuk egiten dituelako nabarmentzen da gainerako biztanleetatik: musika entzun, zinemara joan, kontzertuetara joan eta liburutegietara/mediateketara joan. Gainerako jarduerak banaketa nahiko homogenea dute adin-tarte gehienetan.

Gazte-ekipamendu nabarienen —lehen aipatu ditugunak— eta kultura-jarduera ohikoenen arteko bat-etortze puntu bat bada, gutxienez: argi dago MP3/MP4 asko edukitzea, musika entzuteko ohitura orokorra izatea eta kontzertuetara joateko ohitura izatea batera doazela. Musikarako zaletasun-maila gazte-belaunaldien eta heldu-belaunaldien arteko elementu bereizle nabarmena da, bai ekipamenduari dagokionez bai ohiturei dagokienez. Modalitate bakarrean, operara joatean, ateratzen die aurrea pixka bat helduek gazteenei, baina kontuan hartu behar da, bi kasuetan ere, zifrak eskasak direla.

Zifra zentzuzkoagoak izanagatik ere, bertso-saioretara joateak aipamen berezia merezi du. Bertsolaritza berpiztu egin da lehenengo gazterian, eta gainditu egin ditu iragaitzako gazterian zein helduenen asistentzia-mailak. Ez dirudi gazteen artean ohiko kultura-jarduera horrek piztu duen interesa zoriaren ondorio denik.

Aitzitik, datua, seguruenera, azken urteetan bertsolari-eskolen ugaritzearekin —hur- eta gazte-inguruneetan ezarri dira—, ikastetxeen arteko txapelketak antolatzearekin, bertsolari-txapelketetara geroz eta gazte gehiago joatearekin eta abarrekin dago lotuta. Baina, ziurrenera, jende gehiago joatea ez da bertsolaritzaren berpizkundeagatik soilik izango; euskal tradizioan errotuta dagoen kultura-adierazpen horren *aggiornamentoagatik* ere gertatuko zen, horixe ziurtatzen baitu adierazpen ugarian irudikatutako (bertso-tramak, bertso-tranpak, bertso-musikak...) eta, askotan, beste diziplina artistiko batzuekin bat egindako bertsolaritza forma berrien zabalkundeak. Agian, hori da gaur egun Euskal Herriko lehenengo gazteriaren sektore batentzat —gutxienak, baina aipagarriak— duen xarmaren giltza.

Ezin ahaztuzkoa da, halaber, egoera demolinguistiko garrantzitsua ere: hau da, elebidunen ehunekoa handiagoa da gazteen artean, eta, jakina, horrek ere izango du zerikusia.

Elebitasuna aipatu dugunez, gogoratu behar da ezen askotariko gazteria horren barruan aipatu dugula hizkuntzaren aldagaiak, agian, adieraziko zuela gazte elebidunen eta elebkarren kultura-ohituren arteko desberdintasunen bat. Datuek adierazten dute gazte elebidunak hiru alderdiri dagokienez nabarmentzen direla gazte elebkarrekiko, zifra handiagoak izanik: kontzertuetara joatea, antzerkira joatea eta, zalantzarik gabe, bertso-saioetara joatea. Zaletasun horietan gehiago izatea, alabaina, ez da gazteen kontua soilik; oro har, elebidunen bereizgarria da elebkarrekiko, hau da, adin-taldea edozein izanda ere. Badirudi, horrenbestez, gazte elebidunak gehiago sozializatzen direla heldu elebidunentzat elebkarrentzat baino ohikoagoak diren jarduera batzuetan.

Generoari dagokionez, lehenengo gazterian zein iragaitzakoa badago, berriro ere, desberdintasunen bat. Neskek mutilek baino joera handiagoa dute: aisia-liburuak irakurtzeko, liburutegietara/mediateketara joateko, antzerkia ikustera joateko eta dantza-ikuskizunetara joateko. Eta, aldiz, neska baino mutil gehiago joaten da musika-kontzertuetara. Genero bateko edo besteko gazteen artean dauden aldeak ez dira izugarriak, baina, generoaren arabera, zaletasun baterako edo besterako joera adierazten dute.

Internet: norentzat?, zertarako?

Jar dezagun orain arreta kultura-kontsumorako kanal edo erreminta berrienean, hau da, Interneten erabileran. Gazte-taldeek —bereziki, lehenengo gazteriak— kultura-helbururen batekin erabiltzen dutenez Internet, helduek baino askoz ere gehiago erabili ere, sinesgarriak dirudite «gazteek bitarteko berrietan alfabetatzeko duten jakinduria naturala aitortzen duten ikuspegiak» (Gordo eta Megías, 2006: 11).

Ikuspegi horren arabera, eta gure datuen irakurketatik abiatuta, pentsatu behar da gazteen eta helduen kultura-jardunen arteko alderik nabarmenenak sarean oinarritutakoetan egongo direla.

19. irudia. Internetera sartzea kultura-kontsumoren bat egiteko. 2007-2008

	EH guztira	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	64 urtetik gora
Usu erabiltzen dute	% 41,4	% 68,2	% 63,3	% 54,0	% 41,5	% 24,0	% 7,7
Ez dute ohikotasunez erabiltzen	% 58,6	% 31,8	% 36,7	% 46,0	% 58,5	% 76,0	% 92,3

Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia. *Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008*.

20. irudia. Interneten erabiltzen diren kultura-edukiak, kultura-kontsumorako bitarteko hori erabiltzen dutenak soilik kontuan hartuta. 2007-2008

	EH guztira	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	64 urtetik gora
Kultura-gaiei buruzko webguneak kontsultatu	% 60,5	% 54,4	% 60,1	% 61,5	% 64,1	% 68,5	% 55,6
Egunkariak irakurri	% 42,5	% 34,1	% 48,5	% 43,7	% 40,1	% 40,8	% 46,2
Musika entzun Interneten	% 38,9	% 63,5	% 42,4	% 33,4	% 28,5	% 17,0	% 11,3
Sarrerak erosi	% 32,0	% 28,9	% 39,7	% 35,7	% 25,3	% 24,2	% 12,1
Bideoak edo filmak ikusi	% 26,8	% 44,8	% 30,4	% 24,1	% 15,9	% 8,7	% 9,5
Dokumentazio-zentroak edo liburutegiak kontsultatu	% 19,0	% 18,0	% 17,0	% 21,0	% 21,7	% 17,4	% 18,9
Musika erosi (abestiak, cd-ak, dvd-ak eta abar)	% 8,8	% 8,7	% 9,4	% 8,0	% 9,9	% 5,8	% 12,0
Kultura-foroetan parte hartu	% 8,1	% 10,4	% 9,3	% 5,2	% 7,6	% 4,7	% 13,5
Filmak erosi	% 4,9	% 5,8	% 5,0	% 5,7	% 5,1	% 1,6	% 1,8
Beste batzuk	% 20,3	% 16,3	% 18,7	% 22,1	% 20,8	% 25,0	% 28,7

Oinarria: kultura-kontsumoren baterako Internet erabiltzen dutenak, biztanleen % 41,4.

Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia. *Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008*.



Aitortutako edukiei dagokienez, lehenengo gazteria —batez ere— zein iragaitzazkoa musika entzuteagatik eta bideoak edo filmak ikusteagatik nabarmentzen dira, helduen aldean. Hau da, berriz ere, musikak gazteen artean duen presentzia handia nabarmendu da, eta, horretaz gain, zinemarako duten zaletasuna ere bai; izan ere, Interneten kultura-erabilera horrek bat egiten du gazteek zinemara joateko duten zaletasun handiarekin, aurretik aipatu dugun bezala.

Sarrerak edo musika erostea alde batera utzita (izan ere, oraindik ere gehiago eusten diote musika eta zinema-kontsumoari), Interneten kultura-erabilerak ez du alde nabarmenik adin batzuetakoen eta besteetakoen artean: dokumentazio-zentroak eta liburutegiak kontsultatzeari dagokionez, edo kultura-fofoetan parte hartzeari dagokionez. Erabilera-mailak alderantzikatu ere egiten dira, kasuren batean —esate baterako, egunkariak irakurtzeari dagokionez—; izan ere, lehenengo gazteriaren datuak dira txikiak alderdi horretan, gainerako adin-tarte guztien azpitik.

Hau da, euskal gazteriak jarduera batzuetarako (musika entzun eta bideoak edo filmak ikusteko) Internet asko erabiltzen duela ikusita, zalantzan jartzekoa da gure artean interpretazio jakin batzuk egokiak izatea: «...*teknologia berriak espantaneotasuna, irudimena eta gazte-asaldura bideratzeko eta adierazteko bitartekotzak jotzen dituzte*». «*Belaunaldi elektronikoko berria espresio, aurkikuntza eta autoerrealizazio egarriz dago*» (Gordo eta Megías, 2006: 11, 12).

Gazte batzuek IKTak (eta, zehazki, Internet) sormenerako, irudimenerako eta asaldatzeko erabil ditzaketela ukatu gabe, gure datuek norabide konbentzionalagoa eta kontinuitagoa erakusten digute: gazteek, oro har, betikoa kontsumitzen dute (musika eta zinema), baita kanal eta baliabide teknologiko berrien bidez ere. Hala ere, bistan denez, ez ditugu baztertuko beste erabilera-mota batzuk, baina badirudi ez direla gazteen artean orokorrak, erabilera horiek beste adin-tarte batzuen antzeko ehunekoan izaten direlako, bai behintzat eskura dugun informazioaren arabera.

Interesgarria litzateke etorkizunean ikertzea IKTeen erabilerak zenbateraino uzten dien euskal gazteei, edo, agian hobeto esanda, gazte-sektore batzuei:

...helduen kontroletik ihes egiten, edo, orobat, eremu birtuala —eremu propiorik ez dagoelako— aldarrikatzen eta erasoz hartzen, eta «eskola-porrotari eta helduen kultura betikotzen duten hezkuntza-instituzioen porrotari» erantzuten. (Gordo eta Megías, 2006: 12).

Baliteke gazteek 2.0 webgunea zertarako erabiltzen duten jakinda, eta, batez ere, gizarte-sareak zertarako erabiltzen dituzten jakinda, ondorioren bat ateratzea; baina gure datuek —kultura-erabileretan zentratu dira— ez dute horretarako ematen. Ez da txantxetakoa baldin eta hau egia bada: *«...informazioaren teknologiekiko interakzioak funtzio eta egitura mental berriak izatera garamatza, eta kultura eta gizarte modu desberdinetara»*. (Shalman (2004: 17-18), Gordo eta Megías, 2006: 13-n aipatua). Azken finean, sozializatorako, identitate birtual berriak eraikitzeko, kode berriak, kultura-ohitura berriak eskuratzeko eta garatzeko beste modu batzuk lirateke, eta hori da artikulu honen hipotesi nagusia. Eta hala izanagatik ere, horrek ez luke, seguru aski, Historiaren ildoan iraultetarik ekarriko; aitzitik, beste eboluzio-urrats bat izango litzateke, Lorente, Bernete eta Becerrilek deskribatzen dutenaren ildotik:

Gazteek erabiltzen dituzte, beti, IKTak gehien; edonork daki hori, ikerketarik aipatu beharrik gabe. Gazteek berezkozat jotzen dute telefono mugikorra, ordenagailua, posta elektronikoa eta multimediak... erabiltzea (...). Termino «darwindarretan», esango genuke gazteak inguruneko informazio- eta komunikazio-baldintzetara ezin hobeto ari direla egokitzen, eta belaunaldi-haustura eten egingo dela gaur egungo gazteak biharko heldu izatera iristen direnean. (...) Hori horrela izan da Homo Sapiens bere aurreko eboluzio-mailetatik bereizi zenetik (Lorente, Bernete eta Becerril, 2004: 295; Gordo eta Megías, 2006: 13-en aipatuak).

Hemen frogatu ezin diren teorien eta hipotesien eskutik hegaldatu gabe, eskura dugun informazioak erakusten digu alde izugarria dagoela gazteen eta helduen artean —batez ere, 50 urtetik gorakoen aldean—, Internet musikarako eta zinemarako erabiltzeari dagokionez, baina ez sareak eskaintzen dituen gainerako kultura-aukeretan.

Horrek guztiak erakusten digu gazte-sektore gehienek ez dutela erabiltzen Internet kultura-ohitura berrizaitetarako, berrituetarako edo iraultzaileetarako; aitzitik, aurretik aipatutako ohiko kultura-praktiketarako erabiltzen dutela: hau da, musika entzun, eta zinema ikusteko. Baumanen ideiatik gertuago geundeko: *«...egia esan, teknologiak abian diren prozesuak soilik hartzen ditu, eta eraginkorrago bihurtzen...»* (Bauman, 2007: 15).

Esan dugu lehenago, gazteek dituzten kultura-balio eta -ohitura nahaste horren barruan, generoa aldagaia emakumezko gazteen eta gizonezko gazteen arteko elementu bereizle garrantzitsua izan daitekeela, eremu batzuetan. Hau da egile batzuek diotena gazteen artean hain eragin handia duten IKTen eremuari buruz:

Batek espero behar luke, halako berdintasunezko sozializazioarekin, zeinak guztiak berdin lautzen baititu, gizonezko gazteek eta emakumezko gazteek portaera bertsua izan beharko luketela informazioaren eta komunikazioaren teknologien alorrean. Oso parekoak dira iritziei dagokienez, baina ez jarrera eta portaeretan. Telefono mugikorra nesken eremua da, eta ordenagailua eta Internet gehiago dira mutilenak. (Lorente, Bernete eta Becerril, 2004: 298; Gordo eta Megías, 2006: 15-16-en aipatuak).

21. irudia. Internetera sartzea kultura kontsumitzeko. 2007-2008

	EH guztira	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	64 urtetik gora
Ohikotasunez erabiltzen duten gizonezkoak	% 48,6	% 65,6	% 68,1	% 58,1	% 48,6	% 28,0	% 11,6
Ohikotasunez erabiltzen duten emakumezkoak	% 34,3	% 71,0	% 58,3	% 49,7	% 34,3	% 20,1	% 4,9

Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia. *Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008.*

Arestian aipatutako adituen iritzi hori ez dator bat, zehatz-mehatz, gure datuek diotenarekin, kultura kontsumitzeko Internet erabiltzeari dagokionez. Egia esan gizonezkoek gehiago erabiltzen dute, oro har, eta, bereziki, iragaitzako gazteriako mutilek; baina lehenengo gazteriaren alorrean kontrakoa gertatzen da, hain justu, adin-tarte horretan neskek gehiago erabiltzen baitute Internet kultura-kontsumorako, mutilek baino.

Gogorarazi behar da hemen, ordenagailu eramangarrien ekipamenduei dagokienez, lehenengo gazteriako neskek ere adin bereko mutilek baino ordenagailu eramangarri gehiago dituztela. Lehenengo gazteriak duen portaera desberdin horri buruz sortzen den ezezagunak era guztietako espekulazioetara garamatza: orain arte beste adin-tarteetan nagusi ziren Internetekiko portaerak aldatzen arituko ote dira gazteenen taldean eta sexuaren arabera?

IKTetik harantzago

Baina kultura-mundua ez da IKTekin agortzen, ezta gazteen kultura-munduaz jardunda ere. Egia da beste kultura-jarduera batzuetako partaidetzaren zifrak txikiagoak direla Internet kultura-helburuetarako erabiltzeari dagokionez baino; baina, hala ere, ez dira baztertzeko balioak, eta, egia esan, gazteen eta helduen arteko desberdintasunak erakusten jarraitzen dute.

22. irudia. Beste kultura-jarduera batzuetako parte hartzea azken urtean. 2007-2008

EH guztira	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	64 urtetik gora
% 34,7	% 42,2	% 39,0	% 38,0	% 34,9	% 29,2	% 27,1

Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia. *Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008.*

23. irudia. Azken urtean zer kultura-jardueretan parte hartu duten oinarri gisa jardueretako partaideak hartuta (erantzun ugari). 2007-2008

	EH guztira	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	64 urtetik gora
Argazkia	% 30,1	% 26,4	% 35,5	% 44,7	% 32,5	% 24,8	% 9,9
Pintura edo marrazketa	% 19,1	% 25,4	% 21,9	% 16,0	% 20,1	% 17,9	% 13,9
Instrumenturen bat jo	% 17,2	% 34,3	% 21,6	% 17,0	% 10,5	% 12,1	% 7,0
Idatzi	% 16,8	% 21,3	% 15,8	% 13,0	% 17,4	% 18,4	% 17,2
Beste arte plastiko batzuk	% 13,0	% 6,5	% 10,7	% 12,1	% 14,1	% 16,1	% 19,1
Dantza	% 12,2	% 21,1	% 10,6	% 10,8	% 12,5	% 8,8	% 10,1
Abesbatza	% 9,6	% 7,6	% 3,2	% 6,5	% 7,9	% 14,8	% 21,1
Bideoa	% 9,3	% 9,1	% 10,6	% 15,9	% 7,1	% 6,9	% 3,4
Ikus-entzunezkoak	% 5,3	% 5,7	% 6,0	% 5,6	% 4,2	% 2,6	% 6,9
Antzerkia	% 3,2	% 4,8	% 3,2	% 2,6	% 4,1	% 1,7	% 2,6
Bertsolaritza	% 2,5	% 3,4	% 1,4	% 1,4	% 1,8	% 1,8	% 5,7
Beste batzuk	% 10,6	% 5,7	% 6,4	% 8,3	% 9,7	% 11,2	% 23,3

Oinarria: azken urtean beste kultura-jarduera batzuetan parte hartu dutenak, biztanleen % 34,7.

Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia. *Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008.*



Lehenengo gazteriak joera handixeagoa du, oro har, kultura-jarduerak egiteko, bai eta jarduera zehatz batzuetarako, hala nola instrumenturen bat jotzeko, idazteko eta dantza egiteko. Aldiz, askoz ere joera txikiagoa dute argazkigintzarako eta beste arte plastiko batzuetarako. Iragaitzazko gazteriak, oro har, hurrengo adin-tarteko (35-44 urte) helduen antzeko jarduera-maila du, eta gainerako helduek baino handiagoa. Laburtuz, gazteek, oro har, kultura-jarduera gehiago egiten dituzte, baina ez dute alde handirik heldu gazteenekiko.

Musika-instrumenturen bat jotzea da gazteen eta helduen arteko bereizgarri nabarmenena —batez ere, lehenengo gazteriarena, baina baita iragaitzazkoena ere—. Horrek erakusten digu musikak zer nolako garrantzia duen Euskal Herriko gazteen artean.

Xehetasun zehatz bat: gutxien ohitura bada ere, lehenengo gazterian bertsolaritzak gora egin du, eta hori aintzat hartzekoa da, nahiz eta maila hori ez den iristen hirugarren adinean bertsotan jarduten dutela diotenen kopurura. Horrek bat egiten du zenbait gazte-giro euskaldunetan bertsolaritzak izan duen gorakadarekin, aurretik esan dugun bezala. Kultura-ohitura mota horiek generoaren eta hizkuntza-profilaren arabera ere aztertzea interesgarria litzateke —beste atal batzuetan egin dugun bezala—, baina idazki honek muga duenez, ezin diegu ikuspegi horiei heldu.

Gazte elebidunen portaerak eta kultura-kontsumoak

Hasieran aipatu dugu euskara jakiteak edo ez jakiteak identitateak mugatzen dituela, eta, ondorioz, baita horiekin erlazionatutako kultura-ohiturak ere. Atal honetan, beraz, elebidunak soilik aztertu ditugu, orain arte erabili ditugun adin-tarte berberen arabera.

24. irudia. Gazte elebidunen portaera eta kultura-kontsumoak. 2007-2008

	EH guztira	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	64 urtetik gora
Euskal musika erosten duten elebidunak	% 62,1	% 56,9	% 63,0	% 61,6	% 70,1	% 56,4	% 65,1
Euskal musikako kontzertuetara joaten diren elebidunak ¹	% 67,6	% 67,1	% 73,5	% 71,3	% 63,5	% 70,7	% 51,9
Euskarazko liburuak irakurtzen dituzten elebidunak ²	% 36,8	% 45,1	% 36,4	% 36,4	% 34,9	% 23,9	% 36,1
Euskarazko antzerkiak ikustera joaten diren elebidunak ³	% 50,8	% 49,8	% 46,0	% 62,1	% 55,2	% 40,3	% 44,2

1. Oinarria: azken hiru hilabeteetan kontzertuetara joan diren elebidunak, elebidunen % 23,6.

2. Oinarria: azken hiru hilabeteetan aisiarekin, lanarekin edo ikasketekin lotutako libururen bat irakurri duten elebidunak, elebidunen % 66,6.

3. Oinarria: azken urtean antzerki-ikusketetara joan diren elebidunak, elebidunen % 24,7.

Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia. *Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008*.

Euskal musika erosteari dagokionez, lehen gazterriako elebidunek balio txikiagoak dituzte iragaitzakoei baino, eta elebidunen gainerakoen batez bestekoa baino. Era berean, lehenengo gazteria ez, baizik eta iragaitzakoei gazteria nabarmentzen da euskal musikako kontzertuetara joateagatik; hala ere, ez dira gainerako elebidunak baino askoz ere gehiagotan joaten. Portaera horiek arraroak gerta daitezke, lehen begiratu batean, batez ere, lehen esan dugun bezala, musikak euskal gazterian, bai elebidunengan bai elebakarrengan, eta, bereziki, lehenengo gazteriarengan duen garrantzi handia kontuan hartzen badugu.

Bi izan daitezke itxurazko kontraesan horren arrazoiak, eta hipotesi gisa aipatuko ditugu. Bata, musika-konzertuetara joatea garestia izatea, eta, seguruenera, lehenengo gazterriaren erosteko ahalmena gaitzuko du (arrazoi hori aipatu dugu aurrerago, adin-tarte horri buruz aritu garenean, izan elebidun edo ez). Bestea, musika Internetetik jaisteko ohitura izatea izan daiteke; modu horretan, euskal musika erosteko edo euskal musikaren kontzertuetara joateko zailtasun ekonomikoak saihesten dituzte. Hau da, kontzertuetara joateko ohitura gutxi izatea, seguruenera, ez da izango euskal musika delako, eta gazte elebidunak direlako, baizik eta lehenengo gazteria osoaren, hizkuntza edozein izanda ere, beste ezaugarri batengatik (ekonomikoki ezin izatea).

25. irudia. Interneten euskarazko edukietara sartzen diren elebidunak. 2007-2008

	EH guztira	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	64 urtetik gora
Web-ak/Dokumentazioa	% 37,4	% 37,1	% 36,5	% 41,9	% 37,6	% 31,2	% 23,8
Musika	% 22,2	% 33,1	% 24,4	% 16,6	% 13,2	% 2,1	% 15,1
Liburuak irakurtzea eta deskargatzea	% 7,2	% 7,5	% 6,3	% 8,1	% 10,3	% 3,1	% 1,0
Blogak	% 7,2	% 10,9	% 6,3	% 6,7	% 5,3	% 3,0	% 0,0
Foroak	% 6,1	% 9,1	% 4,5	% 6,1	% 3,6	% 4,3	% 10,5
Beste batzuk	% 4,1	% 3,6	% 4,7	% 3,8	% 3,9	% 3,9	% 6,1
Bat ere ez	% 48,7	% 43,5	% 47,5	% 48,5	% 52,0	% 62,2	% 73,4

Oinarria: kultura-arloko jardunen bat egitera sarera jotzen duten elebidunak, elebidunen % 45,6.
 Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia. *Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008*.

Baina, Internetek, musika jaisteko balio izateaz gain, euskarazko edukiekin erlazioatutako beste gauza batzuetarako aukera ere eskaintzen die gazte elebidunei, eta etekina ateratzen die, gainera, aukera horiei, gainerako adin-tartetakoek baino askoz ere gehiago. Hala, euskarazko blogak gutxi erabiltzen badira ere, gehien lehenengo gazterakoek erabiltzen dituzte, gainerakoek baino askoz ere gehiago. Euskarazko foroetako partaidetzak, ordea, berdintsuak dira lehenengo gazterian eta 64 urtetik gorakoetan; gainerako adin-tarteetako parte-hartzea bi talde horietan baino dezente apalagoa da. Deigarria dena da hirugarren adinekoek lehenengo gazterakoek baino parte gehiago hartzea euskarazko foroetan —ez askoz gehiago, dena den—.

Blog eta foroen bidez komunikatzeko moduan izan den aldaketa hasiberri baina sendo horrek, seguruenera, asko aldatuko ditu orain arteko ohiko soziabilitate-moduak: «...gure bizitza eta, are gehiago, belaunaldi gazteena aldatzen ari diren komunikatzeko moduak dira, eta, beraz, baita erlazioatzeak ere...» (Bernete et al., 2007: 86).

Komunikatzeko aukerak gero eta gehiago oinarritzen direnez IKTetan, eta gazte gehienek kasuan, zehazki, 2.0 webgunean, erabiltzaileak jarrerak eta portaerak aldatu behar izan ditu, bere inguru sozialekiko harremanetan:

(pertsonek) produktu desiragarri eta erakargarri bat sustatzera premia, bultzatu edo behatu dira, eta, horrenbestez, ahal dutena egiten dute, eskura dituzten tresna guztiak erabilia, saltzeko dutenaren merkatu-balioa handitzeko. Eta sustatzeko eta merkaturatzeko prest dauden produktua «eurak» baino ez dira.

...marketinean dabilta buru-belarri. Hainbeste desiratzen dituzten gizarte-sariak eskuratzeko gainditu behar duten azterketak «truke-ondasun eran birziklatzeko» eskatzen die, hau da, arreta bildu, «bezeroak» erakarri eta «eskaria» sortzeko gai diren produktu izatea lortu behar dute. (Bauman, 2007: 17, 18).

IKTen bidez beren burua saltzeak zera dakar: gazte elebidunek, komunikazioa hasteko eta izateko orduan, hizkuntza-aukera baten alde egitea. Jakina, pertsonen arteko erlazio- eta komunikazio-parametroak aldatzea euskara erabiltzen dutenena soilik izango ez bada ere, interesgarria da onartzea ohitura berri horiek euskaraz hitz egiten dutenen artean era ari direla gertatzen. Azken finean, erlazio-hizkuntza gisara euskara hautatzeak IKTetara egokitzea eragotziko balu, elebidunek (euskara dakiten ia guztiak) beste hizkuntza bat hautatuko lukete (gaztelania edo frantsesa) beren komunikazio-beharrak asetzeko, eta, modu horretan, harremanen merkaturatzean egon ahal izateko, eta euskara marjinalatuta geratzeko litzateke, erlazionatzeko zeregin berri horretarako.

Azken hausnarketak eta ondorioak

Zientifiko sozial batek ateratako ondorioek inoizkako behatzaile baten intuizioekin bat egin badezake ere, ez du esan nahi balio bera dutenik. (...) Bi horien arteko aldea ez dago azterketa-objektuan, berbera izango baita, metodoan baizik. (Lago, 2008: 12-13).

Hemen aztertu dugun informazioak iradoki digu interes-txoko erakargarriak daudela, gazteen kultura-kode eta -ohitura berriei dagokienez. Gazteen eta helduen arteko desberdintasun logikoez eta espero zirenez gain, interes handiagoa piztu dezaketenez beste batzuk ere azaldu dira. Desberdintasun horiek, arinak badira ere, gure abiaburu-oinarria berretsi dute: hau da, egokia dela,

gazte-esparruaren barruan, gazteria bat baino gehiagori buruz —pluralean— hitz egitea, bai adina oinarri hartuta (lehenengo gazteria vs iragaitzako gazteria), bai genero-ikuspegia (neskak vs. mutilak) hartuta, bai eta hizkuntza eta/edo identitatea oinarri hartuta (elebidunak vs. elebakarrak).

Azterketak, era berean, azpimarratu du gazteen eta helduen artean ekipamendu, kode, erreferente eta kultura-ohitura nahikoa desberdinak izaten direla. Nahikoa esan dugu, adinaren arabera zenbait aldaketa daudelako. Egia da, halaber, ez dela belaunaldi-hausturarik izan, ezta gutxiagorik ere, neurri batean espero eta aurreikus zitekeen eboluzioa baizik.

Alde horretatik, inor ez du harrituko gazteek —oro har, baina bereziki lehenengo gazteriakoez, eta gutxixeago, iragaitzazkoek— helduek baino, esate baterako, ekipamendu elektroniko edo informatiko gehiago izatea, edo musika gehiago entzutea, kontzertu gehiagotara joatea eta zinemara edo liburutegietara/mediateketara gehiagotan joatea. Eskura ditugun datuen arabera, iragaitzako gazteriak, lehenengo gazteriaren eta helduen arteko bidearen erdian dagoenez, giltzarri zeregina du, eta belaunaldi-artean dagoen desberdintasuna haustura baino eboluzio gisa interpretatzera garamatza. Hala, IKTen bidez izan diren aldaketa handiak edukiari dagozkionak dira, eta ez edukitzaileari dagozkionak: tresna teknologiko horien erabilerak ohitura eta interesgune berriei ireki dizkie ateak, baina horrek ez dakar nahitaez beti kultura-dukien aldaketa, baizik eta betikoa ugaritzeko eta zabaltzeko bide berri bihurtzen dira, zenbaitetan.

Edonola ere, ezin da ahaztu biztanleen batez bestekoekin lan egiteak dakarren falazia ekologikoak, estatistikoki garrantzi gutxikoak izanagatik ere, sozialki eragingarriak izan daitezkeen gazte-talde edo -sektoreak ezkuta ditzakeela. Baina kontua da hemen erabili diren datuek ez dutela gazte-ohitura iraultzaileei edo hausleei buruz hitz egiten. Ezta Internet, eta, zehazki, 2.0 webguneko elementuak erabiltzeari dagokienez ere. Horrenbestez, teknologia berriek dakarten gaur egungo komunikazio-paradigmaren hausturaz hitz egiten duten interpretazioen kontra, gure datuek diote badirudiela gazte-joera gehienak, edukitzaileei (moduak) dagokienez berritzaile samarrak badira ere, edukiei dagokienez eraldatzaile samarrak baino ez direla (musika gehiago entzun edo filma gehiago ikusi, esate baterako).

Horrenbestez, zalantza da belaunaldi gazteen eta helduen artean dauden ekipamendu- eta kultura-praktiken desberdintasun batzuk zenbateraino diren gazteek berritasunera irekiago egotearen eta helduek betikorako joera gehiago izatearen kontua. Edo, bestela, desberdintasun horiek adin-tarte batzuen eta besteen berezko balio, joera eta kultura-portaera ezberdinengatik gertatzen diren. Agian, testuan esan dugun bezala, denetik izango da pixka bat.

Argi eta garbi dago musika gazteria-mota desberdinen kultura-balio oso nabaria dela, hainbestearaino, non ekipamenduetan eta askotariko ekintza eta praktiketan nabari baita. Baina, eboluzio-datuen serierik ez dugunez, ezin da zehaztu atzemandako desberdintasunak belaunaldi arteko eboluzioaren ondorio diren, edo, aldiz, bizi-zikloari eragotz dakioken pertsonen eboluzio logikoaren ondorio diren, hau da, gazteek, heldu eta zahartzen diren heinean, beste balio, kode eta kultura-ohitura batzuetara eboluzionatzen duten.

Azaldutako joera orokorren barruan, generoa elementu bereizle gisa agertu da, kultura-esparru batzuetan; hala ere, ñabardura txikiko aukera gisara agertzen da, ia beti, neska eta mutil gehienek partekatzen dituzten parametro orokorren barruan. Hala, desberdintasun horiek —esate baterako, ekipamendu desberdinak erabiltzeak (ordenagailu eramangarriak neskek; eta PCak eta kotsolak, gehiago, mutilek) edo kultura-ohitura desberdin samarrak izateak (liburu gehiago irakurtzen dituzte neskek, liburutegietara/mediateketara gehiago joaten dira, antzerki eta dantza-ikuskizun gehiago ikusten dituzte; eta mutilak, berriz, gehiago joaten dira kontzertuetara)— ez dirudi adierazten digutenik bi mundu erabat desberdin daudela; esango genuke batzuek eta besteek partekatzen duten kultura beraren barruko ñabardura azpikulturalak direla. Edonola ere, pare bat oharrek adieraz diezagukete lehenengo gazterian generoaren araberako joera-aldaketa gertatzen ari dela, informatikaren alorrean —orain arte gizonezkoen eremua zen, batik bat—: 15-24 urte bitarteko neskek mutilek baino ordenagailu eramangarri gehiago dituzte, eta kultura-arloan, gehiago erabiltzen dute Internet. Geroko datuen zain geratu beharko dugu seinale hain iradokitzailen horien garrantzia baloratzeko.

Identitateak/hizkuntzak ere ez du haustura handirik eragin gazte elebidunen eta elebakarren artean. Aldeak ez dira handiak, eta aurreko belaunaldietatik heredatutakoak dirudite; belaunaldi horiek jada bazituzten antzeko aldeak haien hizkuntzaren arabera.



Elebidunei buruzko ohartxo zehatz bat egiteko, aipatu behar da lehenengo gazteriaren sektore batzuetan bertsolaritzak izan duen berpizkundera; izan ere, berragertarazi egin du —ez asko baina bai sendotasunez— gure ahozko kulturaren zaletasun eta ohitura tradizional hori euskal gazteen batez besteko balioetan.

Egia da eskura dugun informazioak eta hemen dugun lekuak ez digutela utzi azpimundu berezirik edo zehatzik badagoen edo ez sakon miatzen. Horregatik, Internet gazteen komunikazioak eta erlazioak aldatzeko elementu gisa erabiltzea, edo generoak eta/edo hizkuntzak/identitateak gehien markatutako eta desberdindutako profilak oharkabean pasatu ahal izan dira. Beste horrenbeste gertatu da postmodernismoko teorikoek adierazitako identitate ahulen agertze hipotetikoarekin ere. Hala ere, susmoa dugu ezen, inguru horietan egoki murgilduz gero, aurreko belaunaldiekiko aldaketa nabarmenagoa dela adierazten duten mikromunduak agertuko zaizkigula. Zeregin hori egiteke dago, eta hemen abiatutako bidean aurrera egitera gonbidatzen du.

Ondorioz: Euskal Herriko gazteen eta helduen artean, kodeei eta kultura-praktikei dagokienez, homogeneousasuna dagoenik biribiltasunez ziurtatu ezin badaiteke ere, ez dago horien arteko belaunaldi-hausturarik. Ezin da, era berean, gazte monolitiko eta uniformeei buruz hitz egin; dena den, adinaren (lehenengo gazteria vs. iragaitzazko gazteria), generoaren (neskak vs. mutilak) edo hizkuntza eta/edo identitatearen (elebidunak vs. elebakarrak) arabera agertzen diren ñabardurak belaunaldi eta kultura-ingurune bereko diren gazte-sektore horien berezitasun gisa interpretatu beharko liriteke, eta ez elkarrengandik oso urrun dauden gazte-mundu bezala. Laburbilduz, euskal gazteen artean desberdintasunak izanagatik ere, badirudi guztiak aurreko belaunaldien ingurune soziokulturalean sozializatu direla, eta ingurune hori nahikoa uniforme eta gertuko da, eta dauden desberdintasunak onargarriak eta onartuak dirudite. Horrenbestez, artikulua hipotesi nagusia baztertu egin beharko genuke, edo argitu, bestela, eta kode eta ohitura berriei buruz hitz egin ordez, oinordetzan jasotako kode eta ohituren eboluzioari buruz hitz egin beharko genuke.

Bibliografia:

Bauman, Z. (2007).

Vida de consumo. México, etc. Fondo de Cultura Económica.

Baxok, E. et al. (2006).

Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran/Identidad y cultura vascas a comienzos del siglo XXI/Identité et culture basques au débout du XXIème siècle. Donostia. Eusko Ikaskuntza.

Bernete, F. et al. (2007)

Comunicación y lenguajes juveniles a través de las TIC. Madrid. INJUVE.

Gatti, G. (2007).

Identidades débiles. Una propuesta teórica aplicada al estudio de la identidad en el País Vasco. Madril. CIS.

Gordo López, A. J. (coord.) y Megías Quirós, I. (2006).

Jóvenes y cultura messenger. Madril. INJUVE.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (2008).

IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Gasteiz. Eusko Jaurlaritza.

Lago, Ignacio (2008).

La lógica de la explicación en las ciencias sociales. Una introducción metodológica. Madril. Alianza.

Sáinz Ibañez, M. (2009).

Aspectos psicosociales de las diferencias de género en actitudes hacia las nuevas tecnologías en adolescentes. Madril. INJUVE.

3. EUSKARA ETA KULTURA-KONTSUMOA


Harkaitz Zubiri (*Donostian jaioa 1977an*) ingeles filologian lizentziatua, soziologian lizentziatua eta magisteritzan diplomatua da. *Soziologian eta irakaskuntzan egiten du lan. Bi liburu argitaratu ditu: Zakur kale (Susa, 2007) narrazio liburua eta Bertsolaritza. Tradizio modernoa (Euskal Herriko Unibertsitatea, 2007) soziologia arloko saiakera, azken hau elkarlanean. Soziologia arloko hainbat artikulu ere argitaratu ditu aldizkari espezializatuetan.*

Bidegurutzean gaude berriro. Erronka handia dugu parez pare. Baikorkeriek eta diskurtso apokaliptikoez ez digute lagunduko. Urte luzez amildegian behera erori ondoren, azken hamarkadetan abiarazi ditugun ekimenei esker euskararen erkidegoak milaka kide irabazi ditu, 300.000 lagun inguru, eta, halaber, eremu berrietara iristeko gai izan da, baina, hala ere, gaur egun euskara txikia eta ahula da oraindik.

Izan ere, azken urteetako hedapena ez da zenbait datu kuantitatibok erakusten dutena bezain sendoa eta eraginkorra. Hainbat adierazlek argi islatzen dituzte euskararen argilunak.

Euskararen ezagutza hedatzen ari da (ikus 26. irudia). Elebidunen kopurua helduen eta adinekoen artean baino handiagoa da gazteenen artean: 1986an hamarretik bi izatetik (haurrak % 23,2 eta gazteak % 20,7) 2001ean hamarretik lau baino gehiago izatera pasa ziren (haurrak % 45,8 eta gazteak % 40,3). Normalizaziorako bidean, seinale ona da. Baina kopuru hauek ez dira diruditen bezain onak.

26. irudia. Euskararen ezagutzaren bilakaera adin taldeka. Euskal Herria, 1986-2001




Iturria: Euskararen Datu Basea. Soziolinguistika Klusterra eta Aztiker (datuen jatorria: biztanleria Zentsuak eta Biztanleriaren estatistikak Arabarako, Bizkairako, Gipuzkoarako eta Nafarroa Garairako, eta Soziolinguistikako Inkesta Ipar Euskal Herrirako).

Gaur egun oro har euskal herritarren laurdena (% 25,7) da elebiduna, 2006. urteko IV. *Inkesta Soziolinguistikoaren* arabera (ikus 27. irudia). Hamar euskal herritarretatik sei (% 58,9) erdaldun elebakarrak dira. Gainerakoak, % 15,4 hain zuzen, elebidun hartzaileak dira. Gainera, kopuru hauek ezin dira bere horretan besterik gabe hartu. Adibidez, elebidunen artean zein hizkuntzatan moldatzen diren hobeto galdetuz gero, hamar elebidunetik lauk (% 38,9) erdaraz hobeto moldatzen direla erantzun du. Hamar elebidunetik hiruk (% 30,7) euskaraz hobeto.

Euskaraz nahiz erdaraz berdin moldatzen direla, berriz, hamarretik hiruk (% 30,3) erantzun dute. Kopuru hauek elebidunenak dira, ez euskal herritarrenak. Beraz, hogeit hamar euskal herritarretatik hiru (% 15,7) moldatzen dira euskaraz erdaraz baino hobeto edo erdaraz bezain ondo.


27. irudia. Hizkuntza gaitasuna. Euskal Herria. 2006



Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. *IV. Inkesta Soziolinguistikoa.*

Hogetik hiru. Hain zuzen horixe da kalean euskaraz egiten diren elkarrizketen kopurua, % 14,2, Soziolinguistika Klusterraren arabera (ikus 28. irudia). Kopuruak gora egin du azken bi hamarkadetan, eta hori norabide egokia da noski, baina azken 17 urteetan soilik % 3,4 handitu da kopuru hori.

28. irudia. Kaleko elkarrizketak hizkuntzaren arabera. Euskal Herria. 2004




Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

IV Soziolinguistikako Inkestan ere erabileraren datuak aztertzen dira (ikus 29. irudia), baina, neurketak kalean egin beharrean, inkestatuak erantzuten duena da oinarria. Ondorioz, politikoki zuzena denaren soslaiari tarte irekitzen zaio, baina, nolahi ere, emaitzei erreparatuz gero, ez dirudi tarte oso handia denik. Erdara nagusitzen da kasuen % 85ean: euskal herritarren hiru laurdenek (% 74,9) erdara bakarrik erabiltzen dute eta hamarretik batek (% 9,8) erdara euskara baino gehiago. Beraz, euskararen erabilerari dagokionez, berriro kopuru beretsua agertzen zaigu, hogeitik hiru, euskal herritarren % 15,3 hain zuzen: euskara erdara baino gehiago erabiltzen dutela hamarretik batek (% 9,9) erantzun du, eta euskara erdara beste erabiltzen duela hogeitik batek (% 5,4).

Hortaz, euskararen erabilera ez da handitzen ari euskararen ezagutza handitzen ari den maila berean, ezta hurrik eman ere. Haur eta gazteen artean oso nabarmena da. Datu kezagarria da hau. Euskararen hedapenak dauzkan gabeziak garbi iradokitzen ditu.

29. irudia. Elkarrizketak hizkuntzaren arabera. Euskal Herria. 2006




Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. IV. Inkesta Soziolinguistikoa.

Inguruabar honetan irakurriko ditugu euskal kultur kontsumoari buruzko datuak. Izan ere, eremu honetan ere euskara txikia eta ahula da.

- Txikia dela esaten dugu zeren inguruko kulturen kontsumitzaile kopuruekin alderatuta, euskararena hizkuntza erkidego askoz txikiagoa izaki, euskal kulturaren kontsumitzaile kopurua askoz txikiagoa baita.
- Ahula dela esaten dugu, bere eremuko biztanleen laurdenera soilik iristen delako.

Baina beste zentzu batean ere bada ahula: euskal herritarrek oro har kultura kontsumitzeko dituzten joerak kontuan hartuta, euskararen hizkuntza erkidegoko kideek legokiekeena baino askoz euskal kultura gutxiago kontsumitzen dute. Azter ditzagun ideia hauek datu kuantitatiboen bitartez.

30. irudia. Gaztelaniaren, frantsesaren eta euskararen hizkun kopurua (milioiak). Mundua. 2001




Iturria: Aztiker: Euskal Herria datuen talaiatik 2006. Honako iturriak erabili dituzte: Grime, B.F. (2002), Euskararen Datu Basesa 1.0, Biztanleriaren Zentsuak (EUSTAT, IEN), *Soziolinguistikazko Inkesta* (Eusko Jaurlaritzak).

Kulturaren hainbat adierazpidetan hizkuntzaren ardatza ziur aski esanguratsua ez den arren (dantzaren eta arte plastikoen arloko emaitza gehienetan kasu), beste hainbat adierazpidetan funtsezkoa da. Besteak beste, kontsumitzaile potentzialen kopurua nabarmen baldintza dezake. Gaur egun Euskal Herrian hitzun gehien dituzten hizkuntzek lor ditzaketen kopuruak oso ezberdinak dira (ikus 30. irudia): mundu mailan gaztelaniak 352 milioi hitzun dauzka, frantsesak 122 milioi eta euskarak, berriz, milioi bat baino gutxiago. Beraz, euskara oso txikia da bi erraldoiren artean.

Baina gure azterketan soilik Euskal Herria hartuko bagenu kontuan, euskararen kalterako asimetria ere nabarmena litzateke. Izan ere, erdal kulturaren kontsumo potentziala askoz handiagoa da euskal kulturaren aldean. Biztanleriari buruzko 2006. urteko datuen arabera, Euskal Herrian 3.015.558 lagun bizi dira orotara. Horien artean 16 urte edo gehiagokoak, berriz, 2.589.600 lagun dira. Lehen esan dugunez, 16 urte edo gehiagokoaren artean % 25,7 (665.800 pertsona) elebidunak dira, % 15,4 elebidun hartzaileak (397.900 pertsona) eta % 58,9 erdaldun elebakarrak (1.525.900 pertsona).

Kontuan hartuz elebidun guztiak direla erdal kultur produktuen kontsumitzaile potentzialak, datu hauen arabera ondoriozta genezake erdal kultur produktuen kontsumitzaile potentzialen kopurua 2.589.600 pertsonakoa dela (ziur aski hauetatik % 91 inguru gaztelaniazkoena eta % 9 inguru frantsesezkoena) eta euskal kultur produktuen kontsumitzaile kopurua, berriz, 665.800 lagunekoa dela (ikus 31. irudia). Hau da, erdal kulturaren kontsumoa potentzialki ia bost aldiz handiagoa da euskal kulturarena baino.

31. irudia. Kulturaren kontsumitzaile kopuru potentziala. Euskal Herria. 2006



Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. IV. Inkesta Soziolinguistikoa.

Kontsumitzaile potentzialen kopuruak, noski, eragina du kontsumo errealean. Horren ondorioz euskal kulturaren kontsumitzaile kopurua askoz txikiagoa da. Aztergai ditugun datuen arabera (ikus 32. irudia), euskal herritarrek askoz gutxiago kontsumitzen dute euskal kultura erdarazkoa baino:


- Hamarretik seik (% 58,0) irakurri dituzte aisialdiko liburuak azken hiruhilekoan, eta hogeitik batek (% 6,3) euskaraz; Hamar euskal herritarretik bi (% 21,9) joan dira antzerkira azken urtebetean, eta euskaraz eskaini direnetera soilik hogeitik bat (% 5,4).
- Baina are handiagoa da zinemari dagozkion datuen arteko aldea, hamar euskal herritarretik bost (% 54,8) joan baita zinemara azken urtebetean, eta euskaraz eskaintzen den filmaren batera ia inor ez (% 0,3). Aintzat hartu behar da euskaraz eskaintzen den zinemarik ez dagoela ia.

Haatik, musikari dagozkion datuak nahiko ezberdinak dira:

- Hamar euskal herritarretik zazpik (% 69,9) entzuten dute musika maiz, eta euskal musika, aldiz, hamarretik bostek (% 6,4). Gainerakoekin alderatuta, euskarazkoaren kopurua askoz handiagoa da, baina zalantza sor liteke emaitza horrekin, erantzun dutenean «música vasca» eta «euskal musika» soilik euskaraz egiten den musika denetz eta, beraz, gainerako emaitzekin zenbateraino den alderagarria.
- Kontzertuetara joateari buruzko datuek ere zalantza berdintsua sor lezakete eta, hala ere, euskarazkoen kopurua nabarmen txikiagoa da: oro har % 38,2 eta euskaraz % 8.

Bestalde, bertso-saioen kasua besteekiko ezberdina da, guztiak euskaraz eskaintzen direlako eta ondorioz kopurua % 7,6koa delako bai oro har bai euskaraz. Euskara normalizatu batego, euskal kulturaren kopuruak orokorraren parekoak lirateke. Hots, egoera normalizatu batean euskal herritarren erdia zinemara joango balitz, herritarren erdiak inguru erantzungo luke euskarazko zinemara joan dela. Horrek ez luke esan nahiko soilik euskarazko filmak ikusiko lituzkeenik, baizik eta euskarazko pelikulak ere ikusiko lituzkeela, gainerako hizkuntzetan adina behintzat. Baina gaur egun egoera horretatik oso urrun gaude, eta zinemaren eremuan zer esanik ez.


32. irudia. Euskal herritarren kultur kontsumoa oro har eta euskaraz. Euskal Herria. 2007



Oharrak: 1) Musika entzutearen kopuruak «egunero edo ia egunero» kategoriakoak dira, aisialdiari lotutako liburuen kopuruak azken hiruhilekoak, eta gainerakoak azken urtebetekoak. 2) Musika entzutearen eta kontzertuetara joatearen kopuruak «música vasca» eta «euskal musika» kategoriei dagozkie euskaraz» kategorian. Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia, 2008. Kultura Saila, Eusko Jaurlaritza.

Nolanahi ere, aztertzeko modukoa da normalizazio falta hau zenbateraino dagokion eskariari eta zenbateraino eskaintzari. Hipotesizat aurreratuko genuke oso ezberdinak direla, adibidez, aisialdiko liburuen eta zinemaren egoera: liburuen arazoa batik bat eskariarena litzateke eta zinemarena, berriz, nagusiki eskaintzarena, nahiz eta ziur aski neurri batean bi arazoek eragingo lieketen bi kultur adierazpenei. Euskal herritarren kultur kontsumo ohiturak aztertzerakoan, euskarazkoen kopuru txikiak elebidunen kopuru txikiari egotz dakizkioke, baina arazoa hori baino larriagoa da. Euskararena hizkuntza erkidego txikia da eta ez da bere eremuko hiztun guztietara iristen, eta ondorioz euskal kulturaren kontsumitzaile potentzialen kopurua oso txikia da, baina, gainera, euskara ailegatzen den hiztunen artean ere ez da beste hizkuntzak bezain modu eraginkorrean heldzen. Elebidunen kultur kontsumoari buruzko datuek argi islatzen dute egoera hau (ikus 33. irudia).

33. irudia. Elebidunen kultur kontsumoa oro har eta euskaraz. Euskal Herria. 2007



Oharrak: 1) Musika entzutearen kopuruak «egunero edo ia egunero» kategoriakoak dira, aisialdiari lotutako liburuen kopuruak azken hiruhilekoak, eta gainerakoak azken urtebetekoak. 2) Musika entzutearen eta kontzertuetara joatearen kopuruak «música vasca» eta «euskal musika» kategoriei dagozkie euskaraz» kategorian. Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia, 2008. Kultura Saila, Eusko Jaurlaritza.

Euskal herritarrei buruzko datuek aurreratzen duten bezala (euskarazkoen kopuruak ez baitira elebidunen kopuruetara proportzionalki iristen), elebidunek ere egoera normalizatu batean kontsumituko luketena baino euskal kultura gutxiago kontsumitzen dute. Euskal herritarrek oro har eta Euskal Herriko elebidunek oso antzeko ohiturak dauzkate kultura kontsumoari dagokionez, baina elebidunek ez dute euskal kultura erdarazkoaren pare kontsumitzen. Ondorioz, euskal kulturaren kontsumo kopuruak txikiagoak dira baita elebidunen artean ere. Euskararen arazo bakarria balitz euskal herritar guztietara iristen ez dela, suposatu beharko genuke ailegatzen den herritarren artean, elebidunen artean alegia, euskal kulturaren kontsumo kopuruak erdarazkoarenaren parekoak liriatekeela, baina gutxiagotutako hizkuntza izateak hedapen arazo mota asko eragiten ditu eta horietako bat da hau: kultur kontsumoari dagokionez ere elebidunen artean euskara ez da gaztelania edo frantsesa bezain indartsua. Arazo honetatik ondoriozta genezake, jakina denez, Euskal Herrian elebidunei buruz ari garenean ez gara ari hizkuntza erkidego ez-normalizatu bateko kide normalizatuez. Hizkuntzaren gutxiagotasuna euskal hiztunen artean ere nabarmena da. Erkidegoaren kide oso gutxi bizi dute beren errealitate linguistiko pertsonala euskara indibidualki normalizatu balez bezala. Ezin dira parekatu hizkuntza erkidego normalizatu eta ez-normalizatu eta ez-normalizatu kideak, ezta indibidualki ere. Izan ere, errealitate linguistikoak ez dira fenomeno indibidualak. Fenomeno sozialak eta kolektiboak dira.

Errealitate hori islatzen dute elebidunen kultur kontsumoari buruzko datuek (ikus 32. irudia):

- Hamar elebidunetik ia seik (% 57,5) irakurri dituzte aisialdiko liburuak azken hiruhilekoan baina soilik hamar elebidunetik bik (% 0,7) irakurri dituzte euskara:
 - Kontzertuetara elebidunen erdia (% 46,5) joan da azken urtebetean, baina soilik hamarretik bi euskal musikakoetara.
 - Antzerkira elebidunen laurdena (% 24,7) joan da azken urtebetean, eta euskarazkoetara, berriz, hamarretik bat (% 12,5).
 - Zinema dago egoera okerreanean, zeren nahiz eta elebidunen erdia (% 54,7) joan den zinemara azken urtebetean, ehunetik bakarra (% 1,2) joan baita euskaraz eskaintzen den filmaren batera.
 - Musika entzutearen kopuruak salbuespena dira (% 72,8 oro har eta % 68,8 euskaraz) baina euskal musikako kontzertuetara joatearen kopuruekin batera, zalantza sor liteke erantzunen artean «música vasca» eta «euskal musika» kategoriak soilik euskaraz egiten den musikari dagozkionetz.
 - bertso-saioen kasua ezberdina da, saio guztiak euskaraz eskaintzen direlako eta ondorioz bai oro har bai euskaraz bost elebidunetik bat (% 17,3) izan direlako gutxienez bertso-saio batean azken urtebetean.

Hedabideei buruz Kulturaren Euskal Behatokiak eskaintzen dituen datuek orain artekoa berretsi egiten dute (ikus 34. irudia): euskal herritarrek asko kontsumitzen dute hedabideen eskaintza, baina euskal hedabideak kontsumitzen dituztenen kopurua askoz txikiagoa da:


- Hamar euskal herritarretik bederatzi inguruk kontsumitzen dituzte telebista eta egunkaria (% 92,8 egunero edo ia egunero eta % 85,6 astean behin gutxienez), baina euskarazkoaren kopurua hamarretik batekoa da

(% 10,6 eta % 9,8 hurrenez hurren);

- Irratia hamar euskal herritarretik ia zortzik (% 77,4) egunero edo ia egunero kontsumitzen dute, baina euskaraz eskaintzen dena soilik hamarretik batek (% 12,1).
- Internet hamar euskal herritarretik lauk (% 41,4) kontsumitzen dute maiz baina euskaraz soilik hamarretik batek (% 12,1).

Hedabideei dagokienez ere komenigarria litzateke aztertzea gabeziak zein neurritan dagozkion eskaintzari eta zenbateraino eskariari. Gure hipotesia da (ikus Aierdi, Xabier; Retortillo, Alfredo; Zubiri, Harkaitz: «Euskal hedabideak EAEn» in Bat Soziolinguistika Aldizkaria, 68. zenbakia, 2008) hedabide batzuen eremuan arazo nagusiena eskaintza dela eta beste eremu batzuetan, berriz, eskaria (telebista batik bat lehenengoan legoke eta egunkaria nagusiki bigarreanean), baina hedabide guztiek dauzkatela eskari eta eskaintza¹ arazoak.

34. irudia. Euskal herritarrek zenbat kontsumitzen dituzten hedabideak oro har eta zenbat euskaraz. Euskal Herria. 2007




Oharra: telebistaren eta irratia-aren kontsumoa «egunero edo ia egunero» egiten dena da, internet «maiz» egiten dena da eta egunkariarena astean behin edo gehiago egiten dena.

Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia, 2008. Kultura Saila, Eusko Jaurlaritza.

1 Aierdi, Xabier; Retortillo, Alfredo; Zubiri, Harkaitz: «Euskal hedabideak EAEn». Bat Soziolinguistika Aldizkaria, n° 68, 2008.

Elebidunei dagokienez, euskal hedabideak kontsumitzen dituztenen kopurua erdarazkoena baino txikiagoa da. Elebidunen baitako egoera normalizatu batean kopurua parekoa litzateke, erdal hedabideak adina kontsumituko lituzkete euskal hedabideak, baina datu hauek oso urrun daude egoera horretatik, elebidunak ez direlako errealitate soziolinguistikotik isolatuta bizi eta euskara gutxiagotuta egoteak elebidunei ere nabarmen eragiten dielako.

35. irudia. Elebidunek zenbat kontsumitzen dituzten hedabideak oro har eta zenbat euskaraz. Euskal Herria. 2007



Oharra: telebistaren eta irratiaren kontsumoa «egunero edo ia egunero» egiten dena da, internet «maiz» egiten dena da eta egunkariarena astean behin edo gehiago egiten dena.

Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia, 2008. Kultura Saila, Eusko Jaurlaritzia.


Ondorioz, 35. irudian ikus dezakegunaren arabera, euskal eta erdal hedabideen kontsumitzaile kopuruak urrun daude baita elebidunen artean ere:

- Telebista eta egunkaria hamar elebidunetik bederatzik kontsumitzen dituzte (% 91,8 egunero edo ia egunero eta % 88,7 astean behin gutxienez hurrenez hurren), baina euskarazko eskaintza soilik hamarretik ia lauk (% 36,8 eta % 5 hurrenez hurren).

- Irratia hamar elebidunetik ia zortzik (% 77,4) kontsumitzen dute egunero edo ia egunero, eta euskaraz, ordea, hamarretik lauk (% 41,8).
- Internet elebidunen ia erdiak (% 45,6) kontsumitzen du, baina euskarazko eskaintza, berriz, soilik laurdenak (% 23,4).

Orain arte aztertu ditugun datuek argi islatzen dute hizkuntzaren egoera eta kultur kontsumoaren egoera oso lotuta daudela, baina hori frogatze aldera aski da aztertzea kontsumitzaileak herrialdeka nola dauden banatuta. Euskal kulturaren kontsumitzaileak non dauden jakiteko nahikoa da euskal hiztunen herrialdekako banaketari erreparatzea. Adibide bat jartzearren, euskarazko liburuak irakurleak herrialdeka nola banatzen diren aukeratu dugu aztergai (ikus 36. irudia). Hiztunen banaketa joerei jarraiki, Gipuzkoan eta Bizkaian dauden hamar irakurletik zazpi (% 42 eta % 30 hurrenez hurren). Gainerakoen artean soilik Nafarroa Garaia iristen da hamarretik bat izatera (% 10). Kopuru txikiagoa dute Arabak (% 8) eta Lapurdik (% 6) eta are txikiagoa Nafarroa Behereak (% 2) eta Zuberoak (% 1). Banaketa honetan, jakina, biztanleriaren banaketak ere eragin handia du.

36. irudia. Euskarazko liburuak irakurri dituzten pertsona elebidunen kopurua herrialdearen arabera. Euskal Herria. 2007



Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia, 2008. Kultura Saila, Eusko Jaurlaritza.

Ondorioak

Erdarazkoaren aldean, euskal kulturaren kopuruak txikiak dira, baina ez dira gutxietsi behar. Euskara berreskuratzeko bidean ezinbesteko abiapuntua dira. Kontsumitzaile talde horiek osatzen dute hizkuntza erkidegoaren nukleoa eta soilik nukleo sendo eta dinamiko batek ahalbidetu dezake euskararen normalizazioa. Nukleoak bere baitan ez ezik inguruko zirkulu kontzentrikoetan ere eragina du baldin eta behar bezain indartsua bada.

Nukleoa elikatzea derrigorrezkoa da. Beraz, kulturaz hornitzea ere ezinbestekoa da. Nukleoa higatzea hizkuntza erkidegoaren galbidea litzateke. Baina gutxiagotutako hizkuntza batek nukleoa jorratzeaz gain inguruko periferiak ere landu behar ditu. Gakoa, batzuekiko eta besteekiko politikak inor higatu gabe uztartzea da.

Etorkizunari begira, gure errealitatearen abiapuntua argia da: gaur egun euskara gutxiagotutako hizkuntza da. Kultur kontsumoaren esparrua ez da salbuespena. Aurkeztu ditugun datuek bere gordinean islatzen dute arazoa. Egoera hau ez da prozesu natural baten emaitza izan. Historia sozio-politiko baten ondorioa da. Berreskurapena ere, izatekotan, ekimen sozio-politiko baten fruitua izango da. Euskararekiko, gaztelaniarekiko eta frantsesarekiko berdintasunez jokatzeko aldarrikatzen duten politikek kasurik onenean entzungor egiten diote egungo errealitateari. Kasurik okerreanean, indartsuenaren aldeko politikak besterik ez dira.

Erronka handia dugu parez pare. Aztergai izan ditugun datuek ikuspegi apokaliptikoa iradoki baino, gaurtik aurrera egin beharko genukeenaren abiapuntua, norabidea eta intentsitatea seinatzen dute.

Hedatzea beste alternatibarik ez du euskarak. Horretarako, sustapena helburu duten ekimenak nabarmen ugaritu behar ditugu. Inork ez du ezer oparitzen.

Euskal kultur kontsumoaren esparruan jorratzen ditugun ekimenek euskararen erkidegoari lagundu egingo diote eta, halaber, euskararen eremu guztietan gauzatzen diren aurrerapausoek bultzada emango diote euskal kulturaren kontsumoari. Euskararena bezalako hizkuntza erkidego gutxiagotu bat berreskuratzeko eremu guztiak lantzea beharrezkoa da. Azken hamarkadetan zenbait urrats egoki egin ditugu. Ez dira gutxiesteko modukoak. Hauei esker egin dugu aurrera. Ahalegin horiei jarraipena eman behar diegu, emankorrak izan direlako. Baina, horiez gain, normalizazio bidean ezinbestekoa da euskara sustatzeko ekimenak kuantitatiboki nahiz kualitatiboki biderkatzea. Erronka handia da, baina gainditzeko modukoa. Gaur egiten dugunaren araberakoa izango da etorkizuna.



4. AZKEN 24 URTE HAUETAKO KULTURA-OHITUREN BILAKAERA

Ramón Zallo. EHUko Komunikazio arloko katedraduna.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak “Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko 2007-2008ko Estatistika” argitaratu du. Lan horrek 2007ko abendutik 2008ko otsailera Kulturaren Euskal Behatokiak egindako inkesta bat izan du oinarri, eta azken 24 urte hauetan Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren kultura-ohiturek izan duten bilakaera eta aldaketa aztertzeko aukera ematen du, Euskal Autonomia Erkidegoko 1986ko kultura-ohiturei buruzko txostenarekin eta 1984¹ko datuekin alderatuta. 1984koa, Valentín González soziologoak zuzendu zuen, Juan Ignacio Ruiz Olabuenaga euskal soziologiako dekanorekin laguntzarekin, eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Turismo Sailak argitaratu zuen. Inkesta bidez egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean, EAE) berariazko lehenengo azterketa izan zen. Landa-lana, 1984²ko ekainean eta uztailean egin zen.

la 25 urteko aldea dago batetik bestera. Aukera ona da demokrazian bizi izan diren (demokraziaren hasieran, eta gaur egun) bi belaunaldik izan dituzten kultura-praktiken aldeak eta antzekotasunak zeintzuk diren jakiteko.

Metodologia desberdinak erabili dira bi inkesta horiek egiteko, eta azterketa-eremu asko ere ez dira berdinak izan; beraz, ezin da bi inkesten arteko konparazio zehatzik egin. Kontuan hartu behar da 1984ko meritu handiko inkesta hark ez zuela aurrekaririk, eta erabilitako

1 Txosten hark EAE soilik hartu zuen; 2008koan ere eremu hori hartu da alderatzeko, 2007-2008ko estatistika-inkesta eta -txostenak Euskal Herri osoa hartuta egin badira ere, hau da, Iparraldeko eta Nafarroako kultura-ohiturak ere aztertuta.

2 Bi ikerketa horiei lotutako eboluzio-azterketa mugatua dela eta aldi guzti horretan izan diren beste batzuk kontuan hartu ez direla badakigun arren, uste dugu nahikoa dela argibideak emateko.

metodologia, halaberrez, ahalegin gisakoa eta zehaztugabea izan zela. Esate baterako, oraingo eragiketak komunikabideei buruz beste norabide bat hartu du, eta garai hartan pentsaezina zatekeen zehaztasun-maila lortu.

Asmo handiko proiektua izan zen, kultura-portaerekin zerikusia zuen guztiaz gain, jarduera sozial batzuk ere aztertu nahi izan baitzituen. Garai hartako aisialdirako kezken arabera, hobbyei, jolasei, hezkuntzari, partaidetza komunitarioari edo kirolei buruzko gaiak sartu ziren; ez, ordea, bertsolaritzari, operari eta abarri buruzko gaiak. Egin berri den eragiketa estatistikoa, berriz, kulturari buruzkoa da soilik, eta oso galdera zehatzak eta kontzentratuak egin dira. Esate baterako, 1984koak jarduera amateurrei buruzko informazio urria zuen (argazkigintzari, idazketari, musika-instrumentuei, margolaritzari, beste arte plastiko batzuei eta abesbatzei buruzkoa), eta ezin da 2008koarekin alderatu. Hala ere, jauzi handia izan zen, herritarren herena jarduera horietakoren batekin erlasionaturik dago eta. Interesgarria da, benetan, jakitea gaur egungo gazteen % 42,5ek —ez dakigu garai hartako ehunekoak— jarduera amateurren bat egiten duela. Ehuneko hori, dena den, jaitsi egiten da adinak gora egin ahala.

Oro har, alde handiak daude bi inkesten artean: datuak biltzeko sisteman, esate baterako (telefonoz bildu ziren datuak 2008koan, eta aurrez aurreko elkarrizketak egin ziren 1984koan); kontuan hartutako adinak ere ez dira berdinak (15 urtetik gorakoak, 2008koan; 18 urtetik gorakoak, 1984koan); galderak ere ezberdinak izan ziren (interesa, praktikak eta ohiturak bereizten ditu 2008koak; kontsumo-maiztasuna eta iritzi-egoera izan ditu oinarri 1984koak), eta lagin-kopuruan ere badago aldea: 3.896 elkarrizketa egin ziren 2008koan; lurraldeka, bestalde, ez zen elkarrizketa kopuru-bera: lurraldearen tamainaren arabera egin ziren. 1984koan, berriz, 2.400 elkarrizketa egin ziren, 800 lurraldeko, eta eskualdeak¹ nabarmendu ziren.

Alderik nabarmenenak abiatze-adinean eta galdera-motetan daude. Horregatik, kasu askotan, gai desberdinak aztertzen dira; beraz, ezin da bi aldi horien arteko jarraipenik egin. Konparazio adierazgarria baino ezin da egin, ez neurgarria. Konparazio adierazgarria ere egin ezin daitekeen gaiak ez dira aipatuko. Dena den, zuzenean konpara daitezkeen gaiak ere badaude. Esate

1 1984ko laginketak eskualdeetan jarri zuen arreta: biztanle-entitateak 10 taldetan banatu ziren, neurriaren arabera; horietako bakoitzaren barruan puntu adierazgarrienak hautatu ziren, adineko eta sexuko kuotak ezarri, eta, azkenik, lurraldeen amaierako haztapena egin zen, EAEko guztizko ehunekoak ateratzeko. 2008ko laginketa, berriz, etapaka egin zen. Lehen unitateko familiak ausazko hautaketaren bidez aukeratu ziren; norbanakoak, berriz, sexu-, adin-, hizkuntza gaitasun-, lurralde- eta udalerrri-neurriaren araberrako kuoten arabera hautatu ziren.

baterako, konparatzekoak dira bi garai horietako etxe-ekipamenduak, nahiz eta 1984koan aintzat hartu ez zen adin-tartea —15 urtetik 18 urtera bitartekoak— garrantzitsua den. Beste gai batzuetan, ordea, parekatze-baldintzak kontu handiagoz hartu behar dira.

4.1. ZENBAIT GIZARTE-, EKONOMIA-, POLITIKA- ETA KULTURA-ALDAKETA

la 25 urtean EAEn izan diren kultura-ohituren antzekotasunak eta desberdintasunak ulertzeko, inkestaz bestelako zenbait elementu ere hartu behar dira kontuan, eta gizarte-, ekonomia- eta politika-aldaketak jorratu.

Egia esan, biztanle-kopuruak ia ez du aldaketarik izan 26 urtean (2.137.054 biztanle, 1981ean; 2.141.860, 2007an), baina barne-osaera aldatu egin da.

1981ean amaitu zen 1960ko eta 1970eko immigrazio-olde bizi haren integrazioa. 1975etik 1982ra 78.587 biztanle galdu zituen EAEk, industria-krisiaren eta geroko birmoldaketaren eraginez. Haietako asko beren jaioterrietara itzuli ziren, edo, besterik gabe, erretiratu¹ eta euren herrietara itzultzea nahiago izan zuten.

Orain dela hamarkada bat baino gutxiagotik pixkanaka berreskuratzen ari den jaiotza-tasari² esker, eta, bereziki, immigrazio berriari esker, berdindu egin da saldo negatibo hori, eta jada positiboan³ ageri da. Azkeneko bost urteetan, hazi egin da biztanle-kopurua. Denborarekin, gazteen tartea berreskuratuz egingo dute pixka bat, baina ezingo du etorkizuneko hirugarren adinekoen tartea orekatu, bizi-itzaropena geroz eta luzeagoa da eta. 2006an, % 30 ziren 55 urtetik gorako biztanleak —eta ehunekoa handitzen ari da—,

1 Ikusi Marta Luxanen *Evolución demográfica y movimientos migratorios*, J. Agirreazkuenagaren (koord.) *Historia de Euskal Herria - Historia General de los Vascos* liburuko VI. liburukian. LUR, 2004

2 Jaiotza-tasa orain dela urte gutxira arte ez da gai izan heriotza-tasa berdintzeko. Horren zergatiak: Faktore ekonomikoak, emakumea lan-munduan sartzea eta seme-alabak etxetik geroz eta geroago ateratzea eta ezkontzea.

3 Euskadin, kulturen arteko gurutzaketa garrantzitsua da: gaur egungo herritarren laurden batek soilik ditu lehenengo bi abizenak euskal jatorrikoak. Gaur egun, atzerritarrek ari dira hazten bizkorren, Europako Erkidegokoak barne. 2008an, 117.337 ziren, biztanle guztien % 5,4. Espainian, 5.268.762 atzerritar zeuden urte horretan bertan, hau da, biztanle guztien % 11,4. Immigrazio hori iraganekoa baino txikiagoa da, kultura gehiagotako jendea dago eta ez dago behin betiko egonkortuta.

15 urtetik 35 urtera bitartean dauden bi adin-tarteen batura baino ehuneko handiagoa, horiek biztanleen % 25 baitira¹. Biztanleria zahartzen ari da; nabarmena da hori. Eustatek kalkulatu du 2020rako biztanleen % 22,5 izango direla 65 urtetik gorakoak. Hogei urtetik beherakoek izango duten hazkundea baino dezente handiagoa izango dute 65 urtetik gorakoek. Izan ere, 20 urtetik beherakoak, gehienez ere, % 18,3 izatera iritsiko dira².

Egoera ekonomikoa ere erabat aldatu da. Egitura-krisiak jotako ekonomiak oraindik ere ez zuen argia ikusi 1984an. Egoera hartatik, ekonomia-oparotasunera igaro gara, nahiz eta atzeraldi-egoerak gurea ere jo, munduko gainerako ekonomiak bezala. Estatu espainiarreko oparoena da EAeko, familiako errenta erabilgarri gordinari dagokionez. Era berean, enpleguak ere nabarmen egin du gora 1980ko hamarkadaren aldean: 2005eko laugarren hiruhilekoan, langabezia-tasa % 6,4 zen, INEren arabera. 2008ko krisiaren eraginez, langabezia-tasa % 10,33 izatera igaro da 2009ko lehenengo hiruhilekoan, eta apurka-apurka hazten jarraitu du, industria-eta etxe-eskariak behera egin du eta. Hala eta guztiz ere, estatu espainiarreko txikiena da, 2009ko lehengo hilabeteetan % 17,36 izatera iritsi baita estatu osokoa.

Emakumeen biztanle-ehunekoak egonkorra izaten jarraitzen badu ere, emakumearen gizarte-rolaren aldaketa isilean gertatu den benetako iraultza izan da, eta gizarte osoaren ohiturei, portaerei eta balioei eragin die. Emakumeen enplegu-tasa (biztanle aktibo ez langabetuak) %58,1ekoa da 2009ko lehenengo seihilekoan. Portzentaje hau EB-27koen antzekoa da eta espainiar batez bestekoaren gainetik dago. Hala ere, gizonen enplegu-tasa %72,6koa da. Beraz, emakumezkoek gizonezkoek baino langabezia-tasa handiagoa dute.

Biztanleen hezkuntza-mailak ere jauzi nabarmena izan du. Ekonomiaren eta gizartearen eremuetan aplikatzeko ezagutza gehiago dago orain, eta, kulturaren eremuan, eskaintza konplexuagoei erantzun ahal zaie, kultura-konsumo zabalagoei aurre egin, edo ohitura kualifikatuagoak eskura daitezke.

1 Besteak beste, faktore hauen ondorio da: jaiotza-tasa txikia izatea, bereziki hamarkada honen hasiera arte, lan-ezegonkortasuna, gazteek dituzten kontratu-motak, eta etxebizitzaren prezio garestiak.

2 Eustat, 2009ko *Demografia proiektzioak*, www.eustat.es-en. 2006ko eta 2020ko adin-tarteak: 0-10 urteko biztanle-kopurua gutxitu egingo da; 10-19 urtekoa, ugartu; 20-40 urtekoa, gutxitu, eta gainerakoak, izugarri hazi. Kezkatzeko moduan zahartuko da, beraz, biztanleria, eta, orekatzeko, immigranteen beharra izango da.

Hiri-kultura garatzeak kutsu etniko handiko landa-kultura herrikoiairen tokia aldatu du, baina modurik adierazgarrienetako batzuk bereganatu, eta hiri inguruetara eta inguru jasoetara egokitu ditu. Hor kokatzen dira, esate baterako, bertsolaritza, kantautoreak edo rock *euskaldunak* izandako arrakasta. Dena den, aspaldiko ideologiak eta alderdiak dira arketipo horiei irmo eusten dietenak, eta ez gizartea bera, nahiz eta belaunaldi berriek galdu egin duten “errezel nazionalistaren”¹ funtzioa, edo eta espainolismo zaharkituak jo dituen sozialismoa eta eskuina.

Oraindik ere ez da bukatu jazarritako eta auto-babestutako kultura etnikotik egiteke dagoen kultura nazionalerako bidaia. Bidaia horrek hiru iragazki izango ditu: hiri-kultura sortzailearen bitartekotza, desafioetara moldatzeko iturria; errezelo politikoetatik at oinordetzan hartutakoari balio kolektiboa ematea; eta euskal izatearen soziologia berria, pluraltasuna eta dibertsifikatutako memoria kolektiboak ezaugarri dituela.

Gizarte moderno eta industriaz haraindikoa bihurtze horrek etxe-ekipamendu hobea ere ekarri du. Bi aldaketa ekarri ditu horrek: nazioarteko kulturaren lagin asko eskuratu ahal izatea, eta, era berean, kanporako proiektzioa izatea. Edonola ere, ez dezagun ahaztu teknologia-bitartekaritza tresna bat baino ez dela gizarte-bitartekaritza (sare) berrietarako, hizkuntza-gurutzaketarako, kultura- eta komunikazio-adierazpenetarako, sarbideak ugaritzeko...

Biztanleen hizkuntza-gaitasuna ere nabarmen aldatu da. 1981ean, erdaldun elebakarrak biztanleen bi heren ziren (% 65,9); elebidun pasiboak, % 12,2, eta elebidunak, % 21,9. 2006an, berriz, biztanleen erdiak ziren erdaldun elebakarrak (% 51,5); % 18,3, elebidun pasiboak, eta % 30,1, elebidunak². Datu horrek, oso positiboa bada ere, ez du bermatzen bere neurrirako gizarte-erabilera, ezta gutxiagorik ere. IV. mapa soziolinguistikoa kontuan hartzen bada, —4-15 urte bitartekoak ere sartzen dira—emaitza hau izango genuke: % 45,2, elebakarrak; % 17,3, elebidun pasiboak, eta % 37,5, elebidunak. Baina ohitura-inkestak 15 urtetik gorakoak hartu dituzenez, inkesta soziologikoa soilik hartu da kontuan, eta ez mapa.

Alde horretatik, beste hainbeste aldaketa kualitatibo ekarri dituzte 80. hamarkadaren hasierarekiko euskarazko komunikabideek —

1 Ander Gurrutxaga *La mirada difusa. Dilemas del nacionalismo*. Alberdania 2002

2 Ikusi Eustaten eta Kultura Sailaren 2006ko “EAEko IV. Inkesta Soziolinguistikoa”. Gasteiz, 2006. Errolda 10 urtean behin egiten da, eta inkesta, 5 urtean behin.

idatzizkoak, irratiak eta telebista— eta gaztelaniazko sistema publikoa izateak. Garai hartan ez zen *Egunkaria* edo *Berria*-rik, ez eta ia EITB ere, 1983an, urtebete lehenago, jaio baitzen. Irrati batzuek eta besteek denbora behar izan zuten errotzeko, eta EITBren bi kanal nagusiak, berriz, 1986an finkatu ziren behin betiko.

Kultura-eskaintzan izandako aldaketa ere nabarmentzekoa da. Kultura-eremuan, eskaintza ez du eskariak sortzen; benetako eskaintzei erantzuteko sortzen dira ikus-entzuleak. Horrenbestez, kultura-proposamenak eta -zerbitzuak hobetzen badira, interes-, kontsumo-, ohitura- eta praktika-aukera kulturalak ugartu egingo dira.

Gaur egun, egia esan, eskaintzek ez dute 1984koen antz handirik. Askok dibertsifikatu dira, mix sortzaileek era askotako gozamina ahalbidetzen dute, eta ez dira toki-eremura mugatzen. Liburutegi, museo eta kultura-guneetako zerbitzuek iraultza erabatekoa jasan dute baita formatu guztietako kultura-ekipamendu publikoak eta pribatuak ere. Era guztietako programazioak daude, eta bakoitzak bere ikus-entzuleak bilatzen ditu.

Giza arimaz fidatzen bagara, pentsatu behar da ekuazioak honelakoa izan behar duela: eskaintzak zenbat eta kalitate eta aldaera gehiago, eta eskariak ezagutza gehiago izan, orduan eta kualifikazio handiagoa duten ikus-entzule gehiago.

4.2. JARRERAK ETA BALIO OROKORRAK

Kultura-kontzeptua bera garai eta leku bakoitzeko nortasun pertsonalaren eta kolektiboaren esanahia eraiki eta eratzeko sistema den aldetik, kultura-ohituratik edo -erabileratik dezentez harantzago doa; finean, kultura-ohitura kulturaren adierazpen bat baino ez baita. Aldaketak ez dira soilik objektiboak; subjektiboak ere badira, eta kultura-ohiturak baino askoz ere orokorragoak. Kulturei eragiten die, eta balio-aldaketen eta errealitatea hautemateko modua aldatzeko balio dute. Ezin esan aldaketetatik datozenik, baina kultura-ohiturak, -praktikak eta -erabilerak jarrera eta gizarte-balioen aldaketa orokorrekin erlazionatzen dira.

Kultura-harreman globaletik datozen komunikazio biziak, kultura-ohitura berriek eta balioen aldaketak zein errealitatea hautemateko moduak eragiten dituzte kulturak. Gizarte-balio horiek pertsonen, objektuen eta zeinuen¹ munduko fluxuei —migrazioei eta turismoari— atxikitzen zaizkie, eta, beraz, gehien ekoizten, igortzen, bitartekaritza egiten eta erabiltzen duten zentroek gidatzen duten eta baita globalizatuta zein instituzionalizatuta dagoen munduko eraginak, irudiak, ideiak, modak, markak, ikonoak, bizipenak eta abar dakartzate ere, oso mundu desberdina irudikatuz.

Mundializazio hori ez da berria historian zehar. Pentsa dezagun erlijioetan, inperioetan, ideologia nagusietan, munduko merkataritzan, estilo arkitektoniko arruntetan, garai bakoitzean nagusitu diren hizkuntzetan...Baina gaur egun bai dela bereziki bizia, orokorra, aldiberekoa, deszentralizatua, teknologizatua, komertzializatua, nazioartekotua, transnacionalizatua, sozialki hedatua, zabaldua, gainasea, mestizatua, geroz eta segmentatuagoa, nahasiagoa, zatikatuagoa...

Ondorioa, mundu homogeen baten ordean, mundu heterogeenoa da, kultura-errealitate nazionalak baitira oinarri. Eta nahiz eta esanahia eta gauzak jasotzeko modua kultura bakoitzak eraikitzen duen, eta horrek jarraitu izaten gizarte-identifikaziorako seinalerik nabarmenena, eremu global horrek birmoldatu egiten du etengabe erlaziozko testuingurua eta tokian tokikotik harantzago doan esanahia.

Edonola ere, aldatu egin gara. Espainiarekin alderatuz, oso gizarte-nahasketa aurreratua eta aurrerakoia dugu, batetik, eta herri-izaera eta -sentipen handia, bestetik². Hala eta guztiz ere, individualismoa nagusituz doa. Nahasketa bitxia da: alde batetik, gizabanakoan sinesten dugu, hedonismoan, auto-errealizaziorako askatasuna dugula uste dugu. Baina, beste aldetik, ez gara sistemaz fidatzen, bizimodu ona emango diguten esparru publikoak eskatzen dizkiogularik. Gizarte zibil indartsu baten isla izan daiteke, gobernantza eta partaidetza eskatzen dituen, baina hedatzen ari den individualismoarena ere bai.

1 Ikusi David Held eta beste batzuen *Transformaciones globales. Política, economía y cultura*. Oxford University Press. Mexiko 2002 (401-465 orrialdeak)

2 "Encuesta europea de valores en su aplicación a España y Euskadi"ren interpretazio askea da. Deustuko Unibertsitateko Balioen Azterketarako Taldeak babestu eta Javier Elzok aurkeztu zuen, 2009-03-04ko Innobasquen.

Bizitzaren eta tradizioaren eremuetan, lana, familia eta lagunak balioesten dira, bereziki. Baina esperientziak emandako balioei esker, asko baloratzen dira aisialdia eta arazo kolektiboak (politika), eta, era berean, uztartu egiten dira postmodernitatearen gaineko norberaren errealizazioak duen balorazioarekin eta modernitateak berekin dakartzan publikotasun- eta kolektibotasun-zentzuarekin. Aldaketarik handiena da, hala ere, bizitzak ez duela arreta lanean soilik jartzen, eta beste gauza batzuk ere baloratzen direla. Horrek ezagutzari, kulturari eta berrikuntzari zabalik dagoen gizartearen jarraitutasun-baldintzen eta heldutasunaren ikuspegi osoagoa eta orekatuagoa ematen digu.

Lanak duen balioaren kontzientziak, kontratuzko *do ut des* gehiago eskatzean du oinarria. Bereziki baloratzen dira, soldata bera baino gehiago, onarpena (lanean ondo tratatzea eta lan-baldintza onak izatea, familia-bizitzarekin bateratu ahal izatea, meritokrazia...), lana interesgarria izatea, baterako erabakiak hartzea, ikastea, lan-justizia... Esfortzu pertsonalak eta gaitasunak administratibotik espero litekeen baino onarpen handiagoa dute, baina, aldi berean, babes kolektiboari garrantzi handia ematen zaio. Langabetua ez da Espainian bezain gaizki hartzen, eta desberdintasunaren zergatiak modu arrazionalagoan ulertzen dira.

Euskal fededunen erlijiozkotasun tradizionala beste leku batzuetan baino askoz ere gehiago higitu da, eta laikotasuna eta haren balio arrazionalak onartu dira. Familia-eredua aldatzeak eta seme-alaba gutxiago izateak, osterak, gurasoek eta seme-alabek elkarrenganako dituzten betebeharrak Espainian baino konpromiso gutxiago izatea eragin dute, eta auto-exijentzia pertsonal handiagoa.

Immigrazioa beste leku batzuetan baino gehiago errespetatzen da —bizitako esperientziagatik, seguruenera—. Etorri nahi duena hartzeko eta haren ohiturak errespetatzeko irekiagoak gaude, baina immigrazioak izan ditzakeen lan-, kultura- eta ongizate-ondorioei beldur gehiago diegu.

Norbanakoaren konpromisoa ezagutzen (bizilaguna, auzoa, herrikideak...) edo baloratzen (giza generoa, europarrak...) dugun horretan proiektatzen da, eta zerbaiten partaide garen sentimendua Espainian baino handiagoa da, hau da, bizi garen herrikoak, erkidegokoak —Euskadikoa— sentitzen gara. Ez dugu, ordea, Espainiakoak izatearen sentimendua (gutxi batzuk baino ez), eta are gutxiago Europakoak izatearena. Harrigarria bada ere, ez dago europartasun sentimendu handirik.

Alderdi instituzionalari dagokionez, ez dugu sistemari buruzko iritzi oso idealista; begien bistakoak diren zerbitzu-sistemetan (osasun-zerbitzua, gizarte segurantza eta irakaskuntza) dugu konfiantza, baina errezeloz hartzen dira polizia, prentsa, justizia, armada, Espainiako Gobernu eta EB bera ere.

Gizarte-portaeren alorrean, Espainian baino ikuspegi aurrerakoia nagusitzen da, dibortzio, abortu, eutanasia, suizidio, heriotza-zigor edo sexu-askatasunari dagokienez. Bitxia bada ere, Espainian baino okerrago onartzen dira bikotez kanpoko abenturak. Onartzen dira ugalketarako teknikak edo genetika-teknikak; ez, ordea, elikagai transgenikoak. Zerga- edo eskubide-iruzurra edo -gezurra gaitzetsi egiten dira.

Ingurumen-arazoen kezka handia sorrarazten dute; espezie-harraparitzarekiko jarrera oso kritikoa da, baina ez da katastrofismora jotzen, aurreranzko jarrerara baizik (hobetzen laguntzeko jarrera izaten da, bai norberak bai dirua emanez laguntzekoa).

Oso normala da bidegabekeriengatik asaldatzea (sinadurak biltzea, manifestazioak egitea...). Horrek esan nahi du gizarteak bereziki zelatatzen dituela botere publikoak.

Oraindik ere irauten du terrorismoa justifikatzen duen ehuneko txiki batek (% 9; Espainian, berriz, % 3). Gaitzetsi, berriz, % 88k gaitzesten du EAEn; Espainian, % 96k.

Datu honek ez du lausotzen sintesi ezin hobea, ditugun hiri-baloreei, fedegabezia errealistari eta komunitarismo eta indibidualismoaren arteko nahasketari dagokienez.

4.3. ETXE-EREMU ABERASTUA

Etxe-eremuak, bai norbanakoarenak bai familiakoak, atera die aldaketa teknologikoei eta komunikaziozkoiei etekin gehiena. Gizarte-ugalketako eremua (demografikoa, ezinbestekoa, transmisiozkoak, laguntzekoa eta babestekoa...) soilik izatetik,

ekoizpen-eremu (ez-materiala) izatera ere igaro da, kasu askotan, eta, bereziki, beste etxe eta eremu publiko batzuekin harremanetan dagoen terminal aktibo izatera. Eremu publikoaren sareko parte da, jada.

Etxeetako hiperekipamendua

1984ko inkestan “kultura-hardware” zenaz ulertzen zena goitik behera aldatu da, baina uste baino gutxiago, hala ere, telebistak eta irratiak etxe-ekipamenduen errege izaten jarraitzen dutelako. Etxeen % 95-99tan daude aparatu horiek; hori bai, orain askoz ere gehiago daude etxeko, ia banakakoak dira, eta terminal gisa funtzionatzen dute.

Hain zuzen ere, 1980ko hamarkadako eskaintza-gabezia hura kableak¹, LTDak (% 39 inkesta egin zen unean eta Impulsak emandako datuek berretsia²) eta Internet bidez ikus eta entzun daitezkeen telebistak edo irratiak bete dute. Hala, bakoitzak bere menuak aukeratzeko geroz eta aukera gehiago izango dute, gazteek, bereziki.

Garai bateko musika-ekipamenduak orokortu egin dira (% 19 izatetik % 80,1 izatera igaro dira, eta horiei MP3 eta 4-ak gehitu behar zaizkie: % 53,4 dira ekipamendu horiek). 1984an bakan ikusten ziren bideoak ere (% 8) ugaritu egin dira (% 66,2), eta, gero, ia erabat alboratuta geratu dira DVDak (% 79,2) ekarri dituen abantailengatik. 2008an, etxeen % 83,4k zituzten CDak. Teknologia hori ez zegoen 1984an, eta gaur egun atzera egiten ari da hori ere. Argazki-kamerak etxeen % 71k zituzten 1984an; gaur egun, berriz, telefono mugikor eta argazki-kameren artean, etxe gehien-gehienek. Gauza bera gertatu da “aparatu informatikoekin” ere: 1984an, etxeen % 4k zuten aparatu informatikoren bat; gaur egun, etxeen % 60k dute PCa.

Baina aldaketa telefono mugikorrek —funtzio anitzeko terminal bihurtzen ari da (komunikazioak, sareak, musika, argazkiak, internet,

1 Arrakasta bereziki handia izan du Euskadin, Euskaltelek egindako eskaintza laukoitzagatik: telefono finkoa-mugikorra-kablea-internet

2 Impulsaren “2008ko LTDren Urtekaria” izeneko txostenak —Madril 2009 (115-127 orrialdeak)— adierazten du 2008ko azken hiruhilekoan % 37,6 zela LTDaren ekipamendua (gehiena, gainera, zapper-aldaeran, ez interaktiboa), eta ikusi, berriz, pantaila-kuota eran, % 9,1ek ikusten zuela. Ehuneko horiek oso urrun daude Madrileko ehunekoetatik (% 57,9 eta 22,9), Kataluniakoetatik (% 55 eta % 19,4) eta Espainiako batezbestekotik (% 45,2 eta 15,6). Kablea Euskadiko etxeen % 40k dutelako gertatu da hori, eta baldintza horietan ezin zen LTDaren programazioa lehiakorra izan.

telebista... eskaintzen ditu)— eta Internetek ekarri dute —deskargak edo *streaming*-ak DVD-sistema kolokan jartzen hasi dira—. Izan ere, biztanleen % 59,1ek zuen ekipamendu hori 2008an. Erabili ere geroz eta denbora gehiagoan erabiltzen dira, batez ere gazteek, eta geroz eta gehiago, gainera, programazio-alternatiba gisara (Youtuben sartuta, gizarte-sareen bidez eta abar) Internetera konektatzen diren 10etik 8k banda zabaleko konexioa dute, hau da, etxeen erdiek ia. Are gehiago, 10etik 4k erabiltzen dute Internet kultura-kontsumorako (kultura-edukiren bateko webguneak ikusteko, informazioa jasotzeko, musika entzuteko, sarrerak erosteko, bideoak ikusteko, musika erosteko...). Hala ere, gehiago erabiltzen dute, oraindik ere, gizonek (% 44,3) emakumeek baino (% 34,2). 15-25 urteko gazteek erabiltzen dute gehien Internet; % 65,3k, alegia.

Liburuak, berriz, ia guztiek dituzte (% 100ek), eta etxeen % 64,7k 50 liburu baino gehiago dituzte. Igoera nabarmena izan du 1984ko egoerarekiko. Orduan, biztanleen % 14k ez zuen libururik, edo 10 liburu baino gutxiago zituen, eta % 55ek 50 liburu, batez beste.

Euskadiko ekipamendu-ereduaren gaur egungo irakurketa egiten badugu —gizarte aurreratuenekin ez du alderik— euskal gizartea komunikazio globalaren fluxu eta sareetan sartu dela nabarmentzen da, eta aldatetara zabalik egotea ahalbidetu duten ongizate- eta prestakuntza-mailak izan dituelako gertatu dela hori, eta, era berean, erkidegoaren tamaina txikia eragingarria gertatu dela portaera harkorra eta, era berean, emankorra izateko.

Izan ere, gaur egun dauden ekipamenduek etxe bakoitza transmisiozko fluxu interaktiboa, eta ez soilik hartzekoa, izateko gaitasuna duen terminal bihurtu dute. Baina batetik besterako aldaketa, hau da, igorle nagusiaren eta hartzailearen arteko komunikazio hierarkizatutik komunikazio horizontal, interaktibo eta aberasgarrirako aldaketa, jarrera nagusi gisa, oraindik benetan egin ez den gizarte-jauzia da. Edonola ere, jauzi hori ari dira gazte-belaunaldiak egiten, estimulu eta trebetasun izugarria baitute; baina edukiak eta kalitatea pilatutako kultura-kapital pertsonalaren araberakoak dira, eta hor, oraindik ere, ahul

Telebista-ikuslego egonkorrek baina sakabanatuak; irratia, atzeraka; eta eduki-aldaketak

Telebistako programa orokorrek —oro har, kostu handikoak— eta goizeko irradi-magazinek jarraitzen dute nagusi izaten. Iritzi publikoa sozializatzeko eta prestatzeko tresna nagusiak izan dira horiek azken hamarkadetan¹. Ikus-entzuleei —segmentatuak—

¹ Horixe gogorarazten du beti Dominique Woltonek *Elogio del gran público* lanean. Gedisa, Bartzelona 1992.

lotutako eskaintza geroz eta handiagoa dagoenez, gainbehera etortzen hasiak dira ikus-entzule kopuru handiak bildu edo federatu dituzten irrati eta telebistako programak, eta telebista zatikatzen ari dela adierazten digute. Nabarmena da tentsioa.

Telebista ikustea eguneroko ohitura zen jada 1984an (% 77k ikusten zuen, inkestaren arabera; hala ere, EGMk % 90ek baino gehiagok ikusten zuela zioen). Orduan, 15 ordu erabiltzen ziren astean telebista ikusteko, batez beste; gaur egun, berriz, 16,8 ordu. Gaur egun, eguneroko ohitura da biztanleen % 92rentzat, 2008ko estatistikaren arabera. Irratia entzutea, berriz, gizarte-ohitura zen % 77rentzat (EGMk dio % 60 baino gehiago zirela garai hartako entzuleak), eta astean 21,5 ordu entzutetik 16 ordu entzutera pasatu gara. Irrati-entzuleak emakumeak dira, nagusiki (% 80 emakumeak, eta % 73, gizonak).

Operadoreetan ere izan da aldaketarik. 1984an, *Telenortek* interes gehiago pizten zuen (% 47) *Euskal Telebistak* baino (% 41) (orduan, artean, euskaraz soilik emititzen zuen). *Ser* katea (% 63) ez ezik, *Radio Popular* eta *Radio Nacional* ere (% 46 eta 38, hurrenez hurren) *Radio Euskadi* (% 18) baino askoz ere gogokoago zituen jendeak (garai hartan, sortu berria zen *Radio Euskadi*). Edonola ere, ez gaitezen engaina. Egoitza nagusia Madrilen duten operadore zaharren (*Ser*, *Cope*, RTVE...) zein berrien batuketa (*Tele 5*, *Antena 3*, *Cuatro*, *Sexta*, *Punto Radio*...) da nagusi bai eskaintzari bai ikus-entzule kopuruari dagokienez.

Telebista-programen hobespenak ere aldatu egin dira, pixka bat. Egia esan, datuak ez dira oso konparagarriak, eta erabili diren metodologia desberdinek —zabalegia eta zehaztugabeegia 1984koan— zantzu batzuk ematen baino ez dute uzten¹. Albistegiak dira gaur egun generorik gogokoena (% 77). Filmek % 76ko hobespena zuten 1984an; gaur egun, berriz, %47,4koa; serieek, % 60koa; gaur egun, % 42koa.

Haurrentzako programek ikusle asko zituzten (% 21) garai hartan; gaur egun, berriz, ez (% 2,8, eta marrazki bizidun gisara, gainera), kanal espezializatuetan eta autonomikoetan izan ezik. Antzerkia ere programatzen zen orduan (% 37), baina, gaur egun, desagertu egin da telebistatik. Magazinak zituen jendeak gustuko (% 55ek), orduan; 2008an magazin horiek bereizi, eta *reality show*ak, bihotzeko programak, elkarrizketak, hizketaldiak eta magazinak ageri ziren. Azpigenero horiek guztiak batuko

1 Deigarria bada ere, 1984koan ez dira albistegiak genero gisa ageri, akats batengatik; seguruenera, "kulturalen" barruan sartu ziren, hobespenetan % 66 deigarri eta ezinezkoa lortu baituzten (gaur egun, % 3,4). Kirolak ere ez dira ageri (gaur egun, %23k ditu gogokoan). Eremu hori neurtzeko garai hartan erabili zen taxonomia oso oinarritzkoa zen; ez zegoen gaur egun EGMk eta Sofresek duten esperientziarik.

bagenitu, % 20,3 emango ligukete. Ez da gutxi! Lehiaketak, nonahi ageri badira ere, % 12,2ri soilik interesatzen zaizkiela dirudi; orain 24 urte, berriz, % 40ri.

Emakumeen eta gizonen arteko gustuei dagokienez, badaude konstante eta aldaketa batzuk. Telebista bidezko zinema-ikusleak gehiago dira oraindik gizonezkoak emakumezkoak baino, baina aldea bi puntutan gutxitu da (gizonezkoen % 49,6ri atsegin zaizkie telebista bidezko filmak, eta emakumezkoen % 47,6ri); 1984an, 5 puntuko aldea zegoen. Emakumeek, orain, nahiago dituzte serieak, eta gizonen eta emakumeen arteko aldea areagotu egin da alor horretan. 1984an, % 64 eta % 56 zen emakumeen eta gizonen arteko aldea —8 puntukoa—; gaur egun, 18 puntukoa: % 50,9 emakumeek, eta % 32,9 gizonek. Lehiaketekin antzeko zerbait gertatu da (1984an, emakumeen % 48k zituen gustuko, eta gizonezkoen % 31k; gaur egun, emakumeen % 17,7k eta gizonezkoen % 6,5ek). Are handiagoa da aldea kirolen arloan, baina alderantziz; izan ere, emakumeen % 7ri soilik interesatzen zaizkio kirolak, gizonezkoen % 40aren aldean.

Gazteak (18-34 urte bitartekoak) ziren telebista gutxien ikusten zutenak 1984an (% 71), gainerako taldeen aldean. Nabarmentzekoa da 60 urtetik gorakoen % 86k ikusten zuela telebista egunero. Gaur egun, ehuneko hori 35-55 urte bitartekoek gainditzen dute, filmak ikusteari dagokionez, eta —horra berrikuntzetako bat— serie batzuk “irentsi” egiten dituzte (*Perdidos*, *Héroes*, *Los Soprano*...) 15-24 urte bitartekoek (% 74,5) eta, atzetik, 25-34 urte bitartekoek (% 60,7). 15-24 urtekoek kirol-arloan duten lidergoa ere deigarria gertatzen da (% 25), bai eta lehiaketekiko zaletasuna ere.

Gazteek irratia erabiltzeko duten modua ere aldatzen ari da. 1984an, irradi-kontsumitzaile handiak ziren —18-24 urteko gazteen % 74k entzuten zuen irratia, eta 25-34 urte bitarteko % 78k—; gaur egun, berriz, gainbehera dator, *irradi-formulak* izanagatik ere. Musika beste era batera kontsumitzen delako gertatu da, batez ere, hori; hau da, aurre-grabatutako edo Internetetik jaitziko musika kontsumitzen delako. Baina irradian musika gehien entzuten dutenak izaten jarraitzen dute gazteek (% 86,9). Kirolak ere gustuko dituzte (% 19,3), eta gizarte klizeaz aparte, berriak ere entzuten dituzte (15-25 urte bitartekoek % 38,3k, eta 25-34 urte bitartekoek % 54k), baina gainerako adin-tartetakoek baino dezente gutxiago .

Ez dira oso konparagarriak euskarazko irrati eta telebistaren 1980ko hamarkadako erabilera-datuak; batetik, jarri berriak zirelako,

eta, bestetik, erabilerei segimendua egiteko moduek gaur egungo esperientziarik ez zutelako. % 20k zioen astero entzuten zuela euskarazko irratia, eta % 10ek, egunero; % 79k, berriz, sekula ez zuela euskarazko irratirik entzuten esaten zuen. ETBri¹ buruz, 1984ko inkestak zioen —bezperako oroitzapena neurtzeko metodoa baztertu eta neurritz kanpo baloratuta— biztanleen % 32k ikusten zuela egunero, eta astean 6-7 bat ordu ikusten zela jo zuen.

2008an, ordea, 10 euskaldun elebidunetatik 7,6k entzuten zuen euskarazko irratia; kontsumo-ehunekoa, batez beste, % 36,1 zen lanegunetan, eta % 27 jaiegunetan. Telebistari dagokionez, 10 telebista-ikusle elebidunetatik 7k kontsumitzen zuen euskarazko telebista (ikus entzuleen % 25ek); kontsumo-denbora, berriz, % 30 ingurukoa da.

Irratiak eta telebistak duten gizarte-garrantzia berretsi egiten da datu horiek ikusita, kultura- eta komunikazio-erabilera eta -kontsumo modalitate berriak izanagatik ere. Esandakoa frogatzeko, kontuan hartu behar da:

- Euskadiko irradi eta telebista sistema mugatua eta mendekoa da, eta ez dator bat instituzionalizatuta dagoen, European kultura-proiektu bat duen eta irradi-entzule asko dituen —Espainiako batez bestekoa baino askoz ere handiagoa (% 54,7)— gure herrialde honekin. Telebista entzuleak konbentzionalak dira. Hemengo eskaintza-sistema behar handiak asebetetzetik eta informazio- eta komunikazio-eskaeretatik urrun dago, baina ezarri den kate-sistemak hartu duen jarrerak zaildu egiten du hura garatzea.
- Geure komunikabideak hobesten dituzte ikus-entzuleek, egoitza estatu espainiarreko hiriburuan dutenen aldean. EITB da lider, talde gisara, eta Radio Euskadi albistegiaren atalean, eta ETB-2k ere ikus-entzule asko ditu. Baina komunikabide nagusien gain-eskaintzak galarazi egiten du hainbat atalase gurutzatzea, eta, seguruenera, lekua galdu egingo dute, estatuko eskaintza zabaltzen den heinean, LTDaren Espainiako araudiak aurreikusten duen bezala. Horregatik, oro har, minoritarioak dira hemengo irradi- eta telebista-komunikabideak, estatu espainiarreko hiriburuan egoitza duten ikus-entzunezko komunikabideak gailentzen baitira. Irratian, estatuko kate pribatu eta publikoek dute entzuleen % 70, gutxi

1 Gogoratu, berriz ere, kate bakarra zegoela —euskaraz—, eta ETB-2 jaiotzearen, 1986an, ETB-1 izatera igaro zela.

gorabehera, eta FM-ko irrati komertzial gehienak kateek hartu dituzte (legezko 35etatik 23). Telebistan ere, gauza bera: estatuko kate pribatu eta publikoek dute ikus-entzuleen % 70.

- Irrati eta telebistako eragile garrantzitsuen berezko koadroak ere badu gabezia nabarmenik. Nolanahi ere, talde finkatu eta profesionalak dira: EITB, Vocento, kable bidez komunikabideen sisteman sartu den Euskaltel, probintzietako irrati-kate arrakastatsu batzuk —Bizkaia Irratia, Nervión/Gorbea irratia, Donostiako Radio Popular, Hamaika etorkizunean (LTDren bidez iritsi den tokiko eskaintza berria)—...
- Nabarmentzekoa da defizitarioa izanagatik ere, euskara ageri dela bai irratian (EAEko entzuleen % 10aren bueltan dabil, eta pilotutako 200.000 entzule izatera iritsi da, baina FM pribatuetan oso eskaintza mugatua egiten da euskaraz, hutsaren parekoa, eta horien euskarazko eskaintza ez da irratsaioen % 3ra iristen), bai telebistan (ikus-entzuleen % 6, bereziki ETB1 eta ETB3-ri esker), nahiz eta toki-telebistetan ohikoagoa izan euskara. Komunikabideetako euskara ezagutza (% 35-50 artekoa) eta erabileratik oso behera dago, eta eskaintza- eta kostu-arazoak sortzen ditu. Toki-eremuko LTDren erregulazio berriak arindu egin nahi ditu arazo horiek.

Egunkari asko irakurtzen da; aldizkariak, berriz, geroz eta gutxiago

Gure herri ikasi, bizi eta politizatu honetan, ezinbestekoa da egunkariak irakurtzea, informazioa analizatzeko eta iritzi publikoa eratzeko. Estatu espainiarreko autonomia-erkidegoetatik, gehien irakurtzen duena da EAE, alde handiagatik, gainera, eta Europako zenbait herrialdetan baino gehiago ere irakurtzen da.

1984an, jada, biztanleen % 54k irakurtzen zuen egunero egunkaria, eta % 10 zen soilik sekula irakurtzen ez zuena. Garai hartan, *El Correo Español* zen gehien irakurtzen zen egunkaria; *Deia*, berriz, *Diario Vasco* beste irakurtzen zen, eta *Egin*, 1998an epailearen aginduz itxia, biztanleen % 19k irakurtzen zuen; La Gaceta birmoldatzen ari ziren, eta gipuzkoako *La Voz de Euskadi* berriz, porrot eginda.

2008an bestelakoa da egoera. Gehiago irakurtzen da, baina azken urteetan gelditu egin da egunkari-hedapena eta -irakurketa. Biztanleen % 58,4k irakurtzen du egunero, eta astean 3-4 aldiz irakurtzen dutenak gehituz gero, biztanleen % 66,7 dira ohiko egunkari-irakurleak (dena den, biztanleen % 86,6k irakurtzen du egunkaria astean behin edo beste). Biztanleen % 13,3k, aldiz, ez du sekula irakurtzen. Ohiko irakurleetatik, gehiago dira gizonezkoak (% 73,1) emakumezkoak baino (% 60,7). 15-25 urte bitarteko gazteen % 54,5ek du lotura eguneroko prentsarekin. Ez dago alde handirik hiri eta herri txikien artean, egunkariak irakurtzeari dagokionez. Ohitura kolektiboa da.

Era beran, elebidunak dira prentsa gehien irakurtzen dutenak (% 88,3k); horien interesa, kultura- edo ikasketa-mailaren berri ematen digu datu horrek. Dena dela, elebidun-irakurleen % 33,8k soilik irakurtzen du euskarazko prentsa. Hau da, biztanleen % 9k irakurtzen ditu euskarazko berriak. Ez da harritzekoa, dena den; izan ere, euskarazko komunikabide bakar bat dago, eta gainerakoak ia ez dira elebidunak, Gara izan ezik, eta zati baten Noticias taldeko egunkariak (*Deia, Noticias de Gipuzkoa eta Noticias de Álava*).

Aldizkarietara dagokienez, elebidunen % 16,6k soilik irakurtzen ditu euskarazko aldizkariak.

1984an, biztanleen % 62k irakurtzen zuen nahiko maiztasunez aldizkariren bat, eta % 38k, berriz, sekula ere ez. Gaur egun, biztanleen % 43,5ek ez du sekula edo ia sekula aldizkaririk irakurtzen, eta % 56,5ek hilean behin-hirutan. Atzerakada egon da. Gizonezkoek baino emakume gehiagok irakurtzen dituzte aldizkariak (% 38,6 eta % 40,4, hurrenez hurren). Topikoek besterik badiote ere, 15-25 urte bitarteko gazteak dira aldizkari gehien irakurtzen dutenak (% 47,3).

Estatuko prentsak % 10 eskas soilik hartzen du. EAEn, bertako talde bat da nagusi (*Vocento*-El Correo). Nahiz eta “español” hitza bere izenburutik desagertu den, gero eta estatalagoa da talde hori (estatu espainiarreko prentsa eta telebista), eta ideologia kontserbadorea du. Hedapen orokorraren % 75 du, asko irakurtzen den herri honetan, eta EAeko hiru lurraldetan da nagusi. Euskal abertzaletasunak ez zuen asmatu 1970eko eta 80ko hamarkadetan: prentsa-sistema alderdikoi edo doktrinalaren alde egin zuen, Europako prentsa-sistema konbentzionalen eredu ideologiko-komertzial-profesionalaren alde egin ordez (*El País eta El Correo*, barne).

Liburu gehiago irakurtzen dira, baina ez geroz eta gehiago

1984an, % 38k ez zuen sekula libururik irakurtzen; 2007-08an, berriz, % 20,3k, ia erdiak. Orain 25 urte, biztanleen % 62k irakurtzen zuen zerbait edo asko, noizean behin edo egunero; 2008an, % 68,5ek. % 56k irakurri zuen azken hiruhilekoan liburu bat, bere aisialdian, eta % 45,7 ohiko irakurlea edo hilean behingo irakurlea da. Hobera egin dugu, batez ere, emakumeei esker.

Irakurketa emakumetu egin da. 1984an, ehundik 19 gizonek eta 19 emakumek irakurtzen zuten egunero; 2008an, emakumeen % 48,5ek eta gizonen % 42,7k irakurtzen zituzten aisia-liburuak. Emakumeen gizarte-baldintzetan izan diren aldaketa handien berri ematen digu horrek, nahiz eta oso urrun egon gizarte-onarpenean irudikatzen.

Konparagarriak ez diren arren, 1984an, “hiru euskal hiritarretatik batek urtean 10 liburu baino gutxiago irakurtzen ditu. Biztanleen beste laurden batek 50 libururaino irakurtzen ditu, eta % 7k aise gaintzen du kopuru hori” (80. orr.). 2008an, berriz, ohiko irakurleek (% 45,7k) hilean 1,8 liburu irakurtzen dituzte, hau da, urtean 20 liburu baino gehiago¹.

Irakurleen adin-tarteak ere aldatu egin dira. Orain 25 urte, 18-24 urtekoak ziren irakurleenak (% 28), eta, atzetik, 25-34 urtekoak (% 23). Gaur egun, 35-55 urtekoek irakurtzen dute gehien, eta, atzetik, 25-35 urtekoek. Adin-tarte guztietan % 50 baino gehiago dira irakurleak. Gazteenek (15-24 urte bitartekoek) aisia-liburuak irakurtzeko interes handirik ez badute ere —badituzte interes deigarriagoak—, % 42k irakurtzen dituzte liburuak.

Habitatak ere badu zeresanik. 50.000 biztanle baino gutxiago dituzten herrietako biztanleek, prentsarekin ez bezala, hirietakoek baino liburu gutxiago irakurtzen dituzte. Hamar puntuko aldea dago batzuen eta besteen artean.

Laburtzeko, 1984ko datuekin alderatzeko, 2008ko estatistikan lehen mailako ikasketak bukatu ez zituztenak eta bukatu zituztenak

¹ Batezbestekoak aplikatzen badira, biztanleen % 26,2k (hau da, ohiko irakurleen % 57,5ek) 12 liburu irakurtzen ditu urtean; % 11,6k, 24 liburu, eta % 7,7k, 36 liburu baino gehiago.

batzen baditugu, ikasketa gutxien dituztenen eta unibertsitateko ikasketak dituztenen arteko aldea, liburu-irakurketari dagokionez, laburtu egin dela ikusten da, eta lehenengok % 29ko irakurketa-maila dute (batezbesteko aritmetiko hutsa), eta, bigarrenok, % 51,2koa. 1984an handiagoa zen aldea: % 12 ikasketa-gabekok, % 41 unibertsitate-ikasketadunek (hiru bider gehiago).

Euskarazko liburuen irakurketari buruz, 1984an biztanleen % 6k zioten euskaraz irakurtzen zutela; hala ere, ez dago datu oso zehatzik. Bada, datu hori egia bada, ez da aldaketa handirik gertatu urte guzti horietan. 2008an, 15 urtetik gora dituzten eta gainera azken hiruhilekoan edozein hizkuntzatan libururen bat irakurri duten elebidunen (% 66,7) % 35,7k datu hau emango liguke: elebidunen % 24k, hau da, Euskadiko biztanleen % 7,1ek, irakurtzen ditu euskarazko liburuak. Datu kezagarria da; izan ere, ikastoletatik eta euskal eskola publikotik pasatu den belaunaldi oso batek euskararekiko erlazio normalizatua ez duela erakusten digu, eta hori guztia, 4-15 urte bitartean gehiagoak euskaraz irakurtzen duela kontuan hartuta.

Biztanleen % 30,1ek daki ondo euskaraz, eta ulertu, beste % 17,1ek ulertzen du. Erabili, berriz, elebidun ez-pasiboen ehuneko handi batek erabiltzen du gizarte-harremanetarako. Gozamen-hizkuntza da irratian, telebistan eta antzerkian, baina askoz ere gutxiago irakurketan, bai hizkuntza-erregistroen gaitasun-arrazoiengatik edo bai beste arrazoi batzuegatik.

Hala eta guztiz ere, eta gazteenei dagokienez, 16-24 urteko gazteen % 57,5 dira elebidunak, eta beste % 25 elebidun pasiboak. Hala bada, gazteen % 82k du harremana euskararekin; hor dago itxaropena. Mapari kasu eginez gero, ikusten da 5-14 urteko neska-mutiletatik % 74,4 elebidunak direla, % 16,1 elebidun pasiboak eta % 9,4 soilik, elebakarrak.

1980ko hamarkadan bezala —ez dago aldaketarik— gazteek (15-24 urtekoek) irakurtzen dute gehien euskaraz; ez, ordea, gaztelaniaz. Gazteen hizkuntza-gaitasunagatik gertatzen da hori. Sexuari dagokionez, gaztelaniaz irakurtzen dutenen aldean, gizonetako gehiago irakurtzen dute euskaraz (irakurle elebidunen % 37,6k) emakumezkoek baino (% 33,8k).

All the music

1984ko inkestak azaldu zuen biztanleen % 24k entzuten zuela musika egunero, beren bitartekoak erabiliz; hau da, kasete eta diskoen bidez. Beste % 24k, berriz, asteen noiz edo noiz. Sozialki zabaldu egin da praktika hori. 2008an, biztanleen % 73,3k zioen musika entzun ohi zuela (astean behin, gutxienez); % 54,9k, egunero.

Melomanoi, hau da, musika maiz entzuten dutenei dagokienez, antzekoak dira batezbestekoak: 1984an, % 41ek entzuten zuen musika 8 ordu asteen; 2008an, berriz, % 73,3k asteen 8,7 orduz. Orduan, gaur egun bezala, bazen indar handiko talde bat: % 7k asteen 15 ordu baino gehiagoz entzuten zuen musika 1984an; 2008an, % 21,3k 10 ordu baino gehiagoz.

Musika entzuteko lekuak, berriz, aldatu egin dira. Gehienbat etxean entzuten da musika (% 88k), baina baita autoan ere (% 40). Klean ere musika asko entzuten da (% 14,3k), —15-24 urteko gazteei dagokienez, % 43—, baita lanean ere (% 12,2k).

Generoei dagokienez, goitik behera aldatu dira zaletasunak. 1984an: “Jendeak batik bat musika klasikoaren, poparen eta abesti melodikoen alorreko diskoak erosten ditu, eta ditu etxean, (% 35 inguruk)”. “Espainiako abesti tradizionalak % 46 inguruko arrakasta du”. Eta, hara harridura, hau ere badio azterketak: “Jazza (%21) eta rocka (%26) gustatzen dira gutxien, horien zaleek disko asko erosten dituzten arren. Gazteek monopolizatu dituzte musika-estilo horiek, eta belaunaldien arteko aldea adierazten dute, argi eta garbi” (119. orr.). Euskal musikari dagokionez, hau dio: “Entzule asko dituela dirudi; dantzaz gain, bilbainada klasikoa atsegin dute askok, eta zertxobait gutxiago euskarazko abesti tradizionalak (% 38k) eta egungoak (% 32k)” (sic).

2008an, ordea, biztanleen % 62,2k zuen gogoko pop-rocka (15-44 urte bitartekoen % 77-80k, eta 45-54 urte bitartekoen ia % 60k). Musika klasikoa dator atzetik: biztanleen % 32,9 da musika klasikoaren zalea —adin-tarteei dagokienez, piramidea alderantzikatu egiten da—, melodikoa (% 19,8), euskal musika tradizionala (% 18,9)—laugarrena *rankingean*— eta egile-abestiak (% 15,5). Deigarria gertatzen da garai bateko “egungo euskarazko musikak” “euskal musika tradizionalarekin” bat egin duela. Musika-erosketetan, “euskal musika tradizionala” hirugarrena da zerrendan —musika klasikoaren erosketa-kopurutik gertu—. Euskal erabiltzaileek jarrera

sustatzailea dutela eta horrekin identifikatzen direla azaltzen digu horrek. Bezerorik onenak 65 urtetik gorakoak dira, baina, kontzertuetara ez dira hainbeste joaten. Atzetik datoz 45-64 urtekoak.

Nabarmentzekoa da elebidunek oso gogoko dutela musika (% 78,7k, elebakarren ehunekoak baino zazpi puntu gehiagok), eta euskarazko musikaren jarraitzaileak direla. Aipatzekoa da, halaber, ez dagoela gizonezkoen eta emakumezkoen arteko alderik, eta oraindik ere deigarriagoa da musika-zaletasuna sozialki hain homogeneoa izatea. % 75aren gainetik dago adin-tarte guztietan, hau da, 15 urtetik 65 urte baino gehiagokoen artean. Datu horiek kontzertuei buruzkoek berresten dituzte, zaharrenen salbuespena kontuan hartuta.

4.4. EREMU PUBLIKO IREKIA

Agora handia duten gizarteak kultuagoak, irekiagoak, demokratikoagoak eta parte-hartzaileagoak dira, eta eremu publikoa politikak kontrolatzeko aukera gutxiago uzten dute.

Jardueretan eta kultura-zerbitzuetan, portaera desberdinak

1984an, euskaldunen % 14 soilik joan zen behin, gutxienez, liburutegira, azkeneko bi urteetan. Hau da, gehienek saihestu egiten zituzten jakintzaren instituzio paregabe eta tenplu horiek. Gehienez ere, liburutegietara, azkeneko urtean, biztanleen % 10 joan zela jo daiteke. Profil hau zuten liburutegi-erabiltzaileek: gizonezkoa (% 16, eta emakumeak % 12), gaztea (% 43, 18-24 urte bitartekoa; horietako askok ikasgelatzat erabiltzen zuten liburutegia), estatus ertainekoa edo altukoa, eta batxilergo- edo unibertsitate-ikasketak eginak.

2007-08 aldian, berriz, biztanleen % 30 erakarri zuten liburutegiek —berrituak, jada— azken urtean: ia % 40, inoiz liburutegiren batean

izan den galdetuz gero (urtebete baino gehiagoan). Ohikoak —azken hilabetean liburutegiren batean izan direnak— % 17,5 dira. Erabiltzaile gehien hiriburuetan eta herri txikienetan daude (neurri ertainetako edo handietako herrietakoak baino gehiago).

Beste aldaketa bat hau dugu: emakumeak orain gehiago dira gizonezkoak baino (% 18,2 eta % 16,6, hurrenez hurren), jakintzaren eta gizarte-sustapenaren arloan sartzeko emakumeek egin duten ahaleginari esker. Gazteen tartea da errepikatzen den alderdia (gazteen % 40,8 dira liburutegi-erabiltzaileak). Elebidunak dira, gehienbat, erdi-mailako edo unibertsitate-ikasketak dituzte, eta askotan joaten dira liburutegietara (ohikoak, batez beste, hilean 6 aldiz). Eskaintzan izan diren aldaketek, berriz, era askotako erabiltzaileak erakarri dituzte. Ia laurden batek liburutegiak ikasteko erabiltzen dituela dio; erdiak baino gehiagok, maileguan liburuak hartzeko; ondoren, aisia- edo lan-kontsultak egiten dituztenak datoz; gero, prentsa irakurri, edo CDak eta DVDak maileguan hartzen edo Interneteko kontsultak egiten dituztenak (oraingoz, inoiz liburutegira joaten diren % 38,2 horren % 4k soilik).

Museoek, bestalde, jauzi kualitatiboa izan dute. 1984ko inkestaren arabera, museoetara biztanleen % 29 joaten zela kalkulatu zen, “Zenbatean behin joaten zara museoetara?” galdetuta (zenbat aldiz bi urtean). Emakumeak gehiago ziren gizonezkoak baino, gazteak (gazteen % 42 joan zen museoren batera azkeneko bi urtean), ikasketadunak eta estatus ertain edo altukoak. Seguruenera, azkeneko urtean museoak bisitatu zituztenak ez ziren % 20ra iritsiko.

2007-08ko inkestak, ordea, azkeneko urteko bisitak hartu zituen kontuan: 10 euskal hiritarretatik, 4 joan ziren museoren bat ikustera azken urtean (% 39,1); hau da, 1984an baino bi aldiz gehiago. Kultura-mailak eta hirietan bizitzeak asko eragiten du horretan. 35-44 urte bitartekoak joaten ziren gehien —azkeneko hiruhilekoko bisitak—, eta ez dago sexuen arteko alderik. Ohikoen % 40 joaten zen hiruhilekoan bitan edo gehiagotan museoetara.

Arte-galeriei eta -zentroei dagokienez, biztanleen % 31k aitortu zuen inoiz horietakoren batera joan zela 1984an, museoetara baino gehixeagok. 2008an, biztanleen % 41ek zioen joan zela inoiz arte-galeriaren batera —% 21,7 azkeneko urtean—, eta ohikoak —azkeneko hiruhilekoan izandakoak— % 9,6 ziren. Horietatik, % 40k zioen astean bitan edo gehiagotan joaten zela. Profila museoetara joaten direnen antzekoa da. Nabarmenezkoa da, dena den, ia % 60k dioela ez dela sekula izan.

Kontzertu eta kontzertu gehiago, guztientzat

Musika-kontzertuen alorrean ere izan da jauzi kualitatiboa, alderdi guztietan: kopurua, indarra, estiloak, eremuak, jende-kopurua... Eskaintza eta eremu gehiago dago, eta gizarte-ohiturak ere asko aldatu dira.

1984an, biztanleen %17k soilik aitortu zuen azkeneko bi urtean kontzertu edo errezitaldi batera joan zela. Hauek ziren entzuleen zaletasunak: musika klasikoa, rocka eta, askoz ere atzerago, "jazza, gaur egungo euskal musika eta euskal dantzak" (sic). 2008an, biztanleen % 57 izan da inoiz kontzerturen batean, azkeneko urteetan, eta % 37,7 gutxienez behin, azkeneko urtean. Ohikoak ere badira (azken hiruhilekoan kontzerturen batean izan direnak): % 16,6. Adinean aurrera egin ahala, geroz eta jende gutxiago joaten da kontzertuetara, eta helduenak baino hiru aldiz gazte gehiago joaten da .

Kontzertu-entzuleak generoka espezializatuta daude: gazteenak, pop-rockeko kontzertuetara joaten dira; helduak, musika klasikokoetara. Euskal musika tradizionala da salbuespena, adin-tarte guztietakoek gozaten baitute horrelako kontzertuekin. Gehienak, hala ere, 55-64 urte bitartekoak dira, eta, atzetik, gazteenak. Oro har, pop-rocka entzutera joan dira kontzertuetan izan direnen erdiak; klasikoa entzutera, % 28; euskal musika tradizionala entzutera, % 14,3; kantautoreak entzutera, % 10, eta askoz ere gutxiago, jazza, folka eta musika melodikoa entzutera joandakoak (% 4-5, horietako bakoitzera).

Nolabaiteko espezializazioa nabari da, adinka: gazteenak (15-34 urtekoak) pop-rockaren eta diskoteka-musikaren zaleak dira; 35-44 urtekoak, berriz, dira hibridoak, genero guztiak kontsumitzen baitituzte; 45-55 urtekoak jazzaren eta folkaren zaleak dira; 55-64 urtekoak, euskal musikaren, autore-musikaren eta melodikoarenak, eta 65 urtetik gorakoak, musika klasikoarenak.

Kontzertuetara joateari dagokionez, ia ez dago alderik herrietako eta hirietako entzuleen artean. Ohikoen erdia —azken hiruhilekoan kontzertuetan izan direnak— behin baino gehiagotan joan dira; hau da, intentsitatea ere handia da.

Elebidunak dira aktiboenak musikaren arloan: elebidunen % 23,4 joaten dira normalean kontzertuetara, eta elebakarren % 13. Zalantzarik gabe, gainera, euskal musika tradizionala estimatzen dute. Kontzertuetara joaten diren elebidunen bi heren euskal musikako kontzertuetara ere joaten dira. Ez dago sexuen arteko alderik, eta ia apenas adinen artekorik; 25-44 eta 55-64 urte bitartekoak dira, dena den, zaleenak.

Zinemara gutxiagotan joaten gara, baina askoz ere gehiago ikusten dugu

Geroz eta jende gutxiago joaten da zinemara. Gazteenak eta zinemazale amorratuak joaten dira gehien.

1984an, biztanleen % 41ek ez zuen zinemara joateko ohiturarik. 2008ko ehunekoa baino zertxobait txikiagoa da hori, 2008an ez baitzen biztanleen % 45,9 sekula edo azkeneko urtean baino gehiagoan zinemara joan. Ohikoak, orain, % 40 dira, % 54k azkeneko urtean inoiz joan dela badio ere.

1984an, beste aukerarik ez zegoenez, 18-24 urtekoen % 93 joaten ziren zinemara. Gaur egun ere, adin-tarte horretakoak joaten dira gehien (15-24 urte bitartekoak % 74,4).

Azpimarratzekoa da sekula baino film gehiago ikusten dela, DVD, Internet eta abarren bidez ikusten diren filmak gehitzen baditugu. Gazteenei dagokienez, % 85ek ikusten dituzte filmak formatu horietan. Eta gauza bera gertatzen da ikusle zaharrenen kasuan ere. Ia biztanleen bi herenek ikusten dituzte filmak formatu horietan, zinemara joaten den % 40aren aldean. Telebista sartuz gero, ohitura orokorra da.

Gizonezkoak emakumezkoak baino zertxobait gehiago joaten dira zinemara (% 42,2 eta % 37,9, hurrenez hurren).

Bitxia bada ere, 25 urtean bere horretan iraun du ikasketa gutxien eta gehien dituztenen arteko aldeak, zinemara joateari dagokionez. izan ere, unibertsitate-ikasketak dituztenen % 60 joaten dira zinemara, ikasketarik gabekoen % 10,1 eta lehen mailako ikasketak dituztenen % 29,1 aldean. Baina “bestelako formatuei” dagokienez, erabat gutxitu dira alde horiek:

unibertsitate-ikasketak dituztenen hiru laurdenak erabiltzen ditu, bai eta ikasketarik gabekoen laurdenak eta lehen mailako ikasketak dituztenen erdiak ere. Formatu berrien erabileran, erdi-mailako ikasketak dituztenek (% 77,9k dute formatu horietarako sarbidea) gainditu egiten dituzte unibertsitate-ikasketak dituztenak (bi puntu).

Formatu berriak, horrenbestez, kultura-sozializatzaile gisa agertu dira, nahiz eta, seguruenera, gizarte-maila batzuetakoek eta besteetakoek film berberak ikusten ez dituzten.

Udalerrien tamainari dagokionez, 9 puntuko aldea baino ez dago zinemara joaten diren herri txikietakoek eta hiriburuetakoen artean, aldi honetan herrietako zinema-areto asko itxi dituzten arren. Seguruenera, hezkuntza demokratizatzeak eta pantailak hirietatik kanpoko merkataritza-zentroetan pilatzeak eragina izango zuen zinemak herritarren kultura-agendan jarraitzearekin. “Bestelako formatuei” dagokienez, ia ez dago alderik hiritarren eta herritarren artean.

1984ko inkestan euskaldunen % 20k aitortu zuen “inoiz” euskarazko filmik ikusi izan duela (63. eta 141. orrialdeak)¹. 2008an, galdera hau egin zitzairen: “*Zer hizkuntzatan ematen dituzte ikustera joaten zaren filmak?*”. Biztanleen % 1,1ek eta elebidunen % 3,3k soilik erantzun zuten ikusten dituztela euskarazko filmak aretoetan. Ez da harrizkeoa; batetik, ia eskaintzarik ez dagoelako, eta, bestetik, euskarazko filmak ikusteko ohitura haurrek eta gazteek soilik dutelako, bai zinema-aretoetan bai etxean (telebistaz eta DVDz). Hau arazoa.

Antzerkirako, lirirako eta dantzarako zaletasun txikiak aurrera egin du, eta bertsolaritza goitik behera aldatu da.

Arte eszenikoen ikuskizunetara joatea, ohitura baino gehiago, noizbehinkako eginkizuna da, eta herritarren kultura-ohiturekin bat egiten du, kontzertuetara joatea baino neurri apalagoan bada ere. Ez da menu kolektiboan sartzen, baina bai tarte batzuetan, batez ere hirikoen, emakumeen, kulturadunen eta zenbait adinen tarteetan, adierazpen artistikoaren arabera.

¹ Galdera ikusita, duda samarreko datua da. Galderak honela zioen : “Ikusi duzu sekula euskarazko filmik edo antzezpenik?": Zinema (bai/ez) eta Antzerkia (bai/ez) (63. orr.). Inkestatuek emandako erantzunetan sartu ote dira telebistaz ikusitako filmak?

1984an, biztanleen % 25ek zioen joan zela antzerkira inoiz. Gazteenak, % 30, ziren ikuslerik onenak; arabarrak jakin-min handiena zutenak, eta biztanleen % 10ek zioen ikusi zuela antzerkia euskaraz, noiz edo noiz. Ikasketa-mailen arabera, unibertsitate-ikasketak zituztenak lehen mailako ikasketak zituztenak baino hiru aldiz gehiago joaten ziren antzerkira (% 55 eta % 18, hurrenez hurren).

Dantzari dagokionez, euskal dantza zen jende gehien erakartzen zuen ikuskizuna, 1984an (% 56). Harritzekoa bada ere, biztanleen % 30 joan zen dantza edo balet klasikoko ikuskizunen batera, azkeneko bi urteetan. 2008ko inkestan, ordea, azken urtean ikuskizun eszenikoren bat (antzerkia, lirika edo dantza) ikusi zuten galdetzen zitzairen inkestatuei. Baiez erantzun zuen inkestatuen % 20k. Ikuskizunetara joan zirela esan zutenen artean, % 46,2k esan zuen antzerkia ikustera joan zela; % 20,6k, ikuskizun lirikoetara, eta % 22,9k, dantza-ikuskizunetara. Bertsolaritzari dagokionez, elebidunen % 32,6 izan da noiz edo noiz bertsolari-emanaldiren batean, hau da, biztanleen % 10a.

Euskal biztanleen % 9,2 dira ohiko antzerki-ikusleak —azkeneko hiruhilekoan antzerkia ikustera joandakoak—; % 21,8, azken urtean antzerkia ikusi dutenak gehituz gero. Emakumeak gizonezkoak baino gehiago joaten dira antzerkira (% 10,9, gizonezkoak baino hiru puntu gehiago). Gauza bera gertatzen da ikasketa-mailei eta hiri-bizilekuei dagokienez. Lirikari (% 3,6) eta dantzari (% 3,6) dagokienez, errepikatu egiten dira eredu horiek.

Adina aldatu egiten da, ikuskizun-motaren arabera. Gazte helduak (25-44 urte bitartekoak) dira antzerki-ikusle ohikoenak (% 11,3, adin-tarteen batezbestekoa); helduenak (55 urte eta gehiago), berriz, lirika-ikusle ohikoenak (% 5). Dantzas, berriz, adin-tarte askotakoek gozaten dute (35-44, 55-64 eta 15-24 urtekoek), baina gutxi dira (% 4,6k, batez beste)¹.

Azken urtean antzerkian izan diren elebidunen % 24,5etik ia erdiak esan dute euskarazko antzerkiren bat ikustera joan direla. Hau da, norberaren izaeraren arabera banatzen dira ikusleak. Baina nahasgarria gerta daiteke irudi hori, lurralde batetik bestera aldeak egon badaude eta. Gipuzkoan, elebidunak dezente gehiago joaten dira euskarazko antzerki-saiotetara gaztelaniazkoetara

1 Ohikoen (hiru hilean behin, gutxienez, joaten direnak) maiztasuna ez da oso handia. Hiru hilean behin soilik joaten dira ia bi heren —lirikaren kasuan izan ezik, urteko abonamenduengatik, hilean behingo ikuskizunak egiten baitira, operan—; heren bat —% 30-37— hiru hilean bitan joaten da, gutxienez, eta % 14-15 hirutan baino gehiagotan.

baino, eta kontrakoa gertatzen da Bizkaian eta Araban. Adin-taldeka, 35-45 urteko elebidunak euskarazko ikuskizunetara gaztelaniazkoetara baino askoz ere gehiago joaten dira (% 58,9 lehenengoetara, eta % 37,9 bigarrenengoetara).

Bertsolaritzari dagokionez, ezin dira oraingo garaiak alderatu 1984ko inkestarekin. Baina aldaketa goitik beherakoa izan da, adierazpenari, prestigioari, ikus-entzule motari (landa eremukoetatik hiri-eremuetakoetara, helduetatik belaunaldi askoetakoetara) eta gaiari dagokienez (gai herrikoietatik edo eguneroko bizitzakoetatik era askotako gaietara). Harritzekoa da euskaldun gehienek “menuan” ez sartzea bertsolaritza. Agian, politizatu samarra dago, eta horrek atzeratu egingo ditu beste ikus-entzule mota batzuk.

Elebidunen % 8,7 joan ohi dira bertsolariak entzutera (hiru hilean behin, gutxienez), bai formatu txikiko ikuskizunetara —bertso-afarietara, esate baterako—, bai formatu handikoetara —txapelketetara, adibidez—. Euskal gazte asko erakarri ditu bertsolaritzak (gazte elebidunen % 12,9), baina belaunaldi arteko bizipena ere bada (65 urtetik gorakoen % 11,1ek ere maite du bertsolaritza, eta hori da alor honetako bigarren tarte garrantzitsuena). Bertsolari berri gehienak unibertsitate-ikasketak dituzten gazteak badira ere (estiloak, gaiak eta kalitateak berriak dituzte), erdi-mailako ikasketak edo lehen mailakoak dituzten gazteak dira ikuslerik sutsuenak.

Gizonezko gehiago doaz emakumeak baino, baina aldea ez da garai batean bezain handia. Gaur egun gizonezkoen % 9,7 eta emakumezkoen % 7,8 dira bertsozale. Lurraldeka, Gipuzkoak du bertsozale gehien; habitatak kontuan hartuta, 25.000 biztanle baino gutxiagoko herrietako elebidunak; horien atzetik, hiriburuetako elebidunak, hor biltzen baitira, oro har, euskaldun gehienak.

4.5. NORABIDE- ETA OHITURA-ALDAKETA OROKORRAK

Konparazio-estatistiken irakurketa orokor gisara, hona hemen haietatik ondorioztatzen diren eredu batzuk.

1. Sekularizazio bizia eta kultura-desideologizazioa

Kultura-ohiturek eta -kontsumoek izan duten heltze- eta dibertsifikatze-prozesua herritarren jarrera aldaketaren adierazpide ere bada. Era guztietako kultura-adierazpenetara zabaldu dira herritarrak; bizimodu laikoaren alde egin dute —erlijioak ez du eragin handirik, eta gutxiengo baten bizitza pribatura igaro da, aldian behingo errituetan izan ezik, iraun egiten baitute—, jarduerak orokortu egin dira, eta norberaren aukera ideologikoez ez dute eragin handirik. Arau horretatik salbuetsi egiten dira, partzialki, euskararen transmisioa bermatzeko euskarazko jardueren sostengu identitario aktiboa behar duten jarduerak.

2. Ohitura dibertsifikatuak, irekiak eta orokorrak

Aldaketak ez daude munduko joeretatik kanpo, hemengo merkatu eta egile asko geroz eta globalagoak baitira, toki-eremu bakoitzak bere zirkuituak gordetzen baditu ere. EAE ez da salbuespena, nahasketa horren ereduazko adibide baizik. Jardun batzuk jada globalak dira —Internet, kontzertuak, ikus-entzunezkoak—; hobetsitako irakurketa eta entzunaldi batzuk maila orokorrekoak dira, eta beste batzuk, aldiz, zapora orokor hori eta bertakoa nahasten dituzte (antzerkiak, dantzak, museoek, irakurketek...).

Baina, horretaz gain, dibertsifikatu egin da bertoko menua: zaleek jardun bat nahiago izan dezakete, baina elkarren osagarri egiten diren praktika desberdinetara apuntatzen dira, aukeraren arabera.

3. Ezagutza helburu

Ezagutzak, jakituriatik harago, balio erantsi ez-material gisa —ez dio inporta zer eremutan— bere horretan izan duen garrantziak zerikusi handia du irekitze horrekin; izan ere, sentsazioekin, gozamenarekin, adierazpen-moduekin, komunikazioekin, komunitateekin, gizarte-sareekin... lotu da.

4. Irakurketa eta idazketa atzerantz, eta ikus-entzunezkoak formatu berrietan

Irakurketa eta idazketa liburu edo egunkarietatik ordenagailuaren pantailara igaro eta berritu baziren ere —hor idatziak beste nabaritasun bat lortu zuen—, sareek irudiak transmititzeko duten gaitasunagatik, alboratzen ari gara idatzitakoa; hala ere, blog-en erreakzioa oso garrantzitsua izaten ari da, gure munduko aldaketa bizkorrei zentzua bilatzeko, *blogosfera*-n ikusten den guztia urrea ez bada ere. Eta ikus-entzunezko zaharrak, berriz, —zinemak eta telebistak— ikus-entzunezko *brikolajearekin*, bideoekin eta abarrekin lehiatu behar du, batez ere gazteen artean.

5. Kulturaren feminizazioa

Emakumeek ongi ikasi dute munduan leku bat edukitzeko ezagutzaren eta jakintzaren jabe izan behar dela, horiek ahalduntzeko bermerik ematen ez badute ere. Eguneratzeko emakumeek egin duten ahalegina izugarria izan da, eta jakintza lehenetsi dute: irakurketa (liburutegietara joatea, liburuak irakurtzea, euskaraz izan ezik...), begien eta zentzumenen heziketa (museoek, antzerkiak, dantzak...), baina ez, oraingoz prentsan eguneroko informazioaren jarraipena egitea. Gizonezkoak, berriz, kokalekua galtzen ari dira, eta arreta handiagoa jarri diete teknologia berriei, musikari, informazioari eta trebetasunei.

6. Askotariko gazteak

Guztiaren erabiltzaile dira —irakurri ere egiten dute—, baina adierazpen batzuk nahiago dituzte beste batzuk baino; esate

baterako, musika, ikus-entzunezkoak eta Internet. Belaunaldien arteko transmisioaren aldetik, lasaitzekoa da hori, baina bistakoa da helduen ohiturekin alderatuta oso bestelakoak dituztela.

Euskara dakitenek —gazte gehienek, eta geroz eta normaltasun handiagoz bizi dute, gainera— kultura-adierazpide gehiago eta sustapen-faktore gisa etorkizunaz gozatzeko abantaila dute. Erabiltzaile bakar direla badakiten eremuak babesteko joera dute (euskarazko irakurketa, antzerkia, musika eta bertsolaritza).

7. Hizkuntza normalizazio partziala

Hiztun gehiago izateak euskarazko kultura-eskaintza eta -eskaria zabaldu egin ditu, ia eremu guztietan.

8. Agorafilia eta klaustrofilia

Etxean gehiegizko ekipamendua izateak herritarrak etxezulo bihurtuko zituela pentsatzen bazen ere, ez da hala gertatu. Etxeko kultura-kontsumoa areagotu egin da, bai, baina kaleko talde-kulturak orekatu du, lekuak irabazi baititu kultura-adierazpen guztietan.

9. Berreskuratutako erakundeak

Azkeneko 20 urteotan goitik behera aldatu da herritarrek museo, liburutegi eta kultura-etxeekiko zuten jarrera. Horiek izan duten zerbitzu- eta eduki-berrikuntza handiagatik, herritarren ohituren parte dira orain.

Labur esanda, kultura-ohiturak asko aldatu dira azken 25 urte hauetan. Etxe-erabilerako kulturaren eta jende artean partekatzearen arteko nahasketa interesgarria gertatu da. Gazteak hobeto prestatuta daude, eta harremanetarako aurreko

belaunaldikoak baino prestuago eta irekiago ageri dira. Emakumeen ohiturak asko aldatu dira alor guztietan. Lehen gutxi batzuentzako zat jotzen ziren kultura-jarduerak hedatu egin dira, eta euskarazko kultura-adierazpenek aurrera egin dute, nahiz eta euskarazko egunkari eta liburuen irakurketa nahi adina garatzen ari ez eta gizarte-sektore oso kultu eta motibatuaren jardun bihurtu.



LABURPEN ESTATISTIKOA: EUSKADIKO KULTURA ERREALITATEA ZIFRETAN

Estatistiken esparruan jasotako kultura-sektoreen zifra nagusien bilduma dugu laburpen estatistikoa. Zehazki, Behatokiak berak sortutako datuak eta bigarren mailako iturrietatik ateratakoak barnean hartzen dituen sintesi-eragiketa bat da. Informazioaren erreferentziazko aldiei dagokienez, azken datu erabilgarrietara orientatu da hautaketa, eta datu horiek desberdinak izan daitezke erabilitako iturrien arabera. Halaber, ahal izan dugunean, eboluzio-datuak ematen saiatu gara.

Kultura Ondareari, Arteei, Kultura Industriei eta Komunikabideei dagozkien sektore-esparruen egiturari eusten dio laburpen horrek, eta hainbat gairi buruzko datuak jasotzen dituzten zeharkako hainbat begirada ditu, zehazki, kulturaren euskarak duen presentziari, ingurune digitalari eta kultura-produktu eta -zerbitzuen eskariari buruzko datuak.

Kultura Ondarearen barruko esparruari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzak duela hainbat urtez geroztik hona sustatzen dituen estatistika erregularretako datuak —Liburutegiei eta Museoei buruzkoak— ere jaso dira. Artxiboei buruzko Estatistikako datuak lortzen ditugunean (Behatokia datu horiek lantzen ari da, Irargirekin elkarlanean), ondareari lotutako kultura-ondasun eta -zerbitzuen ikuspegi orokorra izango dugu.

Orain arte, informazio-desoreka nabarmena izan dute Arteek, eta hori dela-eta, arte eszenikoei, ikusizko arteei eta musika-arteei buruzko informazioa biltzeko ahalegin handiak egin ditugu, *Arteei buruzko Estatistikaren* bitartez. Jakina denez, arteen balioa ez dago garrantzi ekonomikoari edota ekoizpen-garrantziari mugatua, datuek jaso ezin dituzten konnotazioak ditu arteak ulertzeko moduak, baina zifrek adierazgarritasunaren bertutea dute.

Kultura Industriei dagokienez, hutsuneak zituzten sektoreetan, hots, industria diskografikoan eta ikus-entzunezkoen industrian estatistika-informazioa sortu du Behatokiak. Argitaratze-industriak, aitzitik, Editoreen Gremioak sustatutako azterlanak ditu duela

hainbat urtez geroztik, eta horiek dira estatistika-informazioaren iturri nagusia, Kultura Ministerioaren ISBN duten liburuen argitalpenaren Estatistikarekin batera. Aurkeztutako datu-hautaketarako, izan ere, horiek kontuan hartu dira. Komunikabideei buruzko informazioa, aldiz, hiru iturritatik hartu da: CIES-ek (Soziologia Azterlanak Ikertzeko Zentroak) eskainitako Euskadiko komunikabideen ikus-entzuleen azterketa, AIMC-k (Komunikabideak Aztertze Elkartea) emandako datuak eta OJD-tik (Hedapenaren Justifikaziorako Bulegoak) hartutako informazioa, egunkarien hedapenari buruzkoa.

Zeharkako informazioa, berriz, Behatokiak, Euskal Kultura Erakundeak eta Eusko Ikaskuntzak sustatutako Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko 2007-2008ko Estatistikatik atera dugu funtsean. Biztanleriaren ohiturei eta praktikei buruzko informazio zabala ez ezik, ingurune digitalari buruzko informazioa (ekipamenduei eta Interneten erabilerari dagokienez) ere ematen duen eragiketa dugu. Euskararen presentziari buruzko informazioa ere eragiketa horretan oinarrituta dago, eta Joan Mari Torrealdai eta Euskadiko Editoreen Gremioak eskainitako informazioarekin (euskarazko argitaratze-ekoizpenari buruzkoa) osatzen da.

1. ONDAREA

1.1. LIBURUTEGI PUBLIKOAK

a) Karakterizazio orokorra

1. irudia. Liburutegi publikoen banaketa Lurralde Historikoen arabera. Denborazko serie

Lurralde Historikoa	2004	2005	2006	2007
EAE	284	286	269	272
Araba	46	45	40	41
Bizkaia	136	137	131	132
Gipuzkoa	102	104	98	99

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila. *Euskal Autonomia Erkidegoko liburutegi publikoei buruzko azterketa.*

b) Azpiegiturak eta funtsak

2. irudia. Oinarrizko informazioak Lurralde Historikoaren arabera. Denborazko serie

		2004	2005	2006	2007
EAE	Irakurketa-postuak	14.914	16.354	14.347	12.411
	Liburukiak	3.589.709	4.259.134	4.185.878	4.021.258
	Aldizkako argitalpenak	13.360	26.285	26.155	20.868
Araba	Irakurketa-postuak	1.940	2.595	2.540	1.527
	Liburukiak	337.414	517.813	511.927	494.378
	Aldizkako argitalpenak	853	3.445	3.433	3.091
Bizkaia	Irakurketa-postuak	7.030	7.808	6.867	5.631
	Liburukiak	1.655.596	1.981.490	1.951.465	1.880.308
	Aldizkako argitalpenak	6.388	13.606	13.585	9.892
Gipuzkoa	Irakurketa-postuak	5.944	5.951	4.940	5.253
	Liburukiak	1.596.699	1.759.831	1.722.486	1.646.572
	Aldizkako argitalpenak	6.119	9.234	9.137	7.885

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila. *Euskal Autonomia Erkidegoko liburutegi publikoei buruzko azterketa.*

c) Enplegua

3. irudia. Langile-kopurua Lurralde Historikoaren arabera. Denborazko serie

Lurralde Historikoa	2004	2005	2006	2007
EAE	582	764	717	655
Araba	67	101	95	80
Bizkaia	315	393	375	345
Gipuzkoa	200	270	247	230

